2017-03-17 EGUBAKOITZA / 721. ZENBAKIA / 17. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM

# goiena"

ZU HEMEN ZAUDE



+ Saltzaile ibiltariak: etxerik etxe eta auzorik auzo

Umeen azalaren etsaiak: dermatitisa, moluskuak…



## Oparitu dizute zurea?

Debagoieneko gutizia eta ohitura preziatua balioan jartzeko Karapaixo Eguna da bihar / 2

Arrasateko Askasibar baserriko Koldo Gaztelu eta Rakel Perez de Arenaza karapaixo egin-berriekin, martitzenean.

XABI URZELAI

# Finalerako txartelak, Aramaion

Bihar, zapatua, jokatuko dute Arabako Bertsolari Txapelketako azken finalerdia kultura etxean eta orduantxe argituko dira finalisten izenak / 19




**EZKONTZEN GEHIGARRIA** / 21

**SINADURAK**


ANDER BOLIBAR / **0**


GARIKOITZ ITURBE / **6**


AITOR UGALDE / **37**


BEÑAT ZAMALLOA AKIZU / **14**


ANDER ETXEBERRIA / **48**






# Oparotasunaren ikurra den udaberriko opila

Karapaixo Eguna da bihar, zapatua, Arrasaten; hilean behin –hirugarren zapatuan– ospatzen den baserritarren azoka baliatuko dute hiruki forma duen Debagoieneko jaki preziatu hori balioan jartzeko; karapaixo tailerra egingo dute, adibidez

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

Sasoikoa da. Bertakoa. Tradizionala. Eta antzinakoa. Hiruki itxura du, arrautzak ertzetan eta txorizoak erdian.

Karapaixoa da hori –garapaioa, garipaua, mokotza, amatxiki-aitatxiki opila, Pazko opila...–, azken urte luzeetan garizuman –Hausterre Egunetik Pazko-domekara arte– ama-aita pontekoek besoetakoari oparitzen dioten ogi opila; batzuetan, ezkondu arte; beste batzuetan, berriz, ama-aita pontekoak hil arte.

Usadio indartsua da Debagoienean. Leintz ibarrean, bereziki –Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaio– eta Oñatin. Azken herri horretan, gainera, indar handia hartu du karapaixo gozoa oparitzeko ohiturak, inguruan ere hedatzen dabilena. Bestalde, Bergaraldean ere badute karapaixoa oparitzeko ohitura, txikiagoa izan arren; Elgetan, esaterako, garipaua esaten diote.

Kontuak kontu, horren jaki preziatua balioan jartzeko Karapaixo Eguna antolatu dute, lehen aldiz, Arrasaten. Debagoieneko Mankomunitatea, Debagaraia Debagoieneko landa garapenerako elkartea eta Arrasateko Udala daude antolatzaileen artean. Bihar, zapatua, izango da, eta Arrasaten ohiturazkoa den baserritarren azoka baliatuko dute; "Txakolin Eguna, Erle Eguna... antolatu izan diren moduan, orain Karapaixo Eguna antolatzea erabaki dugu, karapaixoa balioan jartzeko", esplikatu du Ana Herizek, Mankomunitateko turismo teknikariak.



Rakel Perez de Arenaza karapaixoa prestatzen Askasibar baserrian. XABIER URZELAI

### Saldu eta erakutsi

Bi modutara egingo dute hori: batetik, baserriko bestelako produktuekin batera karapaixoak ere salgai izango dira –azokari buruzko informazio gehiago 9. orrian–. Haiek erosteko aukeraz aparte, enkargatzeko aukera ere izango da, besteak beste, Aretxabaletako Etxezuri baserrian eta Arrasateko Askasibar baserrian egindakoak, azokan bertako nekazariek ipiniko dute-eta postua.

Bestetik, karapaixo tailerra egingo dute; Askasibar baserriko Rakel Perez de Arenaza nekazariak gidatuta, kasu honetan. "Arrautzaz eta txorizoz egindakoak izango dira; bertako baserrietako produktuz egindakoak, gainera: irina gurea, Askasibar baserrikoa; txorizoak Enuzketakoak eta arrautzak, ekologikoak, Azkoagarenak. Labea eramango dute, egurrezkoa, eta 11:30ean hasiko gara. Oso puntual hasi behar dugu, ze tenperaturak eta denborak eragin handia du emaitzan, eta hori oso ondo zaindu behar dugu. Guk, berez, fermentatutako orea erabiltzen dugu, azkarri edo






Hileroko Arrasateko baserritarren azokaren barnean. Arrasateko Seber Altube plazan.

AZOKA berezia KARAPAIXOAren inguruan
11:30 - Tailerra: karapaixoa egiteko tailerra

Aurrez izena ematea gomendatzen da
943 79 64 63 turismo@debagoiena.com

KARAPAIXOAK SALGAI

Informazio gehiago

turismo@debagoiena.eus 943 79 64 63 www.turismodebagoiena.com

Debagoiena · Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón · Euskadi Basque Country · ibai-arte



Aitor Isasa, Goxo Goxua gozotegikoa, karapaixoa erakusten. UBANE MADERA

## Karapaixo gozoak

Karapaixo gozoak enkargatzen dituzte gero eta gehiagok. Txokolatezko arrautzez gainera, norberak aukeratutako bestelako jakiz *tuneatzeko* aukera izaten da: erregalizekin, gomazko gozokiekin… etxeko txikienen gustuak gailentzen dabiltzan seinale.



Koldo Gaztelu, labetik atera berri duen karapaixoa erakusten. XABIER URZELAI

legamia bakoa. Eta ore hori zelan egiten dugun erakutsiko dugu tailerrean, baina oso prozesu luzea da –bezperan hasi behar izaten da–, eta, azokan karapaixoak egin ahal izateko, etxetik eginda eramango dugu orea. Izan ere, asmoa da karapaixoak egiten erakusteaz gainera, tailerrean parte hartzen dutenek amaitzean karapaixotxo bat etxera eramatea. Tailerra, beraz, 11:30ean hasiko dugu, 12:30ean sartuko ditugu karapaixoak labera eta 13:00etan aterako ditugu labetik; 15-20 lagunendako lekua izango da", esplikatu du Rakel Perez de Arenaza nekazariak.

### Hainbat ogi opil mota

Biharko tailerrean karapaixo tradizionala egiten erakutsiko dute. Baina hainbat karapaixo mota daude. Tradizionalen artean, esaterako, sagar erreak zituena ere izaten zen –negua izanda, arrautzak garestiegiak zirelako garai batean– ; eta bizkotxozkoak txokolatezko arrautzekin –edo txokolatezko untxiekin, gominolekin…– indartsu sartu dira azken urteotan.

## Karapaixoa: Kristo aurreko ohitura

"Gizarteak naturarekin beste lotura bat zeukan sasoi hartatik dator karapaixoa; kristautasunak mundu osoko bestelako erritoak bereganatu dituen moduan, hau ere bereganatu zuen, eta seguru aski, horri esker mantendu da ere bai. Baina Antzinarora jo behar dugu jatorriaren bila. Karapaixoak adierazten diguna da udaberria hastera doala eta eskatu behar dugula uzta oso emankorra hurrengo urteko negu gogorra pasatu ahal izateko", esplikatu du Arantza Otaduyk, Iraganeko Oinatzak Jakintza eta Zientzia Elkarteko historialariak. "Euskal Herri osoan dago udaberriko ekinozioan-San Jose egunaren-garizuman bueltan entregatzen den opil bat: badaukagu hemen karapaixoa, mokotza durangaldean, amatxiki-opila Nafarroan, ranzonbil Araba aldean… Eta lurralde guzti-guztiek dute horrelako bat. Baina Penintsulan ez da bakarrik gure lurraldera mugatzen. Katalunian oso ezaguna den Mona de Pascua jatorrian ere ogi betea zen, nahiz eta gaur egun txokolatez, pastelaz-eta egin; Asturiasen ere jaten dute garizuman horrelako ogia eta Grezian koulourakis edo antzeko izena daukan beste opil bat banatzen da sasoi honetan, kontzeptu bera mantenduta: udaberria, ugaltzea, jaiotza berri bat… negua bukatu da, eta goazen bizitzaren ziklo berri bati hasiera ematera".

### Formaren esangura

Bestalde, karapaixoaren formak eta osagaiek ere esangura berezia dutela kontatu du Arrasateko historialariak. Formari dagokionez: "Gaur egun ezagutzen dugun karapaixoak hiruki forma dauka kristautasunaren Jainko gorenak hiru izaera desberdin dituelako; trinitatea, bestela esanda. Edozelan ere, inguruko bestelako opilak ikertuta, asko borobilak dira. Forma horrek lotura du edo zirkuluarekin –eguzkia irudikatzeko– edo zirkunferentziarekin –denboraren igarotzea irudikatzeko, urtaroen zikloak, karapaixoari dagokionez, ziklo berria datorrela: udaberria–".

**EUROPAKO TOKI ASKOTAN DUTE OGIZKO OPIL BETEA OPARITZEKO OHITURA, HAINBAT ALDAGAIREKIN**

### Osagaien sinbologia

Osagaiei dagokienez, berriz: "Arrautzatik hasiko dira kultura askotako lehenengo jainkoak; beraz, hazia edo bizitzaren sorrera adieraziko du eta horregatik sartuko da eguzkiarekin lotutako opil horretan bizitzaren hazi hori (…) Gainera nekazaritza munduan ongarri naturalak dira, arrautza zaharrak edo haien oskolak lurrarendako ongarri moduan oso erabiliak izan dira ortuetan. Eta txerrikia txertatzen da adierazteko aberastasuna, eta udaberriarekin etorriko den oparotasun hori maite duzun norbaiti eskaintzeko. Txerrikiari esker, hurrengo urteko negu gogor hori uzta oso oparotsuari esker pasatu ahal izango dugu", esplikatu du Otaduyk.



# Korrikako kilometroen erdiak bideratu dituzte

Korrikako Debagoieneko antolatzaileek eskatu dute, ahal dela, azken orduan barik, eskualdean kilometroa eskuratzeko asmoa dutenek datorren astean –martxoaren 25erako– bideratzea eskaera, helbide honetara: 'korrikadebagoiena@gmail.com'

**Ubane Madera** DEBAGOIENA
Hilabete baino gutxiago falta da Korrikak eskualdea zeharkatzeko. Apirilaren 7an gauerdian sartuko da Osintxutik, eta Antzuolatik irten. Eta hurrengo egunean, Oñatitik sartuko da eguerdian eta Leintz Gatzagatik irten.

**46 kilometro eskualdean**
Guztira, bada, 46 kilometro egingo ditu euskararen aldeko lasterketak Debagoienean. Eta horietatik erdiak dagoeneko bideratuta daude. "Eskuratu gura duenari bizkor ibiltzeko gomendatuko nioke, ze laster agortzen dira. Arrasaten, adibidez, oso-oso ondo doa eskaera. Beste udalerri batzuetan, berriz, motel samar, oraingoz. Baina gero, azkeneko orduan etortzen dira kilometroak eskuratzeko eskaera mordoa, eta horiek antolatzea eta, batez ere, kilometroa eskuratu dutenei korrika egiteko lekurik gustukoena ematea ezinezkoa izaten da –herrien erdiguneak dira preziatuenak–. Eta hori gertatzen denean, herri arteko zatietan egin behar izaten dute korrika", esplikatu du Aitor Juaristik, Debagoieneko Korrikako koordinatzaileak.

Hala, hark eskatu du martxoaren 25a aurretik –egubakoitza– bideratzea kilometroen eskaera, honako helbidera: –*korrikadebagoiena@gmail.com*–.



*Euskararen lau aurpegiak* dokumentalaren aurkezpena. AEK

**425 euroko dohaintza**
Kilometro bakoitzarengatik 425 euroko dohaintza egin behar da. Hori horrela, gehienetan, udalak, ikastetxeak, kultur eragileak, kuadrillak... dira kilometroak eskuratzen dituztenak.

Edozein modutan, kilometroak eskuratzeaz gainera, Korrikari laguntzeko beste hainbat modu ere badira: Korrika laguntzaile egitea –12 euro– edo Korrikako arropa edo materiala erostea. Horretarako ere hainbat bide daude: Arrasateko Erdu AEKn eskaintza zabala dute, baita *Korrika.eus* helbidean ere; eta horrez gainera, Korrika pasatu bitartean, herriz herri salmenta postuak jartzen dihardute.

**Korrikaren dokumentala**
Bestalde, *Euskararen lau aurpegiak* dokumentala egin dute Korrikaren 20. edizioaren bueltan. Bada, Goiena telebistan berau emitituko da martitzenean, hilaren 21, 21:30ean.


EAJko eskualdeko ordezkariak eguaztenean. EAJ

## Errespetua eskatu du Debagoieneko EAJk, erasoak gaitzetsiz

"Bereziki azken hilabetean Oñatiko eta Aretxabaletako jeltzaleen egoitzetan egin diren erasoak aintzat hartuz", horiek eta legealdian jasandako bestelako pintaketak gaitzetsi egin ditu Debagoieneko EAJk. "Herritarren bizikidetza baketsua eraso eta oztopatzen" dutela adierazteaz batera, "errespetua " exijitu dute, "iritzi aniztasunarekiko, eta errespetua, oro har, eskualdea osatzen duten herri eta herritarrekiko".

EAJko eskualdeko ordezkaritza zabala elkartu zen eguaztenean Oñatin, eta, gertakariak salatzeaz gainera, eraso horien helburua "ulergaitza" egiten zaiela azpimarratu zuten: "Intolerantziatik jaiotako ekintzek ez dute lekurik gure gizartean eta are gutxiago bizikidetzan onarritutako Euskal Herria eraikitzeko sustatzen ari garen bake-bidean". Halako ekintzei aurre egin eta haiek gaitzesteko eskatzeaz bat, "beldur barik lanean eta errespetuan oinarritutako elkarbizitza baten aldeko apustua" egiten jarraituko dutela berretsi egin zuten jeltzaleek.

## Memoria historikoa lantzeko bi hitzordu, Askapenaren eskutik

Bi hitzordu antolatu ditu Askapenak. Gaur, egubakoitza, 18:00etan, *Dos pueblos a los que amar, un mundo por el que luchar* liburua aurkeztuko dute Arrasateko Irati tabernan Hector Ibarra mexikarrak eta Jose Luis Estevez nafarrak. El Salvadorren borrokatu ziren internazionalistak ditu hizpide eta egileetako bi dira Ibarra eta Estevez. Jarraian, 2017ko brigadak aurkeztuko dituzte. "Eskaintza oparoa izango dugu: Argentina, Uruguai, Bolivia, Kuba, Brasil, Bretainia, Italia, Mexiko, Palestina, Herrialde Katalanak eta Venezuela. Eta martxoaren 25erako, *Nikaragua Internazionalista (1979-1990)* argazki erakusketa jarriko dute Seber Altube plazan. "Arrasatetik dozenaka lagun joan ziren Nikaraguara eta El Salvadorrera brigadista gisa, eta bada bertan bizia emateraino borrokatu zenik ere bai; Pakito Arriaran kasu".

NISSAN
Innovation that excites
NISSAN X-TRAIL
23.600 €*TIK AURRERA
7 ESERLEKUREKIN ETA SABAI PANORAMIKOAREKIN

3 URTEKO MANTENTZEA, BERMEA ETA LAGUNTZA
YOU+ NISSAN
GURE KONPROMISOA ZURE ESPERIENTZIA
Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa Cliente programa hemen nuncaconduciassolos edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.
GAURSA ARABAUTO Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Vitoria-Gasteiz. Araba - Tel. 945 262 501 - http://red.nissan.es/arabauto
Kontsumo mistoa: 6.2 l/100 km. $CO_2$ isurpenak: 145 g/km.
*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB. Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Ziurtagiriaren araberako estandarrak dira. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza baliodunaeskuzko Nissan X-Trail Acenta DIG-T 163CV (120 kW) EURO 6 berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SAren bidez finantzatzen badute. Gutxieneko egonaldia 24 hilabete, finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa 6.000€. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2017/03/31 arte da baliodunа. Informazio gehiago jasotzeko jo zure gertueneko kontzesionariora. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskainitako ibilgailuarekin.

## Aurrerabidearen baitan

JOSE MARI ITURBE
ANTZUOLA

Azkenaldian, komunikabideetan dabiltza berriak. Madrilen Sustapen Ministerioarekin bilerak, akordioak, fotomuntaketak, eta abar. Donostiako, Bilboko eta Gasteizko geltokietan parkeak, lurperatzeak... denak polita dirudi.

Bitartean, Antzuolan, San Blas inguruan hormigoizko pareta ikaragarria eraikitzen ari dira. Akaso, grafitiren batekin konpontzeko asmoa izango dut? Ez dago halako astakeria ezkutatuko duen pinturarik. Aitzabasalde baserria lurreratuta eta iturria lurperatuta daude. Eta laster hasiko gara 500 metroko biaduktua ikusten, Ertzile eta San Blas tartean.

Non gelditzen da Markel Olanok proposatzen duen Gipuzkoa hiria? Autobidearen eta AHTaren artean Antzuola txikitu digute. Autobidea hartzeko Deskarga igo beharko dugu eta trena, Donostian edo Bilbon.

Hori dena gutxi balitz, laster Gorlatik Deskargara goi-tentsioko linea erraldoi bat jarriko digute (Gueñes-Ezkio); hori bai, AHTa "energia garbiz hornitzeko".

Aurrerabidea nagusi, ondarea eta ingurumena noizbait faltan igarriko ditugu.

## Errespetuan oinarritutako Oñati bat eskatzen dugu

MIKEL ITURROSPE
OÑATIKO EAJ-PNV-KO UDALBATZARRA
OÑATI

Larunbat gauean Oñatiko Batzokiak beste eraso bat jaso zuen. Beste behin ere, pintadak egin zituzten horman, svastika ikurraren bitartez EAJ-PNV alderdia naziekin alderatuz. Hori gutxi balitz, Batzokia errausteko *proposamena* islatu dute eraikinaren paretan.

Garai berrietan gaudela esaten da, baita biolentziaz betetako urteak atzean utzi ditugula, baina horrelako ekintzen aurrean, EAJri benetan harrigarria eta larritzekoa iruditzen zaio egungo gizartean zenbait pertsonak oraindik barneratuta daukaten biolentzia. Zer lortu nahi dute erasotzaileek, herria kaltetzea? Larunbateko gertakariek betiko jazarleen gogorkeria eta inposizio nahia islatu eta agerian utzi baino ez dutela egiten uste dugu. Euskal Herriko gehienok baztertu eta atzean utzi nahi dugun inposizio, indarkeria eta biolentzia garaiak ez ditu herri honek merezi. Sinesgaitza iruditzen zaigu gogorkeria eta sufrimendu urte horien guztien ondoren, Oñatin, oraindik, indarkeria horri atea itxi ez dioten eta gorrotoan hezi diren pertsonak daudela ikustea.

Larunbatean gertatutakoak ez dio soilik EAJri eragiten, herri osoaren bizikidetzari baizik. EAJ-PNVk berdintasunean eta errespetuan oinarritutako herri hezitzailean sinesten du, oñatiar guztien arteko bizikidetza baketsua guztientzako baita onuragarria.

Bizi ditugun garaietan horrelako ekintzek, intolerantziatik jaiotakoek, ez dute lekurik gure herrian, ez eta bizikidetzan oinarritutako Euskal Herria eraikitzeko sustatzen ari garen bake-bidean ere. Errespetua eskatzen dugu: errespetua ezberdin pentsatzen duenarekiko, herri ordezkariekiko, botoekin herriak hartutako erabakiekiko eta errespetua herri eta herritarrekiko!

Hausnar dezatela nora garamatzan horrelako ekintzen bidez desberdin pentsatzen dutenen aurka egiteak, argi geratu baita pedagogia behar handia dutela bakearen eta bizikidetzaren inguruan.

Oñatiko EAJk irmo jarraituko du Oñatiren eta oñatiarren alde lan egiten, gure ideiak defendatuz, beldur barik eta errespetuan oinarritutako bizikidetza baten aldeko apustua berretsiz. Gu isilarazi nahi gaituztenek ez dute beraien helburua beteko, garai gogorragoetan ere aritutakoak gara eta.

## Sorpresa latza

EÑAUT URIARTE PALACIO
BERGARA

Oin dala bi eguakitz, sorpresa latza hartu neban, aste hartako egunkari bat hartu nebanian irakurtzeko (martxoak 3).

Danak ondo bihako zeban eta normal, portadan, iragarki bat, hor eta modu horretan egon ez balitz. Emakumian Eguna 8xa izan zan ezkero, iragarki hori ekarri nahi izan dot harira. Zer iragartzen da bertan? Kristalen eta betaurrekoen eskaintza ala titiak haunditzeko eskaintza? Ze argazkixan ikusten dana oso adierazgarrixa da. Erdi-erdixan ile kizkurdun emakumia ikusi leike, kriston eskotiakin; aldi berian, baiña, betaurreko oso txikixak dittu. Ezkerrekaldian, eta oso txiki, berriz, eskaintzaren zenbatekua. Honen harira be atentziñua deittu nahi dotzet hedabide guztiei eta produktuak merkaturatzen dittuzten enpresei be, askotan modu sexistan iragartzen dittuztelako euren produktuak, berdin paperian, egunkari, aldizkari edota dendetan edo publizidadeko karteletan. Mesedez, utzi emakumea objetutzat erabiltziari, behingoz! Pertsonak die, eta, askok hala uste ez arren, hala tratau biharko litzakez.

## Are berde gutxiago Arrasaten

PITER ENCINAS
ARRASATEKO EH BILDUKO UDAL TALDEA
ARRASATE

Makatzena auzoko aparkalekuaren eraberritzeak arriskuan jarri du bertan duela hamarkada batzuk landatutako Himalaiako zedroa. Aparkalekuko sarreran espazio falta argudiatuta moztu nahi dute.

Zedro hau ez da Euskal Herriko landare autoktonoa, ez dauka 45 metroko altuera Monterrongo sekuoiak bezala, baina, hala ere, errespetua merezi duela pentsatzen dugu.

Garapenaren aitzakian hirigintzako proiektuek aurrera egin izan dute gure begien aurrean, inork betaurreko berdeekin begiratzeko aukerarik eman gabe. Badirudi eraberritze proiektuek ezin dutela kontserbatu aurretik tokian bertan egon den zerbait; are gutxiago, zuhaitz soil bat baldin bada. Obra bukatutakoan, beste zuhaitz gazte eta mehe bat landatuko dute, kasurik onenean, edo, beharbada, porlanez estaliko dute eremua, mantenimendu arazorik eman ez dezan. Kasu gehienetan, are berde gutxiago izango dugu herrian.

Baina guk pentsatzen duguna baino balio handiagoa daukate gure herriguneko zuhaitz, belar edota goroldioek, baita erreka bazterretako sastrakek ere. Bioaniztasuna aberasten laguntzen dute, paisaia urbanoa berdeago bihurtzen laguntzen dute –gauza ezinbestekoa denon osasunean–, faunaren babesleku dira, eta abar, eta abar. Zuhaitzek, zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta gordeleku gehiago eskaintzen dizkiete beste fauna eta flora espezieei. Zer esanik ez klima aldaketaren aurrean egiten duten karbono dioxidoaren fijazioan.

Hirigintzako proiektuetan kontu gehiago eduki behar da natur elementuak kontserbatzerakoan. Urteetako hazkuntza gutxiesten dugu hamarkadak dituen zuhaitza mozten dugunean, eta berri bategatik ordezkatu daitekeela pentsatzen dugu, eserleku bat balitz bezala. Autoekin elkarbizitza lehenesten da, baina, azken finean, naturarekin kontaktua izan gabe bizitzen ohituko gara. Bukatzeko, gogorarazi nahiko genuke errekak zaborrez garbitzearen aldekoak garela, baina ez direla, lorategiak balira bezala, eder mantendu beharreko guneak.

## Adarrak gora, sustraiak behera!

MILA ELORZA, ITZIAR POU ETA BEATRIZ ARANA
AHT-AREN AURKAKO KIDEAK
DEBAGOIENA

Itzala, freskotasuna, udazkena, negua, udaberria, uda, edertasuna, etxeak, altzairuak... ematen dizkigute zuhaitzek, musu-truk.

Adarrak gora eta sustraiak behera, ehunka urtez bizi daitezke zuhaitzak. Lurrean ongi errotuak daude, lurraren trinkotasunaren eta hezetasunaren bermatzaileak. Sustraietatik xurgatzen dute atmosferan askatuko duten ura. Aberastasunaren eta bioaniztasunaren sortzaile dira oihanak eta basoak.

Emakumeek harreman handia dute basoarekin. Indiako Andra Pradesheko emakume adivasientzako askatasun eremuak dira basoak. Zuhaitzak ez dauden leku lauetan begi askok kontrolatzen dituzte emakumeen joan-etorriak eta horrek beraien askatasuna murrizten du. Kasu batzuetan, ezin dute pixa edota kaka egin ilundu arte. Basoan, berriz, emakumea nahi duenean joan daiteke komunera.

Zuhaitz bakoitza ekosistema bat da. Gizakioi eta beste espeziei ematen diguten guztia kontuan hartuz, zaindu beharreko ondare ukiezin bezala izan beharko genituzke zuhaitzak. Euskal Herriko erakundeek aurrekoa bermatzeko lege batzuk idatzi badituzte ere, egiaz bermatuko lukeena gauzatu beharko lukete.

Zoritxarrez, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua aurkako noranzkoan, okerreko bidetik doaz. Horren lekuko, azpiegitura handiei buruzko politika.

Martxoaren 19an, 1.200 zuhaitz landatuko ditugu, auzolanean, Angiozarren, AHTrako birrindu nahi dituzten lurretan. Kutsu patriarkala duen data honetan, euskal agintarien lurralde antolaketarako planak patriarkalak direla salatu nahi dugu.

Lurra, ura eta bizitza politikaren, ekonomiaren eta egunerokotasunaren erdian jarri nahi ditugu. Emakumeek betidanik egin dutena nabarmenduz eta aitortuz. Agintariek ea behingoz ikasten duten.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



ZABALIK

**GARIKOITZ ITURBE**

# Skate parkean transbertsalitaterik?

Emakumeen Nazioarteko Eguna pasa berri da. Martxoaren 8an armairuko kareta morea jantzi eta kalera irten ginen. Ederto! Beste urte baterako kontzientzia zuritu dugu.

Nik Aretxabaletan burutu zen kontzentrazioan hartu nuen parte. Udaleko agintariek eusten zuten kartelak honela zioen: *Martxoak 8 egunero izan dadila.*

Hitz horiek haizeak erraz eraman ahal ditu koherentzia puntu batekin esaten ez badira. Zer egingo dugu baieztapen hori egia bihurtzeko?

Nik lan handia daukat oraindik egiteko. Konturatzen naizen gauzetan sakonduz eta konturatzen ez naizen horiek kontziente eginaz. Nire bidean, nora joan nahi dudan garbi daukat, tarteka trabatu arren.

Bestalde, gai honen inguruan Udalak hartzen dituen erabakiek guregan eragin zuzena dutela uste dut. *Martxoak 8 egunero izan dadila* lema eta egunerokotasunean egiten dutena batera al doaz? Plangintzarik egin al da edo inflexio puntu batzuk markatu al dira pankartako lemara heltzeko? Baliabiderik jarriko al da?

**NIRE BIDEAN, NORA JOAN NAHI DUDAN GARBI DAUKAT, TARTEKA TRABATU ARREN**

Ni kezkatuta nago ondorengo datuekin. Gustatuko litzaidake zuetako bakoitzak baloratu dezala ea pankartako lema egia bihurtzeko bide egokian goazen.

Berdintasun teknikari bat zuen herriak eta kendu egin dute, Berdintasun Sailaren aurrekontua %52 jaitsi da, ez dago ahalduntzeari begirako edo gizarteko esparru ezberdinetan berdintasunarekin loturiko lanketarik… Udalaren apustua Berdintasun Saila kendu eta berdintasuna transbertsal bilakatzea izan da. Ez dakit, ba! Transbertsal bilakatzeak aurre-lan handia eskatzen du.

Egon al zarete skate parke berrian? Arrakasta handia izan du, ezta? Baina konturatu zarete skate parkearen genero erabileran? Bai, ba, beste espazio publiko bat gizonezkoen eskuetan. Berdintasuna transbertsalitatez landuko dela esatea ondo dago, baina ez dakit eztabaida isiltzeko besterik ez den esan.

Jendartea aldatzeak esfortzu handia eskatzen du. Esfortzua eta nahi izatea!

MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**




HANDIK ETA HEMENDIK

## Gure espainiartasuna

**GOIZALDE LANDABASO**

HTTPS://LABUR.EUS/U9BCM

Gure espainiartasuna lotsa bat da, eta ez du *outing*-ik. Gure espainiartasuna arantza bat da, eta ez du arrosarik. Gure espainiartasuna uda bat da, eta ez du oporraldirik. Gure espainiartasuna gutun bat da, eta ez du, koronelak bezala, nork idatzirik. (Edo agian, bai).

Gure espainiartasuna *choco* bat da, eta ez du bazterrik. Gure espainiartasuna porrot bat da, eta ez du garaipenik. Gure espainiartasuna oihan bat da, eta ez du piztiarik. Gure espainiartasuna maitale bat da, eta ez du sexurik (maitasunik ere, gutxi). Gure espainiartasuna gatazka bat da, eta ez du arma uzterik. Gure espainiartasuna kantu bat da, eta ez du Eurovisionen ordezkaririk. Gure espainiartasuna ukazioa da, eta badu onarpen muturik (komeni denean). Gure espainiartasuna lur sail pribatu bat da, eta prezioa noiz gora egin zain dago. Gure espainiartasuna ziega bat da, eta ez du espetxe beharrik. […]

Gure espainiartasuna muga bat da, eta ez du la(n)b(r)oak ezkutatzen duen mugarririk. Gure espainiartasuna trapu bat da, eta ez du banderarik (haizerik ez badabil). Gure espainiartasuna omenaldi bat da, eta aurreskularia emakumezkoa denez geroztik ez du aurreskurik (baina ez dauka matxismoarekin zerikusirik, e!). Gure espainiartasuna leku bat da, eta ez du maparik. Gure espainiartasuna pasaporte bat da, eta ez dauka iraungitzerik (ez?). […]

Gure espainiartasuna aitorpen bat da, eta ez dauka aitorlerik (Ogasunak baleki). Gure espainiartasuna ardo bat da, eta ez du mozkortzerik. Gure espainiartasuna zeru bat da, eta ez du jaungoikorik (apostasia nagusitu delako, batik bat).

Gure espainiartasuna lozorroa da, eta ez du loti ederra esnatuko duen musu umelik.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.
**Erredaktore burua**
Ubane Madera.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

PROTAGONISTA

# "Bizitza etapak dira, eta, orain, pilota ixtea dagokit"

**ABEL BARRIOLA** PILOTARIA

**Mireia Bikuña** OÑATI
Maiatzaren 6an jokatuko du agurreko partidua Abel Barriolak (Leitza, 1978), hemeretzi urteko ibilbidea ixteko. Aurretik, beste hainbat partidu jokatu beharko ditu. Tartean, gaur, egubakoitza, Oñatin izango duena.

**Aloña Mendi pilota eskolaren omenaldia jasoko duzu. Ezustekoa izan da?**
Eskuz binakako txapelketaren barruan Oñatin partidua jokatzekoak ginen Altuna eta biok. Baina, lesioengatik, ez ginen lehia hartan egon, eta orain dator aukera. Altuna eta biok egongo gara bikote eginez, baina txapelketatik kanpo. Dena den, bihotzez eskertzen dut Aloña Mendiren omenaldia. Behin bakarrik jokatu dut Oñatin, baina oroitzapen oso onak ditut.

**Pilota utziko duzu, sasoitsu egonda ere. Erabaki inteligentea izan da?**
Eskuz binakako txapelketa jokatuko nuela esan zidatenean erabaki nuen erretiroa hartzea. Une hartan sentitzen nuena egin nuen. Sasoiko eta ilusioz gainezka egonda eta goi mailako txapelketa batekin utzi gura nuen profesional mundua. Eman nezakeenaren onena emanda nuela uste nuen. Bizitza etapak dira, eta, orain, pilota ixtea dagokit.



Abel Barriola pilotaria. NOTICIAS DE NAVARRA

**Askok pentsatuko dute sasoiko egonda erabakiak ez duela zentzurik. Zer diozu zuk?**
Sentimendu eta sentsazio kontua izan zen. Nork bere bideak ditu pilota bizitzeko, eta nirea errespetuzkoa da.

**1998ko otsailaren 22an debutatu zenuen Tolosan. Hemeretzi urteko ibilbidea egin duzu. Zer datorkizu burura?**
Gehien gustatu zaidana egin izana: pilotan jokatu eta pilotarekin bizi. Nire afizioa eta ofizioa pilota izan da. Pribilegiatua izan naiz. Une honetan naizena eta bizitzan ikasitakoa pilotari zor diot. Hori da nire irakasgaia.

**Lau t'erdikoa 2001ean, banakakoa 2002an eta binakakoa 2014an. Hiru txapel nagusiak jantzi dituzu. Zein da kuttunena?**
Ba, akaso, txapelketak berak duen oihartzunarengatik, eskuz banaka irabazitakoa. Xarma handiena duena delako. Irabazteko zailena delako. Txapel baten atzean lan handia dago, izan banaka, binaka, profesionaletan edo beste maila batzuetan.

Dena den, beste oroitzapen oso politak ere badaramazkit. Bereziki, egindako lagunak eta pilotariaren figuraren atzean dauden pertsonak.

**Eta, maiatzaren 6tik aurrera, zer?**
Ez dakit. Badaukat zer edo zer buruan, baina, oraingoz, pilotari bidea bukatu nahiko nuke, eta, ondoren, ondorengoak.

ITURRI ONETIK

## Donizzetiren operarako dekoratuak

Martitzenean, martxoaren 21ean, Donizzetiren *El elixir de amor opera* komikoa izango da ikusgai Arrasateko Amaia antzokian –20:00etan–. Bada, bertako dekoratuak Gasteizen egin dituzte. Hain justu, Goiena telebistaren platoko dekoratu berriak egin dituen lantaldeak. Javier Larreina eszenografoaren gidaritzapean jardun dute, eta operarako dekoratuak Arrasatera ekarriko dituzte astelehenean. Izan ere, lehenengo, Gasteizen erabiliko dituzte, bihar, zapatua, estreinatuko dute-eta opera bertan.

GORA ETA BEHERA




IMANOL BELOKI

## Babeserako hesia jarri dute bidegorrian

Aretxabaletatik Eskoriatzara joateko dagoen bidegorrian egurrezko hesia jarri dutela-eta esker ona adierazi gura du erabiltzaile batek. Orain "askoz lasaiago" paseatzen dela aitortu du; batez ere, "seme-alabekin eta bizikletan" doanean. Izan ere, bidegorri zati hori hesi barik egonda, bidegorrian jausiz gero, "errepideraino jausteko arriskua zegoen".

HAU BE BADOGU!

### Eskoziara eta Herbehereetara begira



Euskal Herritik Europara jarri dira begira sare sozialak asteon. Alde batetik, Eskozian beste erreferendum bat egiteko asmoa azaldu duelako Nicola Sturgeon lehen ministroak. Eta bestetik, hauteskundeak izan dira Herbehereetan, eta islamaren eta Europako Batasunaren aurka azaldu den Geert Wildersen PVV alderdia bigarren bozkatuena izan da.

### Militarrek antolatutako lasterketa faltsua




Sare sozialek ziria sartu diete, beste behin, hainbat eta hainbat erabiltzaileri. Oraingo honetan, Espainiako indar armatuek ustez antolatutako *Donostia Running por la convivencia* lasterketa faltsuaren kartela dela eta:

*@donostia_kirola*: "Zenbait tokitan azaldu diren 'Donostia Running por la convivencia' lasterketari buruzko kartelak *fake* bat dela adierazi behar dugu".

### Sandra Barrenetxearen epaiketa hizpide

Aste honetan hasi da Sandra Barrenetxea torturatzea leporatzen dieten lau guardia zibilen aurkako epaiketa, eta gaia *trending topic* izan da Espainia mailan. Baita *#5657torturatu*, *#tortura* edota *#torturarikez* traolak ere. Barrenetxeak eguaztenean eskaini zuen kontakizuna ustezko torturatzaileen aurrean, eta hori izan da sare sozialetan, euskaraz, hizpide nagusi.


**Arrasateko udaletxean egindako mitin faxista bateko irudia.** ARRASATE 1936 BELAUNALDI GALDUA

# Frankismoaren biktimei justizia egiteko urratsa

2012an, udalbatzak frankismoaren krimenak ikertzeko Argentinako prozesu judiziala babesteko mozioa onartu zuen; pasa den asteko osoko bilkuran, herritarren testigantzak batu eta udal bezala kereila kriminala jartzeko mozioa onartu zuten alderdi guztiek

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Frankismoaren biktimei justizia egiteko mozioa onartu zuen Arrasateko udalbatzak, eta, horri esker, Udalak bide propioa hasiko du herrian gertatuko injustiziak ikertzeko.

Mozioa Frankismoaren krimenen aurkako Kereilaren Euskal Plataformak proposatu zuen, eta, bertako kide Josu Ibarrutxiren esanetan, "Euskal Herriko herri guztietan daude Frankismoaren eraginak jasan dituzten biktimak; eta Plataformatik uste dugu Udalak izan behar direla euren herritarren babesle nagusiak".

Argentinako kereilak 2010ean hasi zuen bidea, eta, bide horretan beste urrats bat egiteko, Euskal Plataformako kideek udalez udal kereilak jartzeko egitasmoa abiatu zuten 2015eko azaroan.

Herritarrei euren testigantzak egin eta garaiko frogak aurkezteko bulegoak jartzea erabaki zuten, behin hori eginda, udalek aldez aurretik zituzten frogak eta herritarren ekarpenak batuz, euskal epaitegietan kereila kriminalak jartzeko helburuarekin.

**Aho batez onartuta**

Arrasateko udalbatzako alderdi guztiek onartu zuten kereila jartzeko mozioa eta Ibargutxik horren garrantzia azpimarratu du: "Aho batez onartzeak garbi erakusten du frankismoaren inpunitatea alderdi guztiak kezkatzen dituen gai bat dela, eta era horretan indar handiagoa hartzen du kereilak berak".

**Debagoieneko bigarrena**

Elgetaren ondoren Arrasate izango da ekimen horrekin bat egingo duen bigarren herria.

Euskal Herri mailan, Iruñeko Udala gaur bertan da jartzekoa kereila kriminala, eta, aldez aurretik, Gernikak, Gasteizek, Eibarrek, Errenteriak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere egiten dute bat ekimenarekin.

**Testigantzak ahalik eta azkarren**

Frankismoaren eraginak jasan dituzten arrasatearrek testigantzak egin eta garaiko froga dokumentalak aurkezteko bulegoa jarriko du Arrasateko Udalak. "Ahalik eta azkarren egin nahi dugu. Garai haiek bizi zituztenak gero eta gutxiago dira, eta bizirik dauden horiei lehenbailehen eman nahi diegu horretarako aukera. Duela gutxi, 97 urteko arrasatear batekin hitz egin nuen horri buruz, eta euren testigantzak ez galtzea nahi dugu", azaldu du Ubarretxenak.

Behin herritarren ekarpenak jasota, Bergarako epaitegian kereila kriminala jarriko da eskura dauden froga guztiekin. Ondoren, Arrasatek aurkeztutako froga dokumental horiek 2010ean Buenos Airesen abiatutako kereilari batuko zaizkio.




## BAZ: Testigantzak egiteko bulegoa

Maria Ubarretxenak jakinarazi duenez, Biztanleen Arreta Zerbitzuan jarriko dute herritarrek testigantzak egiteko bulegoa. Bi hilabetean egongo da zabalik, eta orain, testigantzak jasotzeko pertsona aproposaren bila ari dira.

## 2018ko aurrekontuak egiteko herritarrei hitza ematera

Baleikek akordioa lortu zuen EAJ eta PSE-EErekin, eta parte hartzea gauzatzeko minimoak adostu zituzten

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Martxoko osoko bilkura egin baino ordubete lehenago hiru aldeko akordioaren berri eman zuten Baleike udal taldeko ordezkariek. Otsailaren 27an hiru puntuko eskaera egin zuten 2018ko aurrekontuen zati bat Arrasateko herritarrek aukera zezaten, eta osoko bilkuran mozio bezala aurkeztu behar zen eskaera gai zerrendatik kendu zuten hiru aldeko akordioaren berri emateko.

Bertan jasotzen denez, mahai inguru bat sortuko da non udalbatzako alderdi guztiek parte har dezaketen. Herritarren ekarpenak bi mailatan egingo dira: auzo mailan eta herri mailan, eta proposamenen bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa udal administrazioak aztertuko du. Bideragarriak ez diren kasuetan, erantzuna emango zaie zergatiak argudiatuz.

EH Bilduko Eneko Barberenak azaldu du "begi onez" ikusten dutela herritarrei hitza ematea, baina ez du zentzuzkotzat jo parte hartzea sustatu nahi duen egitasmo bat hiru alderen artean sinatzea, prentsa bidez horren berri ematea eta ondoren gainontzeko alderdiei parte hartzeko gonbidapena egitea. "Guretzako, interesgarriena akordio aurreko eztabaida fasea da", azaldu du. Gaiarekin lotuta, Gipuzkoako Batzarretako aurreko agintaldian EH Bildu aurrekontu parte hartzaileak egiten aitzindari izan zela gogorarazi zuen EH Bilduko zinegotziak.

## EH Bilduko udal zinegotziak Sevillako kartzelan izan dira

Pasa den asteburuan Txus Goikoetxea preso arrasatearrari bisita egin zioten EH Bilduko udal zinegotziek, herriko presoak bisitatzeko ekimenaren barruan. Aurrez lau preso bisitatu dituzte eta hau izan da bosgarrena. "Euren egoera gertutik ezagutzeko eta gure jardunaren berri emateko baliatu ditugu bisitak", azaldu du Eneko Barberenak.

# Euskararen bueltan ahalik eta jende gehien batzera

Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatzen duen 'Euskaraz bizi' egunak Arrasateko kaleak hartuko ditu bihar, eta ondo hartu, gainera. Adin eta gustu guztietarako ekintza sorta oparoa prestatu dute, euskaraz beteriko bizitza egitea posiblea dela aldarrikatzeko

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Euskal Herrian Euskaraz-ek Arrasate aukeratu du aurtengo Euskaraz Bizi Eguna egiteko, eta antolatzaileek dena gertu daukate euskaltzaleen festa handia arrakastatsua izan dadin. Herriko hamalau eragileren laguntza izango dute horretarako, eta *Euskaraz bizitzera goaz!* ekitaldi nazionala oinarri hartuta egitarau mamitsua antolatu dute.



Willis Drummond-ek kontzertua eskainiko du, besteak beste. 2015eko saioa. J. B.

**Egitarau mamitsua**

10:30ean botako duten suziriarekin hasiko dute eguna, eta 11:00etan hiru ekintza izango dira aldi berean. Herriko plazan Txatxilipurdikoek umeentzako tailerrak jarriko dituzte, Seber Altuben artisauen eta euskararen bueltako elkarteen postuak jarriko dituzte, eta ordu berean kiliki eta erraldoien kalejirak jai giroa zabalduko du herrian.

12:30ean *Euskaraz bizitzera goaz!* ekitaldi nazionala egingo dute Kulturaten, eta bertan Euskal Herrian Euskaraz gaurkotu bat definitzeko ponentzia azalduko dute. 13:30ean herriko dantzarien, trikitilarien, txalapartarien, albokarien, txistularien eta otxotearen laguntzarekin bi poteo pararelo egingo dituzte Herriko Plazatik hasita: bata Zerkaosteta inguruan arituko da eta besteak, berriz, Otalora aldeko tabernak bisitatuko ditu.

**Bazkarirako txartelak salgai**

15:00etan, Herriko Plazako bazkaria izango da jaiaren erdigune. Joan nahi baina txartelik ez dutenek Jai-Zale tabernan har dezakete, 15 eurotan, eta menu begetarianoa ere izango da aukeran. Musikarik falta ez dadin, Arrasateko Hans Blues Band taldearen doinuek kolorea emango diote bazkalorduko giroari.

18:00etan maila handiko bertso saioa egingo dute Alaia Martinek, Amets Arzallusek, Maialen Lujanbiok eta Jon Maiak karpan, eta mugimendua nahi dutenek Jasan eta Txua taldeen zuzenekoa izango dute Irati tabernan ordu berean.

19:30ean beste bi poteo egingo dira: Zerkaosteta inguruan Portaloia abesbatzarekin eta Otalora bueltan Sakatu elektro-txarangarekin. 21:30ean Dirty Brothers, Willis Drummond eta Ezten Giro taldeak igoko dira karpako oholtzara, eta festa gogoz geratzen direnek DJak izango dituzte gaztetxean, 01:30ean.

## Baserritarren azoka oparoa izango da bihar, zapatua

Baserrietako produktuez gainera, Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta kostaldeko produktuak ere izango dira

**Ubane Madera** ARRASATE

Oparoa izango da bihar, zapatua, baserritarren azoka; hileko hirugarren zapatua izanda, fin-fin bertaratuko dira eskualdeko nekazariak baserrietan ekoitzitako produktuekin, neguko azkenekin eta udaberriko lehen produktuekin: babak, patatak, azak, azaloreak, arbigarak, porruak, haragi ekologikoa, gaztak, urrak, ukenduak, xaboiak, eta beste. Gainera, Arrasateko, Aretxabaletako eta Bergarako baserritarrekin batera, 09:00etatik 14:00etara bitartean Seber Altuben postua jarriko dute, baita ere, Arabako lautadatik –konposta eta landareak–, Bizkai aldetik –postreak–, Nafarroatik –berakatzak, arroza– eta kostaldetik –kontserbak– etorriko diren bestelako ekoizleek ere. Eta baserrirako eta lorategietako lanabesak zein egurrez egindako bestelako tresnak ere eskura izango dira.

**Karapaixo Eguna**

Haiekin batera, oraingo honetan, beste produktu bat ere izango da: sasoi-sasoikoa den karapaixoa, Aretxabaletako Etxezuri eta Arrasateko Askasibar baserrietako ekoizleei esker. Karapaixoak ikusteko, erosteko zein enkargatzeko aukera emango dute; eta karapaixoa egiten ere erakutsiko dute: Askasibar baserriko Rakel Perez de Arenaza nekazariaren gidaritzapean. Izan ere, Karapaixo Eguna izango da bihar, Debagoienean horren preziatua den gutizia balioan jartzeko helburuarekin (informazioa 2. orrian).

Bestalde, baserritarren azokan ohi duten moduan, bertan erosten dutenen artean otarrea zozkatuko dute, azokako produktuz osatutakoa, alegia.

## Lapurretan egin zuten egubakoitzean Monterron Jauregian

Parkeko agertoki atzean dagoen hesia gainditu eta bertako leihoetatik lortu zuten lapurrek barrualdera sartzea.

Arrasate Musikaleko arduradunen esanetan, musika instrumentuak eta ekipamendu informatikoa ostu dituzte, eta eramandako guztia zenbatu ondoren salaketa jarriko dutela iragarri zuen Marta Izagirre zuzendariak.

## Pizzak edo napolitanak egiteko aukera ludoteka ibiltarian

Bihar, zapatua, bigarrenez egingo du geldialdia ludoteka ibiltariak San Andres auzoan. Aurreko geldialdia arrakastatsua izan zen, 31 haur eta nerabe batu baitziren bertan.

Biharko, sukaldaritza ikastaroa egitea proposatu dute; bertan erabakiko dute pizza, napolitana, bizkotxoa edo txokolatea prestatuko duten. On egin!





Aprendices eraikina Udalaren jabegokoa izatera pasa zeneko argazkia. XABI GOROSTIDI

# Aprendices eraikinaren izena herritarren eskuetan

Parte hartze prozesua jarriko du martxan Udalak Goikobalu, Arrasate Musikal eta ballet taldearen egoitza izango denari izena jartzeko. 'Aprendiz' erroa mantentzea beharrezkoa izango da, eta, ondoren, proposamen bozkatuenaren izena hartuko du

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Aprendices eraikina berritzeko proiektua aurrera doa, eta, horren barruan, Arrasate Musikal, Goikobalu eta ballet taldearen egoitza berriarentzat izen ofizialaren bila dabil Arrasateko Udala.

Aukeraketa hori herritarrekin batera egiteko, prozesu parte hartzailea aurkeztu zuten martitzenean. Bertan izan ziren Maria Ubarretxena alkatea, Kultura zinegotzi Juan Ramon Mendieta, Goikobalu abesbatzako Jose Antonio Barriocanal eta Edurne Goiatxe eta Arrasate Musikaleko zuzendari Marta Izagirre.

### Izena, baldintza batzuekin

Ezin izango da edozein izen proposatu. Hain zuzen, Euskaltzaindiari kontsulta egin diotela aitortu zuen Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak: "Bere garaian, Euskaltzaindiak Arrasateko kaleen berrikustea egin zuenean, Aprendices kaleari Aprendiz kalea jartzea gomendatu zigun. Gomendio horri jarraiki, eraikinarentzat proposatzen diren izenek *Aprendiz* erroa errespetatu beharko dute, eta Udalak bi izen proposatu ditu, adibide gisa: *Aprendizbarri* eta *Aprendizola*.

Hala ere, jatorrizko *Aprendiz* erroa edukitzeaz gain, ondorengo bost irizpideak ere bete beharko dituzte proposamenek: euskal formatura edo ahoskerara ondo egokitutakoa izatea, erraz deklinatu daitekeen izena izatea, leku izenekin lotura edukitzea, hitz bakarrean esanahi handia edukitzea eta, azkenik, beste hitz batzuekin edo lekuekin lotzea erraztuko duen izena izatea.

**IZENAK EMATEKO EPEA EMANGO ZAIE HERRITARREI, ETA ONDOREN BOZKETA BIDEZ AUKERATUKO DA**

Arrasatearrek martxoaren 18tik 25era bitartera proposatu ditzakete izenak udal webgunean eta BAZen. Ondoren, jasotako proposamenekin eta Udalak egindako biekin zerrenda bat osatuko dute, eta guztien arteko bozketa egiteko epea zabalduko dute apirilaren 1etik 8ra.

### Eraikinaren xehetasunak

LKSk irabazi zuen eraikinaren birgaitzea diseinatzeko lehiaketa publikoa, eta apirilerako entregatuko du proiektu definitiboa. Ondoren, proiektua gauzatzeko lehiaketa publikoa jarriko da da martxan, eta urtea amaitu orduko lanak esleituta izatea da Udalaren aurreikuspena.

Ikasle eta irakasle artean 600-700 lagun inguru hartuko ditu eraikin berriak, eta 200 ikuslerentzako gaitasuna izango duen areto bat izango du. Sabaiaren gainean, aldiz, kristalez egindako bulegoak eta aire librean kontzertuak egiteko terraza modukoa ere izango ditu.

# "Hegemonia kapitalistatik at aukerak daudela ikusiko dugu"

**IRAITZ ETXABURU** AZOKAKO ANTOLATZAILEA

Bigarren edizioa antolatu dute martxoaren 25erako

**X.G.** ARRASATE



Iraitz Etxaburu. XABI GOROSTIDI

Iaz antolatu zuten Alternatiben Azoka lehen aldiz, Gaztetxearen urteurreneko jaialdian. Aurten, ordea, hitzaldiei protagonismoa emateko asmoz, ekintza solte bezala antolatzearen alde egin dute. Askotariko erakundeekin hamaika hitzaldiko zikloa antolatu dute Seber Altuben, eta, horrez gain, hainbat elkarteren postuekin azoka egingo dute.

**Bigarren edizioa, baina helburua ez da aldatu, ezta?**

Hala da. Bizi garen mundu kapitalista honen aurrean, alternatibak badaudela erakusteko antolatu dugu. Gaur egun dugun hegemonia hori hausteko aukerak egon badaudela, alegia.

**Alternatibak hainbat esparrutan, gainera?**

Kulturako eragileak, ekonomikoak, hezkuntza mundukoak, energia berriztagarriekin lotutakoak, komunikazio alorrekoak... ahalik eta esparru gehienetako erakundeak ekarri nahi izan ditugu aurtengoan.

**Aurten berritasunik?**

Kopuru eta arlo aldetik aukera zabalagoa lotu dugula esango nuke. Iaz Gaztetxeko urteurreneko festa barruan sartu genuen hitzaldi zikloa, eta, egia esan, oso zaila izaten da hitzaldiak jarraitzea festa giroaren erdian; hitzaldietan zaude, edo festan murgilduta, baina biak paraleloan ez dira ondo moldatzen. Iazko esperientzia ikusita, eta, batez ere, hitzaldien edukia balioan jartzeko, aurten egun solte bat aukeratu dugu azoka eta hitzaldiak egiteko.

**Hamaika hizlari eta hainbat postu antolatzeko atzeko lan handia izango zenuten, ezta?**

Ba bai, badago lana atzetik. Duela lau hilabete hasi ginen forma ematen. Iazko kolaboratzaileei proposatu, erakunde berriak kontaktatu... eta, egia esan, lehen pausoa guk eman gabe ere deitu digute erakunde batzuek. Hori pozgarria da guretzat, nolabait, egin dugunak oihartzun bat izan duela erakusten duelako. Aurten, gainera, bi fitxaketa izan ditugu antolaketa taldean eta horrek ere laguntzen du.

**Hitzaldiren bat nabarmentzearren?**

Denek dute euren puntua, baina nik uste dut jende gehien erakarri duena Goienerkoek eskainiko dutena izango dela, batez ere, Garoña eta argiaren garestitzea pil-pilean daudelako.

## Elorregiko makaldian bainu-gunea egiteko kontsultak abian

Udalaren jabegoko lurretan probetxuzko zein erabilera sustatu daitezkeen aztertzeko Ingurumen Mahaia osatu zen 2016ko urrian.

Honako hanka hauek osatzen dute mahaia: udalbatzan ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek, Besaide Mendi Elkarteak, Naturtzaindia Elkarteak, SUDCek, San Prudentzio elkarteak, Ekologistak Martxanek, Arrasate Zientzia Elkarteak eta Zero Zaborrek. Oñati ibaiak Tavex parean duen presatxoan aisialdi eta bainurako gune baten egokitzapena aztertzea eskatu zuten SUDC eta San Prudentzio elkarteek. Asmoa bainu-gunea egokitu eta otorduak egiteko mahaiak jartzea izango litzateke.

Hala, Uraren Euskal Agentziari, Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Oñatiko Udalari aisialdi-gunea jartzeko bideragarritasunaren gaineko kontsulta eskaera bideratu die Udalak.

# Gertuko argazkilaritza, naturala, artifiziorik gabea

Ezkontza, jaunartze, urtebetetze, jaiotza... edozein dela ahaztezin bihurtu nahi duzun momentu hori, Belun-en modu errazean bilakatuko dugu argazki. Hori baita desberdintzen gaituena: bezeroekin dugun harremana. Gustura bazaudete soilik lortuko baitugu zuen burua ezagutzea gure lanaren emaitza ikustean.



## EZKONTZAK

Argazkiek ez dute egun horretan buruhauste izan behar. Gaur egun, mila formula daude zuen ordutegi eta ezkontza motara egokitzen direnak, baita zuen poltsikora ere. Eta bestela, zuentzako aproposa den bat asmatuko dugu. Ez izan zalantzarik!



## JAUNARTZEAK

Hartu jaunartzea familiako argazki saio polit bat egiteko aitzakia bezala. Ezabatu oroimenetik txikitan egin zizkizueten argazki horiek, zuen seme-alabek ondo pasatzea izango baita gure helburua! Estudioan zein estudiotik kanpo, saio mota ezberdin ugari dauzkagu aukeran. Onena? Belunera gerturatu eta galdetzea.

## OPARITU ARGAZKILARITZA

Jaunartzeez eta ezkontzez gain, badira bizitzan beste mila une betikotu egin nahiko genituzkeenak.

Amamak 80 urte betetzen dituela? Kuadrillako bat atzerrira doala? Gabonak direla-eta berezia den zerbaiten bila zabiltzala? Lankide batek haurra izan duela eta denetik daukala? Oparitu une ahaztezinak, oparitu argazkilaritza!

Belun
une ahaztezinak
Uarkapeko arkupeetan gaude
gertuko argazkilaritza
Otalora Lizentziaduna 14 · Arrasate · 943 04 03 20 · www.belun.com



*El elixir de amor* operaren antzezpena OZENKI ELKARTEA

# 'El elixir de amor' opera komikoa Amaian ikusgai

Donizettiren 'El elixir de amor' izango da ikusgai Amaia antzokian. XIX mendeko opera komiko hori Ozenki elkartearen eskutik etorriko da Arrasatera eta Arke Taldeak taularatuko du martxoaren 21ean, martitzena, arratsaldeko zortzietan

**Ane Vitoria** ARRASATE

Milango enpresari boteretsu baten agindupean sortu zen *El elixir de amor* opera komikoa XIX. mendean. Istorio xumea lantzen du, baina, pertsonaien arketipo ezberdinen lanketari esker, hasiera-hasieratik arrakasta lortu zuen. Izan ere, tituluak dioen moduan, amodioa da istorio horren ardatza. Ipar Euskal Herriko herrixka baten kokatzen da Donizettiren obra. Bertako nekazaria da Neronimo, gazte malenkoniatsu eta sineskorra. Nekazaria Adinarekin maiteminduta dago, baina neska burges horrek ez dio kasurik egiten. Are gehiago, Belcore izeneko sarjentu batekin du hitzartuta ezkontza eguna. Halako batean, baina, herrixkan Dulcamara izeneko saltzailea agertuko da eta edabe magiko bat salduko dio Neronimori, Adina berarekin maitemintzea lortzeko. Hori da, hain zuzen, opera komiko horren hasiera eta trama nagusia. Hala ere, ikuskizunean zehar istorioaren ildoa aldatuz joango da.

**Komedia nagusi**

Gaetano Donizetti konpositore italiarraren operak komedia generoaren alderdi ezberdinak nahasten ditu. Ikuskizun horren pertsonaia nagusiei erreparatuz gero, protagonistek identitate propioa dutela igar daiteke. Dulcamara da bufoi kategoria komikoa irudikatzen duen pertsonaia bakarra. Hori horrela, opera honen gainerako pertsonaiek beste era bateko komedia irudikatzen dute. Belcore, esaterako, sarjentu baten izaerarekin bat eginez, satira elegante eta sofistikatu baten bitartez adierazten da. Aldiz, Adina eta Nemorino bikoteak komedia sentimental hutsa aurkezten du. Hala ere, puntu komiko horiez guztiez gain, sentimenduen presentzia ere nabari da opera honetan. Protagonista guztien alde humanoa indartsua da *El elixir de amor* antzezlanean eta ikuspuntu psikologiko eta musikalak nahasten dira. Sarrerak erosi nahi dituenak *on line* eskura ditzake, *Kutxabank.eus* eta *Arrasate.eus* atarietan. Hala ere, Amaia antzokiko leihatilan ere erosi daitezke, eta *ozenkielkartea@hotmail.es* helbidera idatzita ere bai.



FERNANDO ZUFIRIA

## Urrezko domina Perezentzat

Joan den asteburuan atletismoko Espainiako Txapelketa jokatu zen Madrilen. Txapelketa horretan, Jonathan Perez, beterano mailan lehiatu zen eta M35 kategoriako pertika-jauzian 4,62 metroko marka lortu zuen. Emaitza on horri esker, urrezko domina poltsikoratu zuen gazte arrasatearrak.

## Ford Mugarrik etxean jokatuko du asteburu honetan

Joan den domekan izandako partiduan, Arrasateko eskubaloi taldea garaile izan zen. Zarauzko Txikipolit ZKE eskubaloi taldearen aurka jokatu zuen Ford Mugarrik eta partidu hartan 21-27ko emaitza lortu zuen. Garaipen hari esker, gizonezkoen Euskadiko senior ligako sailkapenean 29 punturekin laugarren postuan daude. Ligako 23. jardunaldi honetan, Gasteizko Limpiresol Corazonistasen aurka jokatuko du Ford Mugarrik, eta gogotsu joango dira garaipenaren bila arrasatearrak. Partidua Iturripe kiroldegian jokatuko da bihar, zapatua, arratsaldeko seietan.

## 'Purito'-ren debuta erresistentzia txapelketan

Bihar, Race Turismos txapelketan lehiatuko da Xabi Fernandez *Purito,* eta aurreko urteko marka hobetzen ahaleginduko da. Denboraldiko beste helburuetako bat erresistentziako Espainiako Txapelketan parte hartzea da, eta, horregatik, laster, lehiaketa horretan debutatuko du. Txapelketa horretan bost proba izan ohi dira, eta, modalitateak kontuan izanik, horietako bitan parte hartuko du *Purito*-k. Batetik, *spring* deritzon modalitatean. Horretan, bi lasterketa izaten dira, bakoitzak 50 minutuko iraupena duena. Bestetik, erresistentzia probetan ere arituko da; horiek, aldiz, bi orduko iraupena izan ohi dute.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50




**AUTOBERRI** San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - MONDRAGÓN www.autoberri.com

# "Herritarren beharrei erantzuteko" lanean

EH Bildukoek 'Atx' aldizkarian esandakoei erantzun gura izan diete EAJko kideek "udal gobernuaren kudeaketa baloratu dutelakoan"; besteak beste, jeltzaleek adierazi dute plan ideal baten bilaketak ez dituztela eguneroko lanean geldiaraziko

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Otsailean banatutako *Atx* aldizkarian Aretxabaletako EH Bilduk esandako batzuk argitu gura izan ditu EAJ alderdiak, besteak beste, "udal gobernuaren kudeaketa baloratu delako".

Batetik, hondakinak izan zituzten berbetarako gai. "%80ko gaikako bilketa tasara iristeak argi utzi du herritarrek arduratsu jokatu dutela", zioten martitzeko prentsaurrekoan, eta herritarrengan "beti izan dutela konfiantza argitu". Sistema aldatuta ere aretxabaletarrek erantzukizunez jokatu dutela zioten: "Herritarrak zoriontzeko ordua da. Horren ordez, aldizkarian bazterrak nahasten dira". Alkate izateaz gain Mankomunitateko presidente ere baden Unai Elkorok zera adierazi zuen: "Mankomunitateko presidenteari aipamen zuzena egin zaio. Esan beharrekoak esanda daude eta zabor bilketari dagokion etxeko lanak eginda".



EAJko kideak martitzeneko prentsaurrekoan. MIRARI ALTUBE

Gardentasunaren gaineko kontuak ere argitu gura izan zituzten; gogorarazi zuten oposizioko ordezkariak "Udaleko organo guztietan" daudela, Gobernu Batzordean barne, eta "gai guztiak gardentasunez" aurkezten direla. "Gainera, irailetik, EH Bilduk liberatu erdi dauka, Udalean hartzen diren pisudun erabaki guztien berri izanik".

**Berdintasunerako enpresa bat**

Bi alderdien artean berdintasunak sortu duen ika-mikari ere heldu zioten. "Berdintasuna landu beharra dago, baina eraginkorrak izan nahi dugu eta lanketa hori ezin da era isolatuan egin; aurreko agintaldian izandako ereduan agerian geratu da hori". Hala, "era transbertsalean Udaleko eta herriko txoko guztietara iristeko" enpresa baten aholkularitza kontratatuko du.

**"Porlanak pisu handia"**

Bestetik, adierazi zuten EH Bilduk esateak porlana gero eta pisu handiagoa hartzen dabilela ez duela zentzurik, jakinik, halako inbertsioetarako ez dagoela dirurik.

"Kirol instalakuntzen egoera eskasa aipatzerakoan Iturrigorri frontoiko hainbat arazo eta gabezia aipatu dira. Ezagunak dira, eta aurreko agintaldian ere bai", zioten, eta gaineratu zuten 60.000 euroko inbertsioa bideratuta duela Udal Gobernuak teilatua guztiz berritzeko 2017an.

**"Orain arte egindakoak"**

"Plangintza falta leporatzen zaigu… Egia da egunerokotasunak denbora asko kentzen digula, baina etorkizuna egunero aurrera eramaten ditugun ekintzen ondorio izango da". Eta egindako hainbat ekintza aipatu zituzten: "Mojen eraikina erosi; Azbeko eraikinaren erabilera berria ahalbidetu; Coprecirekin hitzarmena adostu instalakuntza handitzeko; beilatokiaren kokapenaren arazoari irtenbidea bilatu industriagunera mugituta; urteetan erabakirik hartu gabe egon den kirol etxe aurreko berdeguneari hasiera eman eta norabidea zehaztu; herriko espaloien konponketa eta irisgarritasuna; herriko pasealeku ibilbidea osatzeko kiroldegi azpiko tartearen proiektua egin 2018an exekutatuko dena, Iturrigorriko teilatua berritu…".

Eta bukatzeko, zera utzi gura izan zuten argi: "Aurrerantzean ere orain arte bezala jokatuko dugu, aretxabaletarren beharrak entzunez eta gure eskuetan dagoen heinean beteaz. Etorkizuneko perspektiba galdu gabe, baina inoiz exekutatuko ez den plan ideal baten azterketan paralizatu gabe".






NIRE USTEZ

**BEÑAT ZAMALLOA AKIZU**

## Utzi Arrasate gomendatzen

Aretxabaletar batek hala egitea oso ondo ikusia ez egon arren: utzidazue Arrasate gomendatzen. Zehaztu dezadan, badaezpada: Arrasate gomendatzen biharko egunez. Euskaraz Bizi Eguna izango da bihar Arrasaten. Korrikarekin euskalduntasuna irakiteko zorian dugun sasoiotan, egun egokia izan liteke berotzen joateko. Aldi berean, egun egokia izan liteke Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz-eko gazteen ekimenetik asko ikasteko ere.

Gomendatzen hasita, konbentzitzeko arrazoi kulturalagoak behar izatera, musika eszenako zuzeneko txundigarrienetakoa izango da gauean: Willis Drummond. Punta-puntako bertsolariak ere izango dira arratsaldean, puntak non dituen ere ez dakien gai jartzaile batek gidatuta. Goizetik goizaldera arte, Arrasatera joateko izan badira arrazoi kultural gehiago ere. Kulturaletan kulturalena, esaterako: parranda on bat.

Izan ere, ekimena, kultura eta parranda behar ditu oraindik orain euskarak. Eta beharko ditu gehiago ere. Batez ere, ekimenik eta kulturarik ez bada.

# Opor egunetarako ekintzak antolatu dituzte gaztetxoendako

'Goza topera oporretan!' eskaintza egin die Udalak Aste Santurako eta izen-emate epea gaur bukatuko da

**M.A.** ARETXABALETA

Natura, teknologia eta sukaldaritza uztartuko dituen aisialdi eskaintza egin die Udaleko Gazteria Zerbitzuak 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei, *Goza topera oporretan!* izenarekin. Ekintza mordoa izango dituzte apirilaren 10etik 12ra artean eta izena emateko epea gaur itxiko dute. Interesatuek Arkupera jo behar dute, eta 25 euro ordaindu.

Gehienez, hamabost laguneko taldeak osatuko dituzte adinaren arabera banatuta: lehen eta bigarren hezkuntzakoak, hirugarren eta laugarrenekoak eta bosgarren eta seigarrenekoak.

**Jarduera ezberdinak**

Hainbat jarduera egingo dituzte hiru egunetan; besteak beste, musika laboretegia, sukaldaritza osasuntsua, birziklapen tailerra, artea naturan eta hiru dimentsioko inprimaketa. "Adin tarte bakoitzarentzat programazio berezia gertatu dugu, horien gustuen eta beharren arabera", jakinarazi dute Gazteria Zerbitzuko kideek.

## Familia harremanak aztergai '3,2,1… Play!' antzezlanean

Trokolo taldeak *3, 2, 1... Play!* antzezlana eskainiko die bihar, zapatua, 17:00etan, Arkupen (sarrera 3 euro). Antonek ez daki zer egin semearekin, bideo jokoak bakarrik ditu-eta buruan. Horregatik, ipuinetako pertsonaia bihurtuko da Anton eta publikoaren laguntzarekin bideo jokoez harago badaudela beste kontu batzuk erakutsiko dio.

## 'Bullying, non dago muga?' hitzaldia martxoaren 28an

Eli Moreno Carrillo psikologo, sexologo eta bitartekariak *bullying*-aren gainean egingo du berba martxoaren 28an, martitzena, 18:00etan, Arkupen. Bi saio egingo ditu eta bigarrena apirilaren 4an izango da.

Guraso Foroak antolatu du trebakuntza saioa eta aurrez izena eman beharra dago Arkupeko harreran.

# Zuzendaritza berritu eta lanean jarraitzeko gertu

Basotxo erretiratuen elkarteak batzar orokorra egin du eta ia 100.000 euroko aurrekontua onartu. 2017rako dituzten jardueren plangintza zehaztu dute eta bost kide izendatu dituzte zuzendaritza batzordea berritzeko

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Urteko jardueren plangintza eta 2017ko kontu ekonomikoak onartu zituzten Basotxoko kideek joan den egubakoitzean egindako batzar orokorrean. 975 bazkide dituen elkarteak –570 emakumeak (%58,5) eta 405 gizonak (%41,5)– zuzendaritza batzordean sartuko diren bost lagunen izenak ere iragarri zituen.



Zuzendaritzan sartuko diren kide batzuk eta bazkideak batzarrean. MIRARI ALTUBE

**Iazko jarduerak oinarri**

Diru kontuen berri eman zien Iñigo Olabe diruzainak elkartutako 25 bat laguni, eta jakinarazi, 2016ko sarrera errealak 109.765 euro izan zirela, eta gastu errealak 108.993 euro. 2017rako, ostera, aurrekontua zertxobait jaistea aurreikusi dute, eta sarrerak 98.700 euro izango direlakoan daude, eta gastuak 99.120 euro. Aurrekontu horren diru kopururik handiena bidaietarako izaten dela argitu zuen; %75, hain zuzen ere. Hala, 2017rako 75.000 euro gastatuko dituzte bidaietan eta hortik, 74.000 euro finantzatuko dutelakoan daude.

Jose Inazio Isasmendi presidenteak, berriz, iragarri zuen aurtengo jardueren plangintzak ez duela aldaketa handirik izango. Kultura ekitaldiei dagokienez, hitzaldiak izango dituzte (*Internet bidez zelan erosi*, *Etxeko arriskuak zelan saihestu*...); memoria lantzeko tailerra; eta kulturari eskainitako astea, irailean. Gainera, kantu taldeak eta dantza taldeek (euskal dantzen taldea eta aretoko dantzena) lanean jarraituko dute orain arte legez.

Bidaiei dagokienez, egun bakarreko irteerak (Azpeitia, Burgos, Kantabria, Nafarroa...) eta astebetekoak uztartuko dituzte. Apirilaren 17tik 23ra, esaterako, Almeriara joango dira; ekainean, Kroaziara; eta urrian, Asturias eta Galizia aldera.

Elkarteko egunak ospatzen ere jarraituko dutela jakinarazi zuen, hala nola, Aingeru Guarda eguna, Santa Luzia eta Santo Tomas. Eta herriko elkarteekin lankidetzan jarraitzeko asmoa ere agertu zuen: Euskararen Eguna, Kirolaren Eguna, Korrika 2017...

**Kargu banaketa hilaren 27an**

Zuzendaritza batzordea ere berritu zuten batzarrean. Otsailean bazkideei dei egin zien batzorde horretarako boluntario eske, eta "kostata" izan arren topatu dituzte ordezkoak. Kargu banaketarik, ostera, ez dute egin oraindik. Horretarako bilera datorren martxoaren 27an egingo dute.

## Zuzendaritzan aldaketak

**Sartu diren kideak:**
- Pedro Etxebarria
- Ramiro Gomez
- Nieves Gonzalo
- Isabel Olivenza
- Jose Rodriguez

**Geratu diren kideak:**
- Xabier Zaloña
- Tere Artano
- Kontxi Romano
- Jose Gato

**Irten diren kideak:**
- Jose Inazio Isasmendi
- Floren Elortondo
- Iñigo Olabe
- Gloria Elorza
- Txaro Villar

## Hilaren 25ean Azpeitira

Gipuzkoako erretiratuen topaketa egingo dute martxoaren 25ean, zapatua, Azpeitian (Getarian izan ziren 2015ean eta Zarautzen 2016an). Mondragon Unibertsitateko ikasleek osatutako Flashback taldeak antolatu du eguna. Hona hemen egitaraua: Loiolako santutegira bisita; herrian bisita gidatua; bazkaria; bingoa; eta dantzaldia. Prezioa 33 euro da eta izena eman behar da Basotxoko bulegoan (11:00etatik 12:00etara).

# Bidaietako esperientziak partekatzeko Ostegun Bidaiariak

Bosgarrenez dator ekimena Udalaren eta Artemanen eskutik eta izen-emate epea astelehenean zabalduko da

**M.A.** ARETXABALETA

Herriko hainbat tabernatan, bidaietan izandako esperientzien berri emango dute maiatzaren 25ean hasi eta ekainaren 15era bitartean, eguenetan. Bidaietako esperientziak partekatzeko helburuarekin sortutako ekimenak bost urte beteko ditu.

Kontalari izateko izen-emate epea astelehenean, martxoaren 20an, zabalduko dute. Bidaiaren laburpena eta argazkiak Gazteria Zerbitzura bidali behar dira: *gazteria@aretxabaleta.eus* edo 943 71 18 62.

**Argazki bidezko emanaldiak**

Aurkeztuko diren bidaiek azkeneko bost urteotan egindakoak izan beharko dute; edozein eratakoak onartuko dituzte: ikasketa bidaiak, praktika-aldiak, opor-bidaiak, exotikoak, gertukoak... "Bosgarren edizio honetan erabaki dugu Debagoienean hain ugariak diren ikasleei, bertakoei zein kanpokoei, keinu berezi bat egitea. Horregatik, ikasketak edo bestelako arrazoiak medio kanpoan egin izan duten egonaldien berri jendeaurrean ematera gonbidatu ditugu", jakinarazi dute antolatzaileek.

Izena ematen dutenen artetik lau aukeratuko dituzte eta horretarako irizpidea da diaporamen kalitatea eta bidaiaren egingarritasuna eta praktikotasuna. Aurkezpenak euskaraz egingo dituzte eta ordu erdi eta ordubete artean iraungo dute.

**Publikoaren saria**

Emanaldiak, orain arte legez, hainbat tabernatan izango dira, eguenetan, 21:30ean; hona egunak: maiatzak 25, ekainak 1, ekainak 8 eta ekainak 15.

Ikusleek emanaldi bakoitza bozkatzeko aukera izango dute, eta, hala, irabazlea aukeratu. Publikoaren saria 100 euro izango da. Bestalde, parte hartzaile guztiek 50 euroko sari-ordaina izango dute.

## Korrikaren egitarau barruko 'Bizitzaren bidea' filma gaur

Korrikaren etorrera girotuko duten ekitaldiei emango diete hasiera gaur, egubakoitza, *Bizitzaren bidea* filma emanda udaletxe zaharrean, 19:00etan. Joxe Ramon Agirre *Marron* (Ataun, 1959), alpinista, mendizale eta bidaiari ezagunaren ikus-entzunezkoa da, eta bera etorriko da aurkeztera eta galderak erantzutera.

Martxoaren 31ko kantu-poteoak ere Korrikarekin bat egingo du, eta ondoren, Bertso Korrika eta *Erradikalak gara* emanaldia izango dira, 22:00etan. Apirilaren 1ean, zapatua, ostera, mendi martxa egingo dute Orkatzategira, 09:00etan abiatuta, eta pintxopoteoa 19:00etan.

## Hiru hezkuntza proiekturen berri martitzenean

Oñati, Soraluze eta Ereretako zinegotzi bana gerturatuko dira martitzenean, hilaren 21ean, EHBilgunera (18:30). *Hiru hezkuntza proiektu, herri bat* izenarekin herri bakoitzeko proiektuen gainean egingo dute berba. "Aretxabaletako hezkuntza komunitatea sendotzea guztion ardura delakoan gaude EH Bildun. Herrian ditugun baliabideekin hezkuntza komunitatea josteko aukerak plazaratu nahi ditugu. Helburua da herria batu eta hezkuntza komunitatea indartu eta kohesioa lortu", diote EH Bilduko kideek. Ateak herritar guztiendako dituztela zabalik adierazi dute, bereziki hezkuntzan dihardutenendako.

# Tipi-tapa, tipi-tapa... Korrika Eskoriatzan

Apirilaren 8an 14:00 aldera pasako da Korrika Eskoriatzatik; hala, azkenengo hilabeteetan herriko elkarte eta eragile ezberdinak batuta, egitarau bateratua prestatu dute egunari eta aurretik egingo diren ekintzei forma emateko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Korrikak, aurten, 20. aldia beteko du. Otxandion hasiko da martxoaren 30ean eta apirilaren 9an bukatuko da Iruñean. Eskoriatzatik apirilaren 8an pasako da, eta, hain zuzen ere, Eskoriatzako Korrika batzordeak hainbat bilera egin ditu egunari forma emateko eta aurretik egingo den Korrika Kulturaleko ekintzak antolatzeko.

Azkeneko hilabeteetan, hainbat eragile elkartu dira bileretan, eta korrikari eta euskarari bultzada emateko egitarau bateratua prestatu du batzorde horrek.



Duela bi urte egindako Postaka. IMANOL SORIANO

### Eskoriatza, euskararen alde

Esan bezala, zapatuan, apirilaren 8an, pasako da Korrika Eskoriatzatik, arratsaldeko ordu bietan, eta "aukera ezin hobea da euskararen aldeko jaiegun bat antolatzeko". Hala, "herritar guztiei dei egiten diegu ekintzetan parte hartzeko", adierazi du Eskoriatzako Korrika batzordeak.

**HERRIKO HAINBAT ELKARTE ETA ERAGILEK EKINTZAK PRESTATU DITUZTE KORRIKAREN BUELTAN**

### Postaka giza katea

Euskararen transmisioa irudikatuko duen erronka horretan, talde eta elkarte ugarik bat egin dute, euren ekarpenarekin. Asmoa giza kate herrikoi bat egitea da norbanako bakoitzak sinbolikoki adieraziz euskararen transmisioaren bidean pauso txiki bat emango duela.

Ixotu gazte taldeak Postaka antolatu zuen duela bi urte, Korrikak Eskoriatzako kaleak zeharkatuko ez zituelako, eta oso ekintza arrakastatsua izan zen. Beraz, ordukoa errepikatu beharrik ez dago, aurten Korrikak Eskoriatza zeharkatuko duelako, baina herritarren arteko ekintza hori gauzatzea erabaki du Ixotu taldeak.

### 'Zuk ekarri, zuk jan'

Plazan mahaiak eta aulkiak jarriko dira eta nork berea –etxean prestatua edo erositakoa...– eroan eta jateko aukera izango da. Korrika batzordeak baloratu zuen bultzatu beharreko eredua dela eta herritar guztiak bertaratzeko eskatu dute.

## Batzordeak antolatutako egitaraua

**Apirilak 1, zapatua**
- **10:00** Atxorrotxera igoera: oinez, korrika edo bizikletan.
- **12:00** Ekitaldia.

**Apirilak 6, eguena**
- **19:00** Kale Erabileraren Neurketak. *Herrigintzaz eta irrigintzaz* Joxe Mari Agirretxeren –Porrotx– eta Olatz Altunaren emanaldia.

**Apirilak 7, egubakoitza**
- **10:30** Korrika Txikia.
- **22:30** Inkernun Txalainak.

**Apirilak 8, zapatua**
- **10:30** Postaka giza katea. Intxaurtxuetatik Aranburuzabalara, euskara eskutik eskura.
- **12:15** Korrikaren mezua irakurtzea, euskal dantzak, taloak.
- **14:00** Korrika Eskoriatzatik pasako da.
- **15:00** *Zuk ekarri, zuk jan* bazkaria Herriko Plazan.
- **16:30** Beñat Intxausperekin 'Euskal kantuen kantaldia'.
- **18:00** Buruhandiak.
- **19:00** TTek elektrotxaranga.

## Irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoa astelehenetik martxan

'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoaz gain, hainbat ekintza izango dira martxoan eta apirilean zehar

**I.B** ESKORIATZA

*Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoa astelehenetik, martxoaren 20tik, aurrera egongo da martxan. Egitasmo horren helburuak hauek dira, besteak beste: irakurzaletasuna sustatzea –batez ere, euskarazko literatura– eta liburutegi publikoen erabilera bultzatzea.

Hala, martxoaren 20tik maiatzaren 31ra bitartean izango da martxan egitasmoa eta Udalak herritarrak animatu nahi ditu bertan parte har dezaten.

### Funtzionamendua

Herritarrak Udal Liburutegiko mailegu zerbitzua erabilita bertako euskarazko liburu bat aukeratu eta etxera eramango du, irakurtzeko. Behin irakurrita, liburutegira itzuliko du liburua, irakurle-fitxa erraz bat beteko du bertan eta liburutegiko arduradunak erosketa-txeke bat emango dio. Parte hartzaileak txeke horrekin %35 merkeago erosiko du euskarazko beste liburu bat. Horrekin batera, Eskoriatzako liburutegian hileroko zozketa egingo du liburutegiko arduradunak apirilean eta maiatzean, hilabete bakoitzean liburutegian parte hartu dutenen artean. Saria 30 euroko erosketa-txekea izango da.

### Kirmen Uribe, antzokian

Egitasmoa indartzeko asmoz, hainbat ekintza antolatu ditu Eskoriatzako Udalak. Hasteko, martxoaren 29an, Kirmen Uribe idazlea Zaldibar antzokian izango da, 18:30ean, eta *Elkarrekin esnatzeko ordua* azken nobelaz hitz egitera etorriko da. Egiazko pertsonaiek eta gertakariek biltzen dute Kirmen Uriberen hirugarren eleberriko kontakizuna, eta horren berri ematera etorriko da lehen aldiz eleberri horrekin Eskoriatzara.

### Ekitaldi ugari egitasmo barruan

Apirilaren 23an, Xabier Amurizak *Ze ongi bizi zen Ulises* bakarrizketa literarioa eskainiko du antzokian, 19:00etan. Apirilaren 30ean, Pello Añorgak ipuin kontaketa eskainiko du eta 31n, berriz, liburu azoka, *Persiar merkatu batean* ipuin musikatua, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketaren sari banaketa eta irabazleen irakurketa eta Dorleta Kortazar eskoriatzarren ipuin kontaketa izango dira antzokian.




I.B

## Baserri izenak seinaleetan

Eskoriatzako Zarimutz, Marulanda eta Maringo baserrietarako bidegurutzeetan seinaleak jarri berri dituzte baserri izenekin, eta seinaletik baserria zenbat distantziara dagoen ere ipintzen du. Gainontzeko elizateetan duela 5-6 urte inguru jarri zituen Udalak, eta, ekimen horrekin, baserriak bilatu nahi dituenari erraztasunak ematea da helburua.




Iaz egindako campusean batutakoak. ESKORIATZA KIROL ELKARTEA

# Kirol elkarteak areto futboleko campusa antolatu du apirilerako

Hiru egunetan, jolas kooperatiboak, eskulanak, mendi irteera… egingo dituzte, besteak beste

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Apirilaren 10ean, 11n eta 12an, Eskoriatzako Kirol Elkarteak antolatuta, areto futboleko campusa izango da 2005-2009 urte bitartean jaiotako haurrentzat. Manuel Muñoz kiroldegian egingo dira ekintza gehienak, eta plazak mugatuak izango dira –50 haur–. Izena eman nahi duenak 17:00etatik 19:30era bitartean kiroldegira joan beharko du, eta apirilaren 3ra arte egongo da horretarako aukera.

Areto futboleko oinarrizko ezagutzak ikasteaz batera, campusak hainbat helburu izango ditu: emozioak eta balioak lantzea, ohitura osasuntsuak transmititzea eta kirola eta areto futbola bultzatzea eta lantzea, hain zuzen. Hori horrela, 25 euroko prezioan hiru egunerako campusean parte hartzeko aukera izango dute haurrek, eta, luntxaz gainera, kamiseta bat jasoko dute opari.

**Ekintzaz betetako campusa**

Areto futboleko campusari hasiera emateko, apirilaren 10ean, 10:00etatik 12:30era, ezagutze jolasak eta kirol olinpiadak egingo dituzte. Eta 15:00etatik 17:00etara, berriz, igerilekuan jolasak, jolas kooperatiboak eta eskulanak.

Apirilaren 11n, 10:00etatik 17:30ak arte, mendi irteera eta bandera jolasa egingo dute –haur bakoitzak bazkaria eta ura eraman beharko du–.

Apirilaren 12an, azken egunean, 10:00etatik 12:30era, entrenatzaile bati eta jokalari bati elkarrizketa egiteko aukera izango dute gaztetxoek, areto futbolaren gainean dituzten zalantza, galdera eta bitxikeria guztiak argitzeko. Arratsaldean, 15:00etatik 17:30era, hiruko txapelketa egingo dute, ondoren luntxa, eta sorpresarekin amaituko da kirol elkartearen areto futboleko campusa.



Ezkerraldean, bazkarian, Soran Etxean. Eskuinaldean, Matilde Arrese MIRARI ALTUBE

# Luzaroan mantendu beharreko ohiturari eutsi diote, beste behin

Sorginak taldearen bazkarian adin guztietako emakumeak batu ziren; tartean, 99 urte bete dituen Matilde Arrese

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Joan den zapatuan, hainbat belaunalditako herriko emakumeak Soran Etxean elkartu ziren, Sorginak taldeak urtero Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatzen duen bazkarian. 1987an egin zuten lehenengoz bilkura berezi hori, taldearen sorreran, beraz, eta, ordutik hona, ez dute inoiz hutsik egin.

Zapatuan 24 emakume batu ziren, eta guztiek "giro polita" nabarmendu zuten. Elkarrekin kontu kontari aritu eta primeran pasatu zuten. Bazkalostean karta jokoan ibili ziren, eta Humberto DJaren musikaz lagundutako dantzaldia ere izan zuten.

Eneka Zankada alkatea ere hantxe izan zen, eta hark belaunaldi desberdinen nahasketa nabarmendu zuen: "Pozgarria da nagusi-nagusiak eta gazteenak biltzea". Era berean, pozik agertu zen, halako ekimenak antolatzen segiko duen "jende berria" badatorrelako.

Txarteltxo morea lotu zuten paparrean, Gatzagako sorginen ikurra eta haien bertsoa zeramana: *Sasi guztien gainetik, laino guztien azpitik, ordu laurden bat haruntz, beste bat honuntz, ez geala, ba geala, hamalau mila hemen geala*.

**Matilde Arresek 99 urte**

Matilde Arrese da Leintz Gatzagako biztanleetan nagusiena, eta aste honetan, martitzenean, hain zuzen, 99 urte bete ditu. "Leintz Gatzagako haize freskoa" ei da haren sekretua.

Bada, Arresek ere ez zuen galdu nahi izan zapatuko bazkaria, eta "ahal den bitartean, behintzat", horrelakoak egiten jarraitzearen beharra azpimarratu zuen hark.



Josu Martinezek aurkitu du filma. J.M.

## 36ko 'Euskadi' filma emango dute, erliebe sistemarekin egina

Bihar, martxoak 18, *Euskadi* filma proiektatuko dute, Josu Martinez zinemagile eta ikertzaileak Parisko artxiboan aurkitutako 1936ko lana, Louis Lumiereren erliebe sistemarekin egina, gaur egungo 3D-aren antzekoa, eta, beraz, betaurreko bereziekin ikustekoa. 19:00etan izango da emanaldia, San Millan elizan. Gaiari buruzko informazio gehiago 40. orrialdean.

## Gurel guraso elkarteak batzar orokorra egingo du

Domeka honetan, martxoak 19, Leintz Gatzagako Gurel guraso elkarteak urteko batzar orokorra egingo du. Batzar horretan, alde batetik, iazko kontuak onartuko dituzte, eta aurtengo asmoak eta aurreikuspenak jarriko dituzte mahai gainean. Horrez gainera, kide berriak onartuko dituzte, baita ardurak banatu ere.

## 'Kondaira baten truke' antzerkia izango da domekan

Patata Tropikala taldearen *Kondaira baten truke* antzerkia 17:00etan izango da, Zaldibarren. Iratxoek naturaren festa ospatzen dute, urtero lez, eta marrubi tarta prestatuko dute. Festa baino lehen, iratxoetako batek kondairaren pasarte bat irakurriko du, tarta labean dagoen bitartean. Sarrerak hiru eurotan erosi daitezke kiroldegian.

## Amuska Emakume Elkartekoak Tolosara egingo dute irteera

Amuska Emakume Elkartekoek Tolosara irteera antolatu dute martxoaren 18rako, zapaturako. Asmoa da egun-pasa egitea bertan, herria eta inguruak ezagutzeko eta, bide batez, egun ederra pasatzeko. Goiza Tolosan pasa ostean, Adunako Zabala sagardotegian bazkalduko dute eta iluntzean Eskoriatzara bueltatuko dira.

# Zuhaitz Eguna, euripean

Joan den domekan Zuhaitz Eguna egin zuten San Juanzar baserrian. Umeek eta helduek gaztainondoak eta arteak landatu zituzten, eta, horrez gain, Fermin Lezeta basozainarekin egurrezko eskailerak egiten ikasi zuten. Eguraldia ez zuten lagun izan, baina animoso zeuden, hala ere, eta probetxuzko goiza igaro zuten.



AITZIBER GOROSABEL



Lierni Altunak, Rosa Mondragonek eta Itxaso Aspiazuk osatzen dute lantaldea. ARAMAIOKO UDALA

# Komunikazio sare berria lantzen dihardu Udalak

Aramaioko Udala arlo komunikatiboa eguneratzen ari da, herritarrei informazioa ahalik eta modu eraginkorrenean helarazteko helburuarekin; hala, azken urteetan martxan daukan webgunea lantzeaz gain, hainbat sare sozialetan murgiltzen hasi da

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Gizartea eta komunikatzeko moduak azkar ari dira aldatzen teknologia modernoen garai honetan. Hori dela eta, Aramaioko Udala arlo komunikatiboa eguneratzeko lanean ari da. "Bizimodua aldatuz doa, komunikatzeko moduak ere aldatzen ari dira. Beraz, gure xumetasunetik, eta ahal dugun heinean, saiatzen gara arlo honetan eguneratzen", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Batetik, Udalaren webguneari dagokionez, hainbat albiste igotzen dituzte bertara eta astean bi egunetan herritarrei posta elektronikoz bidaltzen dizkiete bertan jasotako albiste garrantzitsuenak. "Bere egunean helbide elektronikoa eman ziguten herritar guztiek jasotzen dute, posta elektronikoz, webgunean dauden albiste nagusiak, martitzenetan eta eguenetan", adierazi du Altunak. Hala ere, alkatearen esanetan, oraindik badituzte gauzak egiteko. "Webgunea euskaraz bakarrik daukagu eta gazteleraz ere jarriko dugu, bai euskaraz ez dakiten herritarrentzat, baita turismoari begira ere. Euskarazko zatian bertan atalen bat edo beste falta zaigu ordenatzeko. Momentu honetan praktiko dago, erabilgarri, baina atal finkoren bat ondo jartzea falta zaigu", dio.

### Facebook eta Flickr

Bestetik, sare sozialei erreparatuta, Facebook eta Flickr dira, oraingoz, Udalak erabiltzen dituenak. Batetik, Facebook sare sozial erabiliena dela adierazi du Altunak. "Sare sozial honetan jende asko ibiltzen gara eta informazio azkarra ematea ahalbidetzen du, jende askorendako, gainera". Bestalde, Flickr argazkiak herritarrei helarazteko modu egokia dela nabarmendu du. "Argazki ugari ateratzen ditugu ekintza ezberdinetan eta jendeak eskatu izan dizkigunean ez dugu jakin izan herritarrei behar bezala helarazten. Horri konponbidea emateko sortu dugu kontua Flickr-en". Azkenik, Youtubeko kanala ere zabalik du Udalak: "Nahiz eta oraindik ez diogun astindu handirik eman".

**BATEZ ERE, FACEBOOK ETA FLICKR ARI DA LANTZEN UDALA, ETA YOUTUBEKO KANALA ERE BADAUKA**

Hiru laguneko lantaldea ari da arlo hori lantzen: Lierni Altuna bera, Rosa Mondragon –Euskara teknikaria– eta Itxaso Aspiazu –Kultura teknikaria–.

### Herria informatzea helburu

Helburua da Udalak egiten duena "ahalik eta herritar gehienek" jakitea. Horregatik, "herri txikia izanda, elkarteek eta auzoetan egiten dutenaren gaineko informazioa ere webgune honen bitartez eman" nahiko luketela gaineratu du alkateak.

# Martxoaren 31n egingo dute Korrika jaialdia Aramaion

Gaur arratsaldean Korrikako materiala egongo da salgai kultura etxean, 16:00etatik 18:00etara bitartean

**E.A.** ARAMAIO

Korrikaren 20. edizioa ez da Aramaiotik pasako. Hala ere, Udalak Legution erosi du kilometroa. Lehenengo egunean bertan –martxoaren 30ean– pasako da Korrika Legutiotik, 17:30 inguruan, eta Udalak herritarrei dei egin die bertan parte hartzeko. "Kilometroa Aramaioko Udalak erosi du herritarren izenean; beraz, ahalik eta jende gehien bertara joatea da asmoa".

Euskararen aldeko martxa herritik pasako ez den arren, herriko Korrika batzordeak hainbat ekintza antolatu ditu horren bueltan.

Hasteko, edizio honetako materiala egongo da salgai gaur bertan kultura etxean, 16:00etatik 18etara bitartean.

Ondoren, martxoaren 31n bi ekintza egongo dira: batetik, Korrika Txikia. 14:30ean irtengo da San Martin Eskolatik eta Nardeaga eta Pedro Ignazio Barrutia kaleak zeharkatuko ditu; eskolako haurrak protagonista izango dira. Bestetik, Korrika jaialdiari 18:30ean emango zaio hasiera, kiroldegian. Sarrerak aldez aurretik erosi ahal izango dira, herriko hainbat tokitan, 2 eurotan.

Azkenik, apirilaren 2an, *Gutik Zura* pelikularen emanaldia izango da kultura etxean, arratsaldeko zazpietan.

### Jaialdiako parte-hartzaileak

- Eskolako umeak
- Alaiak abesbatza
- Trikitixa Eskola
- Bixente Goikoetxea abesbatza
- Flamenkoa
- Papargorri abesbatza
- Maria, Idoia eta Leire kantariak
- Bertso eskola
- Euskal dantza

## Elbarriendako komuna ireki dute kultura etxean

Orain arte itxita egon da Aramaioko kultura etxeko beheko solairuan dagoen elbarriendako komuna. Hala ere, orain dela gutxi egokitu egin dute, eta dagoeneko erabilgarri dago.

Pixoihalak aldatzeko tokia egokitu dute han. Emakumezkoen komunean egon da, baina, aurrerantzean, elbarriendako komunean egongo da. Aukera berdintasunaren bidean parekotasuna bultzatzeko kontraesan bat da emakumezkoen komunean egotea pixoihalak aldatzeko tokia, Udalaren esanetan, eta hori zuzendu gura izan da. Hala, toki publikoetan kontraesanen bat antzemanez gero, udaletxean abisatzeko deia luzatu du udalak.

## Bertso barnetegia apirilaren 18an, 19an eta 20an izango da

Urtero bezala, bertso barnetegia antolatu du Gorbeialdeko Kuadrillak, Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleentzako. Parte hartzeko, martxoaren 24a baino lehenago eman behar da izena; kasu horretan, Aramaioko udaletxean.

Apirilaren 18an, 19an eta 20an izango da egonaldia, Dimako Lapurriketa baserri eskolan.

Prezioa 45 euro izango da eta eraman beharreko materiala honako hau: arropa egoki eta erosoa, aldatzeko jantziak, lotarako zakua, zira, botak eta garbiketa pertsonaleko gauzak.

Informazio gehiago udaletxean eskuratu ahal izango da.




Xabi Igoa bertsotan. Eskuinean, Paula Amilburu. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Azken finalerdia herrian, Arriolabengoa plazara

Bosgarren finalerdia Igoak irabazi zuen Laudion, 243 puntu lortuta eta Amilburuk, aldiz, hirugarren bukatu zuen saioa, 234 punturekin; bihar, zapatua, Aramaion izango da azkenekoa, 17:30ean, kultura etxean, eta Andere Arriolabengoak abestuko du

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO
Bosgarren finalaurrekoan Xabi Igoa nagusitu ostean, txapelketako seigarren eta azken finalaurrekoa Aramaion jokatuko da bihar, zapatua, 17:30ean, kultura etxean. Falta diren azken sei bertsolariek abestuko dute biharkoan; tartean, Andere Arriolabengoa aramaioarrak. "Aurreko saioetan urduri egon naiz eta ez dut askorik disfrutatu. Beraz, ea biharkoan saioaz gozatzeko aukerarik dudan", azpimarratu du Arriolabengoak.

Urte batzuk txapelketan parte hartu barik egon da aramaioarra eta aurtengoan bere burua "frogatzeko" helburua izan du. "Finalerako ez dut aukera askorik; hala ere, ez da hori nire helburua", zehaztu du.

Egin duen txapelketari dagokionez, "hobeto" egitea gustatuko zitzaiola onartu du. "Oso kritikoa naiz nire buruarekin, eta badakit hobeto egin ahal izan dudala, baina txapelketa ondo bukatzen saiatuko naiz".

**Finala, Gasteizen**

Bihar erabakiko da zeintzuk izango diren apirilaren 1ean Gasteizen egongo diren sei bertsolariak eta gehienek aukerak dituzte oraindik. Oraingoz, Xabi Igoak, Manex Agirrek eta Iñaki Viñasprek dituzte puntu gehien.

**Igoa garaile Laudion**

Pasa den zapatuan Laudion jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako bosgarren finalaurrekoa eta Xabi Igoa aramaioarra nagusitu zen, 243 puntu eskuratuta. Hala ere, saioa ez zuen sentsazio onekin bukatu. "Estu sentitu nintzen, ez zen nire saiorik onena izan. Tentsio puntu batekin ere banengoen, ez dakit zergatik", aitortu du.

**ORAINGOZ, MANEX AGIRREK, XABI IGOAK ETA IÑAKI VIÑASPREK BATU DITUZTE PUNTU GEHIEN**

Hala ere, bi itzulietan lortu dituen puntuak kontuan hartuta, "ondo bidean", finalean egongo da Igoa, eta pozik dago horrekin. "Sekulakoa gertatu beharko litzateke finalerako ez sailkatzeko. Beraz, helburua beteta daukadala esan dezaket eta pozik nago", adierazi du.

Paula Amilbururi dagokionez, hirugarren bukatu zuen saioa, 234 puntu lortuta, eta hark ere sentsazio txarrekin bukatu zuen saioa. "Ez nuen askorik disfrutatu bertsotan. Presio handiegia jarri nion neure buruari eta pasa den astean zehar izan nituen urduritasunak ez ziren desagertu", azaldu du.

Bai Igoak, baita Amilburuk ere, biek aitortu dute orokorrean bertso saio "eskasa" izan zela. Amilbururen esanetan: "Guztiok geunden tentsio puntu batekin eta horrek baldintzatu egin zuen saioa". Igoak, berriz, adierazi du aretoa ez zela "gehiegi" bete eta, agian, horrek tentsioa "areagotu" zuela aitortu du.



San Martin jaien hasiera, iaz. GOIENA

## San Martin jaietarako programa prestatzeko beste modu bat

Jai batzordeak inkestak bidaliko dizkie herritarrei, euren proposamenak eta ideiak jasotzeko helburuarekin

**E.A.** ARAMAIO
Ohiko bilera egin ordez, beste modu bat aukeratu du aurten jai batzordeak San Martin jaiak antolatzeko. "Bilerak zaharkituta gelditu direla uste dugu. Izan ere, irekiak dira, bai, baina oso jende gutxi etortzen da. Horregatik, inkesta eran egitea erabaki dugu", azaldu du Itxaso Aspiazuk, Kultura teknikariak.

Hala, Whatsapp eta posta elektroniko bidez inkesta bat bidaliko zaie herritarrei. "Edonork momentu batean betetzeko inkesta da eta guk informazioa jasoko dugu. Modernizatze aldera hartu dugu erabaki hau eta eraginkorragoa izango dela uste dugu", dio Aspiazuk.

Helburua da herritarrek proposamenak eta ideia ezberdinak iradokitzea, gustu guztietarako jaiak izan daitezen.

Jai batzordea dagoeneko hasi da inkestak bidaltzen eta erantzuteko azken eguna martxoaren 31 izango da.

**Hasiera, ekainaren 30ean**

Ekainaren 30ean –egubakoitza– hasiko dira aurten San Martin jaiak eta uztailaren 3an bukatuko dira.



MUNDUKIDE

## Mozambike proiektua hizpide

Josu Urrutia Mundukide Fundazioko zuzendariak hitzaldia egin zuen martitzenean Aramaioko kultura etxean, Mozambike proiektua azaltzeko helburuarekin, eta hamar bat lagun batu ziren.

Hain zuzen ere, Aramaioko Udalak 300 euroko laguntza eman zion iaz proiektu horri, eta horren baitan egin zuten hitzaldia.



EHNE, Eguzki, Zaldibar, Igorre, Antzuola, Elgeta, Berriz, Zornotza eta Iurretako ordezkariak, atzo, Durangon. ANBOTO.EUS

# Gueñes-Itsaso lerroko zazpi dorre Elgetan

Red Electrica de Españak bederatzi bat hilabete barru hasi nahi ditu eraikuntza lanak, eta proiektuak 50 bat lurjabe kaltetzen ditu Elgetan. Proiektua bertan behera uzteko eskatzen atzo Durangon egindako agerraldian izan zen Iraitz Lazkano alkatea

**Larraitz Zeberio** ELGETA
Elgetatik pasako da Red Electrica de España enpresak (REE) Gueñes eta Itsaso artean eraiki gura duen goi-tentsioko lerro berria. Proiektua hainbat urtez geldi egon ostean, REEk jakinarazi du gertu dagoela egitasmoari berrekiteko. Tentsio lerro bikoitza izango da, joan-etorrikoa, eta 400.000 volt garraiatuko ditu. "Une honetan goi-tentsioko hiru lerro daude Elgetan. Bi Intxorta aldera daude, eta 132.000 voltekoak dira. Hirugarrena Larrabil azpitik pasatzen da, eta 220.000 volt garraiatzen ditu. Berria 400.000 voltekoa izango da; hau da, Larrabilekoaren bikoitza", adierazi du Iraitz Lazkanok.

Alkateak jakinarazi du bi batzar egin dituela Udalak REEko ordezkariekin. Enpresa elektrikoak proiektuaren nondik norakoak azaldu dituela eta kaltetutako lur-jabeekin banan-banan elkartzeko nahia adierazi duela esan du Lazkanok. "Goi -tentsioko lerro elektrikoa Egoarbitzako eta Azkonabietako iparreko aldetik pasako da, eta proiektuak aurreikusten du Elgetan 70 metroko zazpi dorre egitea. Ideia bat egiteko, hogei solairuko eraikin baten tamainakoak izango dira dorre horiek", azaldu du. Datu gehiago ere eman ditu alkateak: "Lerro elektriko hori egiteko 145.544 metro karratu baso botako dituzte Elgetan. Hau da, 22 futbol zelairi dagokion azalera. Airez hartuko duen eremua, berriz, 33 futbol zelairi dagokiona izango da. Botako duten baso zatia Elgetaren azaleraren %1 izango da". Iraitz Lazkano alkateak bat egin zuen lerro horren eraikitzea bertan behera uzteko eskatzeko atzo Durangon egindako agerraldiarekin.



Lanak, urrian, beste lerro batean. L.Z.

**Helegiteak aurkezteko epea**
Goi-tentsioko lerro berri horren eraikuntzak Elgetako 50 bat lurjabe kaltetuko ditu. Udal webgunean dago ikusgai lursailen eta lurjabeen zerrenda eguneratua. Horren harira, udal arduradunek gogorarazi dute martxoaren 23ra arte dagoela zabalik helegiteak aurkezteko epea. "Zenbait herritar gerturatu dira dagoeneko informazio eske", azaldu du Lazkanok. "Udaletxean daukagu proiektuaren inguruko txostena; goi-tentsioko lerroa nondik pasatzen den, ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena, planoak...".

**Udala egoera aztertzen**
Lazkanok jakinarazi du Udalak helegiteak aurkezteko duen epearen luzapena eskatu duela. "Ingurumen batzordetik aztertuko dugu gaia. Hasita gaude, eta saiatuko gara helegitea aurkezteko dokumentazioa prestatzen", esan du. Elgeta ez da proiektu honek zeharkatuko duen Debagoieneko herri bakarra. Bergaratik eta Antzuolatik ere igaroko da goi-tentsioko lerro berria.

REEk 2017ko abenduan edo 2018ko urtarrilean hasi gura ditu eraikuntza lanak.

## Kantsatzeke mendi taldeak etzi egingo du urteko lehen irteera

Jakinarazi dute bederatzi irteera antolatu dituztela 2017rako eta beste bi egingo dituztela umeendako

**L.Z.** ELGETA
Untzillatxera antolatu du Kantsatzeke mendi taldeak 2017ko lehen irteera. Domekan egingo dute. Autoz abiatuko dira Elgetatik, 08:00etan, eta Mañarian ekingo diote ibilaldiari. "Hasiera-hasieratik aldapa gora, baina suabe-suabe hartuta iritsiko gara. Gero, ikuspegi ederra eta poliki-poliki behera, freskagarri bat eta etxera", esan dute.

Beste zortzi irteera egingo dituzte 2017an; hilean bat, abuztuan izan ezik. Iragarritakoen artean daude Ioar, Kurutzeberri-Atxorrotz, Berastegi-Erroizpe-Tolosa, Ereñozar-Atxarre, Ganbo, Barbagain eta Intxorta.

**Umeendako bi irteera aurten**
Berrikuntza moduan, Kantsatzekek bi irteera iragarri ditu aurten etxeko txikienekin egiteko. Adierazi dute bata udaberrian izango dela eta bestea udazkenean. Data zehatzak aurrerago emango dituzte aditzera.

Kantsatzeke mendi taldearen gaineko informazio gehiagorako: *kantsatzeke@gmail.com* edo *Kantsatzeke* (Facebook).

## Ibai Marin, zapatuan, 19:30ean, Spaloia kafe antzokian

Ibai Marinen musika emanaldia dago iragarrita biharko, zapatua, Elgetako kafe antzokian. Bakarkako proiektua du esku artean Hira taldeko abeslariak eta *Bidean naiz* izeneko bira egiten ari da proposamen berria jendaurrean aurkezteko. "Rock gordina, organikoa eta sentikorra", egiten duela adierazi du. Sarrera doan izango da.



Ibai Marin. LONEWOLF STUDIO

## Udal zergen gaineko hobariak eskatzeko epea amaitzear

Udalak jakinarazi du martxoaren 22ra arte dagoela zabalik ondasun higiezinen zein ibilgailuen zergekin lotutako salbuespenak, hobariak edo diru laguntzak eskatzeko epea. "Udalak hainbat hobari eta salbuespen ditu onartuta. Horiek aplikatu ahal izateko, interesatuek udaletxean egin behar dute eskaera", azaldu dute. Ondasun higiezinen kasuan, salbuespenak, hobariak eta diru laguntzak daude aurreikusita, zenbait baldintza betez gero. Ibilgailuen gaineko zergarekin lotuta ere hainbat salbuespen daude aurreikusita. Informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu *elgeta.eus* atarian edo galdetu udaletxean.

## OHARRAK

### Ipuinak liburutegian
Gaur 16:40ean 5 urteko gelatik gorakoendako eta 17:25ean 2 urtetik aurrerakoendako.

### Podologoa
Erretiratuendako kontsulta hilaren 23an. Txanda hartzeko 943 76 80 77 (Nati Arrieta).

### Gaztelekua
Domekan, 16:30ean, Pili Arin, Igor Herce eta Lorena Ibeas artisauek euren lanaren berri emango dute. Ate irekiak LH4-tik gorakoendako.

### Errekreazioa
Boluntarioak behar dira apirilaren 23ko Intxortako borrokaldien errekreaziorako. Argibideak udaletxean.

# EZKONTZAK 2017



- Jatetxeak
- Estilismoa
- Garraioa
- Bidaiak







# Jatetxeak ezkongaien zerbitzura

Ezkongaien gustuetara eta aurrekontuetara moldatzen dira gaur egun jatetxeak; ezkontza eguna perfektua izan dadin, detaile txikienak ere zaintzen dituzte, ezkongaiak eta gonbidatuak pozik gera daitezen

Ezkontza egunerako jatetxe egokia aukeratzeak garrantzi handia dauka. Izan ere, eguneko otordu garrantzitsuena eta ondorengo dantzaldia eta festa egiten dira bertan, eta ezkongaiek ezkontza egunerako zaindu beharreko kontuetako bat izaten da.

Jatetxe bakoitzak eskaintza propioa dauka, bakoitzak azken urteotako esperientziak oinarri hartuta egiten du lan, eta ezkongaien esku dago aukera.

**Erreserbak egitea garrantzitsua**

Batez ere, uda parteko hilabeteetan ezkondu behar izanez gero eta gonbidatu askoko ezkontza baldin bada, komeni izaten da orokorrean denborarekin egitea jatetxeen erreserba.



Koldo Lasa sukaldaria, Ozaeta jauregiaren kanpoaldeko berdegunean.

## Lasan luxua, ekonomia maila guztietara egokituta

Ezkontza bakarra eskaintzen dute egunean Bergarako Lasa jatetxean, **tratu pertsonalizatua** eta arretarik handiena izan dezaten bezeroek. Menu pertsonalizatuak eskaintzen dituzte; plater klasikoak eta modernoagoak ematen dituzte, eta hori ezkongaien gustuetara eta aurrekontura egokitzen dute. 100 lagun baino gehiagoko ezkontzetan, gainera, egun handiaren aurretik ezkongaiei otordu bat oparitzen diete, sei lagunendako, bertan hainbat espezialitate dastatu eta gustukoenak aukera ditzaten ezkontza egunerako.

Ezkontza bazkariaz gain, **zeremonia zibila** ere egin daiteke bertan, alfonbra gorri eta guzti. Luxua da, baina ekonomia maila guztien esku dago. Janlekuan 250 lagunendako tokia daukate. Hiru jangela dituzte; horietako bat areto oso handia da eta **1.200 m2-ko lorategi** ederrarekin bat egin daiteke, kristalezko ate mugikorraren bitartez.

Gipuzkoako ezkontza-ospakizunetarako **jatetxeen saria** jaso zuen 2009an Lasak, dituzten instalazioei, zerbitzuei eta sukaldaritza-kalitateari esker. **Restaurantelasa.es** webgunean aurki daiteke informazio gehiago, eta, erreserbetarako, idatzi *reservas@restaurantelasa.es* helbidera. Gustura hartuko zaituztete.




## Sukaldaritza tradizionala Akebaso jatetxean

Akebaso jatetxea 1735a ezkero ezkontzak antolatu dituen baserri bat da. Ordutik gaur egunera, modu fin eta dotorean, estruktura mantenduz berriztatua izan da, eta espazio zabalak ditu, barrualdean zein kanpoaldean, esklusibotasunez prestatuak izan direnak. Jatetxeko sukaldari taldeari esker, bezeroen behar eta gustuen arabera menu pertsonalizatua diseinatzeko aukera dago; eta moldatu egin daiteke, alergia edo intolerantzia duenari egokituta. Bertan dituzten aukerekin, ezkongaiek nahi dutena antolatu daiteke, beraien **ametsak errealitate** bihurtuz, eta arrakasta ziurtatuz.

Izorne Luengo Euskadiko maitre belaunaldi berrikoa da, eta ibilbide profesional luzea du. Besteak beste, Madrilgo Gilda jatetxean lan egin du Fernando Canalesekin. Euskadin ere, Arabako Refor jatetxean izan da Diego Guerrero chefarekin –bi Michelin izar dituen Stage jatetxeko sukaldaria da gaur egun–, Etxanobe jatetxean, eta Maiztegi Golf-en Mari Carmen Gonzalezekin. 15 urtez Mari Carmenekin lan egin ostean, Akebaso jatetxeko gidaritza hartu du; gaur egun, Bizkaiko ezkontza eta ekitaldi prestaketetan, onenen artean dago. Hala, **ezkontza perfektua** eginaz, bete zure ametsa, Akebason.



Izorne Luengo, Akebaso jatetxearen aurrean.



Alberto Elorza sukaldaria, Zelai Zabaleko plater arrakastatsu batekin.

## Zelai Zabal jatetxean, menu pertsonalizatuak

Oñatiko Zelai Zabal jatetxean **menu pertsonalizatuak** eskaintzen dituzte ezkontzetan. Egun handia baino bizpahiru hilabete lehenago ezkongaiak euren gurasoekin edo lagun batzuekin joaten dira, gehien ateratzen dituzten platerak dastatzera, eta bertan erabakitzen dute menua. Jatetxeko profesionalen ideiekin eta ezkongaien aurrekontura moldatuta, hasierako **plater "originalak"** eta "desberdinak" jartzen dituzte hasteko, eta arrainetan legatza edo itsas-zapoa, eta haragitan txerri-masailak edo solomilloa ateratzen dute gehien.

Askok hasieran **koktela** ere egiten dute, eta azkenaldian modan jarri da bazkaria geroz eta gehiago luzatzea, eta, ondorioz, **dantzaldiaren ostean mokadutxoak** ere ateratzen dituzte, nahi izanez gero. Gonbidatu kopurua dezentekoa izaten denean, gainera, **candy bar postua oparitzen** diete ezkongaiei, eta bertan, bazkalosterako gozokiak eta txokolatinak jartzen dituzte, besteak beste. Arrakasta handia izaten du horrek gaur egungo ezkontzetan, eta umeek bakarrik ez, heldu eta nagusiagoek ere gustura jaten dituzte.

**Erreserbak** egin nahi izanez gero, deitu 943 78 13 06 telefonora edo idatzi *restaurante@zelaizabal.com* helbidera. Gertutasun handiz hartuko zaituztete.







Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak.
- Parking handia.
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala.
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa…



**Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea**

*leku eta egun ahaztezinak*

Etxe-Aundi
Hotela · Jatetxea
Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
*etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com*

Iraila, urria, azaroa eta abenduan dena barne duen 90€-ko pack-a

## Dena barne duen 90 euroko 'pack'-a Etxe Aundin

Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen ditu Oñatiko Torreauzo auzoko XIII-XIV. mendeko Etxe Aundi jauregi ikusgarriak. Eloi Iartza sukaldeburuak urte askotako esperientzia dauka, eta Margarita Romariz arduratzen da ezkontzekin, ezkongaiei menuak erakutsi edota jantokiak ezagutzeko. **220 gonbidaturendako** lekua daukan jangela handi bat daukate, eta 100 lagunendako beste bat; ezkontza txikietarako, berriz, jangela pribatua ere badaukate.

Ezkonberrien zerbitzura egoten da **lantalde zabala** ezkontza egunean eta dena barne duen 90 euroko *pack*-a da euren berezitasuna. Horrez gain, **askotariko menuak** ere badituzte, ezkongaien gustuetara eta aurrekontuetara moldatzen direnak, gastronomia zainduarekin eta aukera zabalarekin. Besteak beste, arrakasta izaten dute krepeak txangurruz beteta eta abakando-entsaladak. **Terraza** egoki bat ere badaukate, bertan ezkontza zibilak ospa daitezen eta otorduen osteko dantzaldiak egin daitezen. Ezkontzetan espezializatutako jatetxea da eta parking handia ere badaukate kanpoaldean.

**Etxeaundi.com** helbidean aurki dezakezue informazio gehiago, eta, erreserbak egin nahi izanez gero, idatzi *etxeaundi@etxeaundi.com* helbidera.



Etxe Aundiko Eloi Iartza sukaldeburua, jatetxeko tximinia atzean duela.



Josune Ibabe eta Gorka Bolinaga, Gure Ametsako jangelan.

## Gure Ametsa jatetxea ezkontzetan erreferente

Gure Ametsa jatetxean esklusibotasuna dute ardatz, eta ezkontza pertsonalizatuak antolatzen dituzte ezkonberriek beraien eguna behar den moduan gozatu dezaten. Egunean eztei bakarra prestatzen dute, eta, berezia izan dadin, detaile txiki guztiak mimoz zaintzen dituzte; horregatik dira **ezkontzetan erreferente**.

Leintz Gatzagaren magalean dagoen jatetxe hori lorategi handi batek inguratzen du, eta kanpoan duen paraje eder eta leku handia aproposa da egun zoragarri bat ospatzeko. Horrez gainera, ezkongaien gustuetara eta aurrekontuetara moldatzen direla dio Josune Ibabe ugazabak, eta azken urteotan egiten dituzten ospakizunak geroz eta pertsonalizatuagoak izaten direla adierazi du, ez dagoela ezkontza estandarrik, eta ezta mugarik ere. Egun ahaztezina izateko osagai guztiak izanda, Ibabek azpimarratu du ezkontza baten jaten dena ere oso garrantzitsua dela, eta, horregatik, ukitu modernoak dituen **euskal sukaldaritza tradizionalaren** aldeko apustua egiten dute Gorka Bolinagak zuzendutako sukaldean. Aukera zabala eskaintzen dute, eta ospakizun ahaztezina nahi duenak Gure Ametsa jatetxera joan besterik ez du (*gureametsa.es*).





I.B

## Bederatzi gako Lirain Estetikan

Lirainek bederatzi gako eskaintzen ditu zure ezkontza egunean distiratsu egon zaitezen. Ezkontza baino bi hilabete lehenago, laser depilazioa: merkatuko teknologiarik aurreratuena eta seguruena. Gorputz tratamenduak: liluragarri egoteko, zelulitisaren, biguntasunaren eta koipe lokalizatuen aurkako tratamenduak. Aurpegi tratamenduak: larruazal garbia izateko eta ezkongaiei zuzendutako tratamendu pertsonalizatuak. Makillaje-proba: ezkontza egunean egokiena aukeratzeko eta irudi ezin hobea izateko. Ezkontza baino egun batzuk lehenago, zetazko azala: gorputzaren hidratazioa eta *peeling*-a distiratsu egoteko. Guztia zure begiradan, bekainen diseinua eta depilazioa: *lifting*-a, iraunkorra eta betileen tindatzea. Esku eta hanka perfektuak: epe luzerako azazkal-esmalteak. Mima ezazu zure burua: ezkontza egunean lasai egoteko masaje erlaxagarriak. Zentzumenentzat luxua. Ez ahaztu senargaia eta gonbidatuak: prezio bereziak haientzat ere.

## Seguruena, Leintz Garraioak

Arrasateko Leintz Garraioak konpainiak eskarmentu handia dauka ezkontza eta ospakizunetarako zerbitzuak eskaintzen. Ezkontzara doazen gonbidatuen segurtasuna bermatzen du, eta, autoa etxean utzita, modu atseginean, seguruan eta lagunartean bidaiatzeko aukera ematen du. Hala, lasaiago ibiltzeko eta arazorik ez izateko.



LEINTZ GARRAIOAK

## Pertsonalizazioa Chic Estilistetan

Chic Estilistak ile apaindegiko Monica Torok eta Nagore Vazquezek detaile guztiak zaintzen dituzte zure ezkontza egunerako. Ezkongaiaren jantziarekin bat datorren makillajea, ile bilduak, ezkondu aurretiko orrazkera proba ezberdin pertsonalizatuak… Arrasaten, Antso Abarka 6an, zure ezkontza eguna zoragarria izan dadin prestatuko zaituzte.



I.B




250 lagunentzako jantokia • Gustua eta luxua denon eskura • Bezeroentzako parking-a • Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...

Ozaeta jauregia - **BERGARA** • Tel.: 943 76 10 55

*www.restaurantelasa.es*

# Eztei-bidaia goxoenak debagoiendarren eskutik

Hainbat eta hainbat herrialdetan izan dira debagoiendarrak eztei-bidaian. Lekurik aproposenak, turismoa ahalbidetzen dutenak eta, era berean, atsedenerako eta plazererako tartea ematen dutenak izan ohi dira

Ezkontza bat prestatzea ez da batere erraza izaten. Izan ere, antolakuntzak hainbat urduritasun eta estres egoera sortzen ditu. Hainbat dira kontuan izan beharreko ezaugarriak: jatetxea, janzkera, musika, gonbidatuen antolakuntza, eta abar. Eta detaile horiek guztiak era egokian prestatzea zoramena izaten da ezkondu behar direnendako. Edozelan ere, ezkontza egun berezi eta politaren ondoren dator ezkonberriek gogo handiz itxaroten dutena: eztei-bidaia, hain zuzen.

**Bisitatutako herrialdeak**

Hainbat eta hainbat izan daitezke eztei-bidaien helmugak. Gehienetan, turismoa egitea ahalbidetzen duten tokiak izaten dira; baita atsedenerako tarte bat eskaintzen dutenak ere. Goienak horien nondik norakoak jakin nahi izan ditu, eta, beraz, azkenaldian ezkondu diren bikoteekin izan da, nolako eztei-bidaia izan duten jasotzeko. Ikusten denez, askotarikoak dira debagoiendarren bidaiak.



Rotorua geiserra bisitatu zuten Alain Martinezek eta Idoia Esnaolak.

## Thailandia gertutik ezagutzen

Thailandian izan ziren, 15 egunez, Maitane Davila eta Imanol Pavo. Eta han, Super Thai-Koh Samui deritzon ibilbidea egin zuten ezkonberriek. Lehenik, Bangkok bisitatu zuten, hiru egunez, eta hango leku esanguratsuenak ikusi zituzten; hala nola ur gaineko merkatua, Urrezko Budaren tenplua, Mae Klong tren merkatua, eta abar. Ondoren, hiriburutik iparraldera jo zuten hainbat leku bisitatzeko: Phitsanulok, Lampang eta Chiang Rai, hain zuzen ere. Horietan, bizikletan eta elefante gainean paseoak egin zituzten eta hango tribuengana ere gerturatu ziren. Azkenik, atseden hartu guran, Thailandia hegoaldeko Koh Samui uhartera abiatu ziren eta bost egun igaro zituzten han.



Chiang Rai-ko Wat Rong Khun tenplo zuria, Thailandian.

## Munduko beste punta: Zeelanda Berria

Zeelanda Berriko iparraldeko eta hegoaldeko uharteen zati bana ikusi zuten Idoia Esnaolak eta Alain Martinek. Hemeretzi eguneko eztei-bidaian, hainbat eta hainbat leku bisitatu zituzten. Lehenik, Waitomo kobetan izan ziren. Horietan, txalupan ibilbidea egin zuten eta ibilbide horren ezaugarririk esanguratsuena iluntasunean ikusten diren argi txikiak dira; izan ere, sabaia ipurtargiz beteta dago. Rotoruan ere izan ziren, eta bertan, maorien herrixka bat bisitatu zuten. Haien dantzak nolakoak diren ikusi eta bertako jana probatzeko aukera izan zuten. Horrez gain, Rotorua geiser ikusgarria bisitatu zuten eta Milford Sound fiordoetan ere izan ziren. Bigarren horretan, itsasontzian ibili ziren fiordoan zehar eta fokak eta izurdeak ikusteko aukera izan zuten. Fox deritzon glaziarraren gainean ibilbide txiki bat egin zuten, kranpoiekin, hain zuzen. Azkenik, bidaia amaitzeko, Australiara abiatu ziren. Sidneyn egon ziren eta hango toki ezagunenak bisitatzen ahalegindu ziren, soilik hiru egunez izan baitziren han. Horien artean, hain famatua den Opera Housen eta Badiako Zubian izan ziren. Eztei-bidaian ekintza asko praktikatu zituzten. Han sortutako *bungee jumping*-a, hemen zubi-salto bezala ezagutzen den arrisku handiko kirola, hain zuzen. Horiez gain, mendien artean hegazkin txiki batean ibilbidea egin zuten eta glaziar ezberdinetan eta itsasontzian ere izan ziren. Gainera, hango baserritarrekin egun bat igaro zuten, ardiei ilea nola mozten zieten ikusiz. Eta hango produktuak probatzeko asmoz, baserritarrekin afaldu zuten. Esperientzia paregabea bizi izan zuten eztei-bidaian, eta, norbait zalantzan egonez gero, hara joatea gomendatzen du bikote horrek.



Bikotea Fox glaziarrean.

Chic ESTILISTAK

Astelehenetik asteazkenera: **09:30 – 16:00**
Ostegunetan eta ostiraletan: **09:30 – 19:00**
Zapatuetan: **09:00 – 13:00**

Tel.: 943 04 10 07 | Antso Abarka 6
Zigarrola | Arrasate







*Zure ezkontza egunean dena izan behar da perfektua, eta izarra zeu zarelako…*



Leire Vitoria eta Joserra Larisgoitia, Japoniako landagunean, Naran.

## Japonia eta Bali ezagutzen hiru astez

Asian egon ziren eztei-bidaian Joserra Larisgoitia eta Leire Vitoria, Japonian eta Balin, hain zuzen. Euren asmoa bi bidaia mota egitea zen, turismoa egitea ahalbidetzen zuena, baina baita erlaxatzeko aukera ematen zuena ere. Horregatik aukeratu zituzten bi helmuga horiek. Japonia izan zen bisitatu zuten lehenengo lurraldea eta Osakan hasi zen bikote horren bidaia. Bertako lekurik esanguratsuenetan izan ziren, Osakako Gazteluan eta Kuromon Merkatuan, besteak beste. Hiriko zonatik aldendu nahian, Japoniako landagunera abiatu ziren, Narara. Bertan, urrezko gaztelua bisitatu zuten, oreinak ikusi zituzten eta Japonian hain ezagunak diren geishekin izan ziren. Beste landagune batzuetan ere izan ziren, Takayaman eta Geron. Azken horretan, Ryokan deritzon japoniako ostatu tradizional batean lo egin zuten. Tatamietan, zehazki. Japoniako Alpeetan ere izan ziren, Shirakawagon. Baita Tsumagon eta Hakonen ere; azken horretan, itsasontzian paseoa egin zuten Ashi lakuan zehar eta, gainera, bertatik Fuji mendia ikusi zuten. Ondoren, Tokiora abiatu ziren; eta, bertan, Japoniako hainbat lekutan izan ziren, eraikin modernoetan zein santutegi ezberdinetan. Bidaiaren bigarren zatia Balin igaro zuten. Tokiotik Ubud-era abiatu ziren; oihanean zegoen hotel batera. Bertan, Baliko tenplu edota leku esanguratsuenak ezagutzeko hainbat txango egin zituzten, hala nola Git Git ur-jauziak, Ulun Danu Beratan, Pura Beshakit, eta abar. Azkenik, eta bidaia amaitzeko, Jimbaranera joan ziren, hondartzan dagoen hotel batera. Eta, azken egun horiez lasaitasunean disfrutatzeko, hainbat hondartzatan izan ziren.



Kinkakuji Tenplua, urrezko gaztelua.

## New York eta Mexiko, helmuga erabat ezberdinak

New Yorken eta Mexikon izan ziren Nekane Lopez eta Haitz Arrieta eztei-bidaian. New Yorkera abiatu ziren hasieran, eta han bost egun igaro zituzten leku esanguratsuenak bisitatzen: Empire Estate Building, Crental Park, Roquefeller Centre, eta abar. Nekane Lopez *Sexo en Nueva York* telesailaren zale amorratua da, eta horrekin lotura duen ibilbidea ere egin zuten. Hain zuzen ere, telesaileko protagonistak egondako arropa dendetan, jatetxeetan, eta abarretan izan zen bikotea. Azkenik, Mexikora joan ziren, Tulumera, eta zortzi egun igaro zituzten hondartza xarmagarrietan, lasai.



Haitz Arrieta eta Nekane Lopez ezkontza egunean.

## Cuscon hilabetez

Amaia Agirrek eta Alex Gonzalesek Peru bisitatu zuten eztei-bidaian eta hilabete egon ziren han. Izan ere, Alex perutarra da, eta, Amaiak haren lurraldea ezagutu nahian, bertara jo zuten. Bikote horren bidaia Peru hegoaldean hasi zen, Cusco hiriburuan, hain zuzen ere. Hainbat gauza egin zituzten bertan: batetik, hiria ezagutu; eta, bestetik, gertu dauden tokiak bisitatu. Behin hiria ezagututa, Cuscotik hain famatua den Machu Picchura abiatu ziren eta Urambako bailaran dagoen El Valle Sagradon ere izan ziren. Quillabamba deritzon herri batera abiatu ziren horren ondoren. Bertan, oihanean txangoak egin zituzten eta ur-jauziak ikusteko aukera ere izan zuten. Azkenik, Peruko goi-lautada ezagutu guran, Punora abiatu ziren, eta, bertan, Titicaca lakuan izan ziren.



Amaia Agirre, Machu Picchun.

ZELAI ZABAL Restaurant

• Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako leku paregabea.
• 180 gonbidaturendako jangela.

Arantzazu auzoa 38 - OÑATI
Tel.: 943 78 13 06
www.zelaizabal.com / restaurante@zelaizabal.com



# Denbora luzean irauteko sekretuaren bila

Bikote arteko erlazioak ez dira batere errazak izaten eta horren testigu dira gaurko protagonistak. Hala ere, posible dela erakutsi dute; izan ere, bikote hauek hamarkadak iraun dituzte ezkonduta. Zein izango da euren sekretua?

Mende erdi baino gehiago iraun dute elkarrekin gaurko protagonistek. Egia da askotan bikoteen arteko erlazioa mantentzea ez dela lan samurra izaten, tartean izaten diren hainbat bizipen edota egoerek eragiten dutelako. Hala ere, badaude denbora luzean elkarrekin igaro duten bikoteak eta horietako bi dira Maria Teresa Altunaren eta Enrique Dolararen arteko erlazioa eta Amaia Gorroñogoitiaren eta Rafa Fernandezen artekoa. Oso polita da elkarrenganako amodioari denbora luzean eustea; izan ere, bi kasuetan, urrezko ezteiak ospatu dituzte. Euren bizipenak gertutik erakutsi nahi izan dituzte, eta, horretarako, euren ezkontza eguna, eztei-bidaia, urrezko ezteien ospakizuna, eta abar azaldu dizkigute, beste hainbat gauzaren artean. Luzaroan hainbeste denbora irauteko sekretuak bi dira, bikote horien esanetan: maitasunez eta errespetuz jokatzea, hain zuzen.



Amaya Gorroñogoitia eta Rafa Fernandez, Arrasateko parrokian ezkondu berri.

## 60 urte errespetuz

Mende erdi baino gehiago daramate ezkonduta Maria Teresa Altunak eta Enrique Dolarak. Hain zuzen ere, 1958ko urrian ezkondu ziren, Arrasateko parrokian. Ezkontza-banketea Oñatin oso famatua izan den Etxebarria jatetxean ospatu zuten familiakoekin eta lagunekin batera. Eztei-bidaian, Madrilen eta Bartzelonan izan ziren ia hilabetez eta bidaia ederra izan zela aitortu dute: "Gure eztei-bidaiaren oroitzapen ederra daukagu". Urrezko ezteiak ere ospatu zituzten eta honako hau aitortu dute: "Egun zoragarria izan zen hura, ederto baino hobeto ospatu genuen gure eguna familia guztiarekin batera". Hainbeste urte elkarrekin irauteko sekretua errespetua dela diote biek, eta jokabide horri eutsi diote urte hauetan guztietan.



Maria Teresa Altunaren eta Enrique Dolararen ezkontza eguna

## Hamarkadak maitasunez blai

Jada 60 urte pasa dira Amaya Gorroñogoitia eta Rafa Fernandez ezkondu zirenetik, eta inoiz baino maiteminduago daudela aitortu dute. 1957ko irailaren 19an ospatu zuten euren ezkontza Arrasateko parrokian, familiakoekin eta lagun guztiekin batera. Ezkontza-banketea Arrasaten izan zen eta egun haren gaineko oroitzapen oso goxoa dutela aitortu digute. Eztei-bidaian, Madrilen izan ziren eta bertako leku esanguratsuenak bisitatu zituzten: Erretiro parkea, hiriguneko kale ezagunenak, baita eraikin famatuenak, eta abar. Honez gain, Todelon ere izan ziren. Oso bidaia berezia izan zen hura bikotearentzat, esperientzia paregabea bizi izan baitzuten. Bidaia hartako anekdotak hainbat dira: "Lehen gauean Casa Vasca famatua zen jatetxean afaldu genuen; ederto, gainera. Baina afaria oso garestia atera zitzaigun eta eraman genuen diruaren erdia bertan utzi genuen", aitortu du Fernandezek, irribarrez. Gainera, garai hartan Madrilera joatea luxua zela onartu du bikoteak. Urrezko ezteiak ere ospatu zituzten Gorroñogoitiak eta Fernandezek; eta, orduan ere, anai-arrebak, seme-alabak eta bilobak izan ziren. Arrasateko parrokia izan zen bigarren ezkontza haren testigu, eta, ondoren, familia osoarekin bazkaria izan zuten. Egun hura oso berezia izan zen, familiarekin batera euren maitasuna ospatzen jarraitu baitzuten. Luzaroan hainbeste irauteko sekretua maitasuna dela esan dute, urte hauetan elkarrekiko maitasuna handitu egin baita. "Zorte handia izan dugu, asko maite dugu elkar eta maitasun hau iraunkorra da" aitortu du bikoteak.

Leintz
GARRAIOAK, S.L.



Urbano zerbitzuaz gain, txangoak, ezkontzak, sagardotegiak eta abar.

Leintz Garraioak S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com



Bikotea urrezko eztei egunean.



Bikotea urrezko ezteiak ospatzen


Elkoroberezibar, Ostolaza, Larrañaga, Arantzabal, Eraña, Alberdi eta Zabaleta, eguazteneko ekitaldiaren amaieran. ENEKO AZKARATE

# Pol-Pol, herriko DNAn oraindik

Pol-Pol Mendizale Taldearen 75. urteurreneko lehen ekitaldian txiki geratu zen Irizar jauregiko aretoa Migel Angel Elkoroberezibarren eta Amaia Arantzabalen aurkezpena bertatik bertara jarraitzeko; domekako herri bazkarian 130 bat lagun elkartuko dira

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Duela 75 urte hasitako ibilbidearen ostean, Pol-Pol Mendizale Taldea osasuntsu dago, Bergarako DNAn dago oraindik. Egun 700 bat bazkide eta 350 bat federatu izateaz gain, 1942ko martxoaren 15ean egindako sorrera batzarrak 75 urte bete zituen egun berean Irizar jauregiko areto nagusia goraino bete zen. Adineko jendea izan zen nagusi baina jende gaztea ere izan zen. Migel Angel Elkoroberezibarrek gidatu zuen saioa. Elkartearen ibilbidea kontatu zuen argazki eta irudi zaharrekin; modu azkar eta erakargarri baten, 75 urtek askorako ematen dute-eta. Bitxikeriak ere partekatu zituen, ikus-entzuleen gozamenerako.

### Lehena 8.000 metrotik gora

Ondoren, Amaia Arantzabal bergararraren txanda izan zen. 1992an zortzimilako bat –Cho Oyu, 8.201 metro– egin zuen lehen emakume euskalduna da Arantzabal: "Igoera oso gogorra izan zen. Josurekin [Josu Bereziartua mendizale azpeitiarra, egun bere seme-alaben aita] batera joan nintzen, azken herrixkan sukaldari bat kontratatu ostean. Hiruron artean muntatu genuen kanpamendu nagusia. Kanpoko laguntzarik gabe, garraiatzailerik gabe... Sentsazioa izan zen mendi erraldoi baten bi lagun ibili ginela bakarrik. Iruditzen zait gaur egun Cho Oyu horrela igo nahi izanez gero ere, ezinezkoa izango zela. Gaur egun jende asko joaten da Himalaiara, eta dena dago oso antolatua". Modu horretara igo izanak "poz handia" eragiten dio Arantzabali. Bestalde, zortzimilako bat igotzen lehen emakume euskalduna izateari garrantzia kentzen dio mendizale bergararrak: "Berezia bada, harrotasun puntua ematen dizu. Poza bai, baina kito. Ez zen hori helburua; azken baten, estatistika kontua da lehenengo izatea. Hurrengoei balio izan badie zortzimilako bat igotzeko, hori sekulako poza izango litzateke niretako. Baina ez dut uste horregatik eredua izan naizenik". 1980ko hamarkadan loraldia bizi izan zuen Pol-Poleko gaztetxoen sailaren barruan antolatutako hainbat ekintzatan hartu zuen parte Arantzabalek.


Irizar jauregiko aretoa txiki geratu zen 75. urteurreneko lehen ekitaldian. E.A.

Ekitaldira bueltatuta, Elkoroberezibarrekin batera solasaldi interesgarria izan ostean, bertaratutakoekin partekatu zuen Arantzabalek mendiarekiko duen pasioa, argazki zaharrak erakutsita. Amaieran, ikus-entzuleen txalo artean, lore sorta, kamiseta, zapia eta oroigarria jaso zuen Arantzabalek. Antolatzaileek Loli Larrañaga ere omendu zuten; Mont Blancera igo zen lehen emakume bergararra izan zen.

### Irteera eta herri bazkaria etzi

75. urteurreneko ospakizun ekitaldiak urte osoan zehar luzatuko dira. Mendi Astearen barruan, domekan mendi irteera egingo dute Azkarate eta Bergara artean. Ondoren bazkaria egingo dute Agorrosingo tabernan (14:30). Bazkalaurretik Alai taldeak abestuko du eta bazkalostean bertsolariak eta musika izango dira. Izen-ematea itxita dago, eta 130 bat lagun batuko dira. Hurrengo astean bi saio izango dira Irizar jauregian (19:00): hilaren 21ean *Bolt Proyect* filmaren emanaldia Mikel Uribesalgo eskalatzailearen eskutik eta hilaren 23an *Islandia, odisea y supervivencia* filma. Martxoaren 26an, berriz, udal bandaren kontzertua izango da frontoian (12:30). Pol-Polen ereserkia joko dute; letra Basarri bertsolariak egin zuen eta doinua Migel Gonzalez Bastidak. Gainera, urteurrenerako propio egindako kamisetak eta zapiak ere salgai dituzte.


J.B.

## "Herria oso ondo portatu da nirekin, jendeak laguntza handia eman dit"

**M.A. ELKOROBEREZIBAR**
POL-POLEN GAINEKO LIBURUA EGITEN ARI DA

Eguazteneko ekitaldia oso modu berezian bizi izan zuen Elkoroberezibarrek. Oso pozik zegoen aurkezpenaren amaieran.

**75 urte bete berri dira.**
Bai. Gaurko [eguazteneko] egunez bete dira 75 urte Pol-Pol sortu zela. Ospakizun polita eta berezia izan da. Herriko jende mordoa etorri da, aretoa gainezka izan dugu. Pozgarria da, benetan.

**Ospakizun ekitaldiek noiz arte iraungo dute?**
Urte osoan. Museoarekin, adibidez, hitzartu dugu erakusketa batzuk antolatzea. Urtean zehar bideo emanaldi gehiago egongo dira, denetarik izango dugu. Eta mendi ibilaldiak ere izango ditugu, zalantzarik gabe.

**Liburu bat ere prestatzen ari zara. Zer jasoko du? Noizko egongo da prest?**
Urteurren ospakizunei errematea emango diogu liburuarekin. Horretan nabil buru-belarri, bateko eta besteko informazioa jasotzen. Herria oso ondo portatu da nirekin, sekulako laguntza jaso dut jendearen partetik. Erretratu eta testigantza asko partekatu dituzte. Horrekin eta oraindik geratzen diren ekitaldi guztiak jasoz joango gara puzzle handi hau osatzen. Liburua urte amaieran kaleratzea espero dugu.



Zuhaitz landaketa iragartzeko asteon egin duten prentsaurrekoa. AHT GELDITU! ELKARLANA

# AHTaren aurka zuhaitzak landatuko dituzte etzi

AHT Gelditu! Elkarlana taldearen ekimenez, domekan Angiozarko frontoian elkartuko dira (10:30), aitzur banarekin, zuhaitzak landatzera joateko; azpiegitura horren kontrakoek uste dutenez, "gero eta arrazoi gehiago" dago AHTri ezetz esateko

**Jokin Bereziartua** BERGARA
AHT Gelditu! Elkarlana taldeak deituta, Abiadura Handiko Trenaren aurkako zuhaitz landaketa egingo dute etzi, martxoak 19, Angiozarren (10:30). Frontoian elkartuko dira eta aitzur banarekin joango dira zuhaitzak landatzera. Zergatik aukeratu duten Angiozar landaketarako? Bergarako lotunea, hiriburuetako sarbideekin batera, *Euskal Y*-aren "giltzarria" delako: "Bertan, lanak aurrera eraman ahal izateko arazo tekniko zein ekonomiko larriak dituzte, eta, hori dela eta, hasierako esleipenak baliogabetu ziren eta berriak atzeratzen ari dira", diote.

Domekako ekintzaren deitzaileen ustez, "gero eta arrazoi gehiago" dago AHTari ezezkoa emateko. Energia kontsumoaren gaia mahai gaineratu dute, besteak beste: "Hurrengo urtean, 400 kilovolteko Gueñes-Itsaso goi-tentsioko linea eraikitzen hasteko asmoa ei du Red Electrica de España enpresak eta AHTak behar duen energia hornikuntza asetzeko balioko lukeela diote. Gainera, Garoñako zentral nuklearra berriz ere irekitzeko asmoen berri izan dugu. Honek argi uzten digu AHTaren proiektua ez dela linea huts bat, eta, zabortegiez gain, beste hainbat osagai dituela".

### "Odoluste ekonomikoa"

Era berean, azpiegitura eragiten ari den eta eragingo duen "odoluste ekonomikoa" aipatu dute AHT Gelditu! Elkarlana taldekoek: "Espainiako Gobernuak 160 milioi euro ezarriko dituela aipatu zuen Iñigo de la Sernak, Sustapen ministroak. Geroago, beste 90 milioi euro aipatu zituen. Aldi berean, aurtengo aurrekontuetarako Jaurlaritzak beste 350 milioi erreserbatu ei ditu, baina kopuru hori handiagoa izan daiteke. Odoluste ekonomikoak ez du etenik; pobreek ordaindutako azpiegitura izango da, aberatsek bakarrik erabiltzeko".

**AHT GELDITU! ELKARLANA: "ODOLUSTE EKONOMIKOAK EZ DU ETENIK"**

### "Herritarroi galdetu gabe"

Bestalde, AHTaren bueltan darabilten "politika lotsagarria" salatu dute: "Adosten dutela esaten digute aurrekontuak zehaztu gabe, herritarroi galdetu gabe, datak zehaztu gabe... Aurpegira barre egiten ari zaizkigu; dena martxan dagoela helarazi nahi dute baina ez da horrela. Ezbehar ugari bizitu ditugu eta oraindik eta gehiago bultzatzen dituzte hainbat eta hainbat lan zehaztu gabe aurrera eramatearekin". Amaitzeko, deitzaileek uste dute oraindik garaiz dabiltzala AHT gelditzeko: "Zuhaitzak landatu lurra berreskuratu! AHTrik ez! Natura gure ardura".

## Erramu Zapatuko bazkarirako txartelak, hilaren 23tik aurrera

Geroago eta gertuago dago apirilaren 8a, Erramu Zapatua. Aurten ere Txapa Irratiak eta Xaxau konpartsak antolatuko dute egun berezi horretako herri bazkaria, eta, ohi bezala, txartelak aurrez salduko dituzte. Martxoaren 23an Irala kalean erosi ahal izango dira, 19:30etik aurrera. Pertsonako lau txartel erosi ahal izango dira gehienez.

## Pentekosteetarako kartel lehiaketa, apirilaren 19ra arte

Ekainaren 2tik 6ra ospatuko dira Pentekoste jaiak aurten eta, urtero moduan, Udalak egitarau ofizialeko azala ilustratzeko kartel lehiaketa deitu du. Irabazleak 400 euro jasoko ditu bonutan, herriko edozein komertziotan trukatzeko. Lanak Udaleko Kultura Zerbitzuan aurkeztu behar dira apirilaren 19ko 13:00ak baino lehen.

## Espoloiko frontoia berritu dute, 13.300 euro baliatu ostean

Mariaren Lagundia ikastetxe alboko pilotalekua txukundu eta konpontzeko lanetan aritu dira Udaleko langileak azken asteetan. Inpermeabilizatu, txukundu eta margotu egin dute frontoia, eta behin lanak amaituta erabilgarri dago dagoeneko. Ateka enpresak egin ditu lanok, eta 13.300 euroko aurrekontua izan dute.

## Korrikaren aldeko argazkia ateratzeko gonbidapena egin dute

Udalak gonbidapena egin die herriko kirol taldeei Korrikaren aldeko argazkia ateratzeko. Argazkirako kartelak jarriko dituzte aste bukaeran Agorrosin kirol guneko harreran, Udal pilotalekuko tabernan eta Labegaraietako tabernan. Argazkiak Iñaki Ugarteburu kirol teknikariari bidali behar zaizkio: *iugarteburu@bergara.eus*.


NIRE USTEZ

**ANDER BOLIBAR**

## Musika estiloak

Tapoi Fest hardcore musika jaialdiaren baitan Angiolillo liburutegiak gonbidatuta Ion Andoni del Amok bere *Party & Borroka* aurkeztu zigun Bergarako Kartzela Zaharrean. Han izan ginen musikaz, mugimendu sozialez, korronteez, nostalgiez, gaur egungo abangoardiez… gure denboraren zati handi bat eskaintzen diogun musikaren eta bere liturgiaren inguruan borobilean eztabaidan.

Nola ez, han atera ziren euskal musika definitzeko enegarren saiakerak, gutasunak musika estiloz banatzeko inertziak, korronte berriak postmodernizatzeko tik nostalgikoak, gazte lokalak, gaztetxeak, txosnaguneak… Baina ze gutxi hitz egin genuen 2017an inguruotan ditugun proposamen musikal interesgarriez. Lasai, bi aukera eder ditugu hurrengo asteetan: apirilaren 1erako jaialdi interesgarria antolatu dute *Halabalooza* irratsaioko kosmonautek. Gure gozamenerako BET jaialdiaren edizio berri bat etorriko da maiatzean.

*Egin ezazu zuk zeuk* filosofia bat da, ez musika estilo bat. RRVaz etengabe ari garela-eta, eztabaida zaharretan formak edukia jaten digu. Mugimendu hauen garrantzia ertzak plazara ekartzea da, musika tresna izatea eta gauzak beste modu batean egin daitezkeela erakusten jarraitzea.

OHARRAK

## San Joxepe elkartea

Martxoaren 23an batzar orokorra izango dute (17:00), ohiko deialdian. Bestalde, maiatzaren 8tik 11ra Kantabria aldera egingo dute irteera; Cabrales, Llanes, Santo Toribio de Liebana, Potes, Ribadesella, Cueva el Soplau, Covadonga eta Cangas de Onis bisitatuko dituzte, besteak beste. Izena eman behar da San Joxepeko bulegoan.

# Alberdi eta Santxo nagusi lau t'erdiko koadroetan

Soraluze pilota txapelketako promesa eta nagusien mailan Jon Alberdik eta Xabier Santxok jantzi zuten txapela, 22-17 eta 22-8 irabazita hurrenez hurren; antolatzaileak pozik daude: "Txapelketak hartu du izena, finaletan bereziki jende asko hurbildu da"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Amaitu da Soraluze lau t'erdiko pilota txapelketa. Martitzen iluntzean jokatu ziren finalak promesa eta nagusien mailan. Promesa mailan Jon Alberdi azpeitiarrak –urdin– Ioritz Egiguren tolosarra –gorri– hartu zuen mendean (22-17). Partidu ona, parekatua eta bereziki gogorra izan zen; hobeto hasi zen Egiguren eta 6-2 irabazten ere joan zen. Alberdi, baina, erreakziorako gaitasuna erakutsi eta pixkanaka nagusitzen joan zen. Nekea biengan igar zitekeen arren, Alberdik hobeto jakin zuen neke hori eta, bereziki, sakea kudeatzen.




Lau finalistak Reyes Azkoitiarekin eta Beñat Rezustarekin. JOKIN BEREZIARTUA

Nagusien mailan, Peru Labaka zizurkildarra –gorri– eta Xabi Santxo usurbildarra –urdin– lehiatu ziren txapelaren bila. Labaka hobeto hasi zen, 7-3 nagusitzen joateraino, baina partiduaren erdialdean behera egin zuen nabarmen. Santxo 8-11 irabazten zela amaitu zen partidua; tanto bat bestearen atzetik 8-22 amaitu arte. Haserre eta triste bukatu zuen Labakak baina halakoetatik ikasten da gehien. Santxok, berriz, iaz txapelketa berean jokatutako final kaskarraren arantza kendu zuen.

**Hurrengoa, 22. Bergara Hiria**

Pilotak ez du etenik izango Bergaran. Reyes Azkoitia eta konpainia laster hasiko dira 22. Bergara Hiria txapelketa antolatzen; apirilaren 25ean hasi eta ekainaren 5ean bukatuko da.



**JON ALBERDI (AZPEITIA)**
TXAPELDUNA PROMES MAILAN

"Partidu oso gogorra izan da. Tanto asko azkarregi saiatu naiz amaitzen, batzuetan botera atera behar nituela. Hamaseina berdinduta geundela tanto gogor-gogorra jokatu dugu; ordurako biok geunden nekatuta eta tanto hori irabazi eta sakea hartzeak min asko egin dio. Txapelketa oso garrantzitsua da niretako eta irabaztearekin oso gustura nago. Harmailak ikusita, badago pilotarekiko zaletasuna herri honetan. Poztekoa da".



**XABIER SANTXO (USURBIL)**
TXAPELDUNA NAGUSIEN MAILAN

"Aurkaria ni baino hobeto hasi da baina gero zorte txarra izan duela esango nuke. Zabaleko marran zein txapan amaitu dira tanto izan zitezkeenak... Gainera, animikoki gora egin dut aurkariak behera, nabarmen. Badakit izugarrizko maila duela eta horregatik emaitza hau ez da normala halako partidu batendako. Iaz ere finalean egon nintzen baina oso partidu kaskarra egin nuen; aurten kendu dut iazko arantza hori".



**REYES AZKOITIA**
ANTOLATZAILEA

"Txapelketarekin oso pozik gaude orokorrean. Hala ere, zapore gazia utzi digu azken finalak; oso ona zihoan baina ez dakit zer gertatu zaion Peru Labakari, behera egin du nabarmen. Finaletan bereziki jende asko egon da eta hori poztekoa da. Txapelketak hartu du izena eta hemen irabazten dutenetako askok jauzia ematen dute profesionaletara. Etortzen diren pilotari guztiak oso gustura etortzen dira".



Uriarte Donostiako belodromoan, iaz, Guinness errekorra ontzeko bidean. ARITZ GORDO

## Markel Uriarte elkarrizketatuko dute Ipintzakoek 'Galdegazte'-n

'Everesting Wheelie Challenge' erronka hizpide, besteak beste; martxoaren 22an Goiena telebistan, 21:30ean

**J.B.** BERGARA

Markel Uriarte txirrindulari aretxabaletarra izango da Goiena telebistako *Galdegazte* saioko hurrengo gonbidatua. Ipintza Institutuko Maialen Alkorta, Lide Burunza eta Garazi Kortabarria arduratuko dira Uriarteri galderak egiteaz, betiere, Jokin Bereziartua kazetariaren laguntzarekin. Ikasle bergararrek hainbat galdera egingo dizkiote Uriarteri; besteak beste, 2017rako bere buruari jarri dion errenka izango du berbagai ziklistak. *Everesting Wheelie Challenge* deritzon erronka gainditzen saiatuko da. Orain arteko "gogorrena" izango dela dio, eta ez da gutxiagorako. "Azken urteotan izena hartzen joan den erronka da. Everest mendiak duen altuera portu baten gora eta behera egitea da, bizikleta baten eta 24 ordutan. Hau da, egun berean eta portu baten, 8.848 metroko desnibela gainditu beharko dut. Metro kopuru hori lortu arte igo beharko dut portua". Eta ez da edozein portu izango: "Argi nuen Tourmalet izango zela. Izugarri gustatzen zait. Sekulako bistak, Pirinioetako mendaterik ezagunena izango da, seguruenik...". Sei igoera eta heren beharko du erronka gainditzeko: "Oso zaila izango da, baina ez ezinezkoa".

**Martxoaren 22an, 21:30ean**

*Everesting Wheelie Challenge* delako erronkaren gainean luze eta zabal egin du berba Uriartek, baina Ipintza Institutuko ikasleek beste hainbat konturen gainean ere galdetu diote: Donostiako Belodromoko Guinness errekorra –argazkian–, Orbea babesle izateak dakarrenaz edota enduro probez, adibidez. Elkarrizketa osoa Goiena telebistan ikusi ahalko da martxoaren 22an, 21:30ean hasita.

### Kromo bilduma egiteko aukera egongo da apirilaren 2ra arte

Abenduan jarri zuen abian bilduma Bergara Kirol Elkarteak eta azken fasean sartu da. Gaur hasita, promozio berezia egingo dute: bi pakete baten prezioan. Kromoak Tximeleta, Goxoak eta Sorgintxo gozoki dendetan, Bule, Depor eta Arkupe tabernetan, Osintxuko dendan eta Agorrosingo kantinan egongo dira salgai azken egunera arte.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Gerrako oihuak doinu bakezalez estaltzera

Bergarako Orfeoiak Karl Jenkins konpositorearen 'The Armed Man' obra taularatuko du apirilaren 1ean Udal Pilotalekuan. Gerraren eta bakearen gaineko hausnarketa sakona izan nahi duen emanaldi horretan, kolaborazio ugari izango dute Orfeoikoek

**Maite Txintxurreta** BERGARA
Apirilaren 1ean, zapatua, kontzertu berezia izango da Udal Pilotalekuan (20:30), Bergarako Orfeoiak antolatuta. Orfeoiaz gain, Bergarako Orfeoi Gazteak, Intxorta 1937 taldeak eta Camden Town dantza taldeak ere hartuko dute parte, baita emanaldi horretarako antolatutako zortzi musikariz osatutako ganbera-orkestrak ere –bi perkusio-jole, hiru tronpeta, organoa, pianoa eta biolontxeloa–. Karl Jenkinsen *The Armed Man* obra taularatuko dute.



Bergarako Orfeoiak iaz taularatutako *Adiemus Colores* ikuskizuna. IMANOL SORIANO

### Bakearen aldeko mezua

"Obra honek bakearen aldeko eta gerraren kontrako mezua eman nahi du", azaldu du Karlos Etxanizek, Bergarako Orfeoiko presidenteak. Bakearen aldeko meza bezala planteatuta dago obra, eta, interpretatuko dituzten hamabi piezetan, erlijio, kultura eta hizkuntza desberdinak agertzen dira islatuta.

Gerraren baitako egoera desberdinak jorratzen dira Karl Jenkinsen obra horretan, Orfeoiko presidenteak azaldu duenez: "Prestaketak, batailako uneak eta gerra pasatzean geratzen dena".

### "Gurera ekarrita"

"Gerra mundu guztian dago, baina, agian, guri gertuen tokatzen zaiguna gerra zibila da. Urte asko pasa diren, oraindik ere oso presente daukagu". Jenkinsek Kosovoko gerra sufritu zutenei eskaini zien lan hori, eta guk gurera ekarri nahi izan dugu".

Bada, horretarako, Intxorta 1937 elkartearen laguntza izan dute. "Alde batetik, istorioa hornitzen lagundu digute; esaterako, dekorazioarekin. Bestetik, errepresentazio baten ere parte hartuko dute, gerra zibil garaiko giroa irudikatuta".

Izan ere, Orfeoikoek azaldu dute gustatzen zaiela eurek taularatzen duten kontzertuek "zerbait gehiago" izatea, ez dadila izan obra originalaren erreprodukzio hutsa bakarrik izan.

40 pertsona inguruk dihardute Bergarako Orfeoian, eta horietako lau bakarlari lanetan ere arituko dira: Nere Ibarra (sopranoa), Ainara Uribesalgo (kontraltoa), Rafa Moñux (tenorea) eta Karlos Etxaniz (baxua).

Kontzertu horretan, arlo desberdinetan parte hartuko duten guztiekin batera, 100 pertsona inguru izango dira. Etxanizek eskerrak eman nahi izan dizkie kolaboratuko duten guztiei, Orfeoikideen izenean.

### Jenkins, bigarrenez

Iaz ere Karl Jenkinsen beste obra nagusietako bat taularatu zuten frontoian, *Adiemus Colores* ikuskizuna, hain zuzen, eta emanaldi arrakastatsua izan zen. Etxanizek azaldu du orduan dudatan egon zirela *Adiemus Colores* edo *The Armed Man* taularatu. Hala, iaz lehena egin zutenez, oraingoan, bigarrenarekin egin dute aurrera. "Obra oso polita da, gaurkotasun handikoa eta gure abesbatzarako oso aproposa", dio Orfeoiko presidenteak.

### Bideoz lagundutako kontzertua

Emanaldiaren ardatza musika izango den arren, kontakizuna laguntzeko bideoak proiektatuko dituzte. "Musikak gerra oso ondo irudikatzen du, baina, gainera, bideoarekin ikusleei lagunduko diegu egoera horretan koka daitezen".

Jenkinsek berak ere hala aurkeztu zuen obra, bideo irudiz lagunduta. Orfeoikoek, baina, bideo propioa egin dute, eta bertan, besteak beste, gerra zibileko irudiak ikus daitezke. Markel Castelo bergarararra arduratu da bideoa egiteaz.

### Sarrerak salgai

Kontzertu berezi horretarako sarrerak dagoeneko salgai daude, 10 eurotan, eta sarrera zenbakituak izango dira. Hain zuzen, *Pikupe.com*-en, Kutxabanken webgunean eta Pikupe Produkzioen Artekaleko bulegoan eskuratu daitezke.

**IKUSKIZUNERAKO SARRERAK SALGAI DAUDE DAGOENEKO PIKUPEN ETA 'KUTXABANK.ES'-EN**

## Arragoa bergararren kontzertua 'Saint Patrick's day' giroan

Galway's Irish Pub tabernan izango da emanaldia, eta mahaiaren bueltan doinu irlandarrak joko dituzte

Arragoa taldeak kontzertua eskainiko du gaur, martxoak 17, Galway's Irish Puben, Saint Patrick Irlandako patroiaren egunaren harira.

Bergarako musikari gazte zein helduek osatzen dute Arragoa: Nagore Sanz (txeloa), Asier Elorza (gitarra), Amaia Aranzabal (biolina), Eider Elorza (biolina), Miren Elorza (biolina), Jokin Askargorta (gitarra) eta Beñat Askargortak (biolina).

Formatu berezian egingo dute emanaldi hori; izan ere, ohiko kontzertu baten modura egin beharrean, mahai inguru modura izango da. "Irlandar ukitua eman nahi diogu. Hango pubetan espontaneoki sortzen den hori gurera ere ekartzea", azaldu du Amaia Arantzabalek. Iaz ere egin zuten antzeko emanaldi bat, eta errepikatzeko gogoz daude. "Berezia izango da", diote.

20:00etan hasiko dute emanaldia, eta ordubete inguruz ariko dira jotzen, afalordura arte. Afalostean, 22:00 aldera, berriro ekingo diote. Afalondoren lagun batzuek ere haiekin batera joko dutela aurreratu dute.

## Gerrako beteranoen zahartzaroa, umorez landua Zabalotegin

Domekan, martxoak 19, *Heroiak* antzezlana ikusteko aukera izango da Zabalotegi aretoan, 20:00etan. Sarrera: 8 euro.

Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Soroiz aktoreak dira protagonistak. Hiru gerra beteranoren papera jokatzen dute. Enrike, Gustavo eta Felipe gerran soldadu aritutakoendako zahar etxe batean bizi dira. Batak errenka egiten du, beste batek agorafobia dauka eta hirugarrenak, berriz, zorabioak izan ohi ditu sarri, gerraren ondorioz. Dena den, egoitzatik ihes egitea erabaki dute, artean nora joan pentsatu ez duten arren. Hortik abiatzen da antzezlaneko istorioa.

## Zuzeneko diskoa kaleratu du Fly Shit talde bergararrak

Bergarako Fly Shit hardcore talde beteranoak zuzeneko diskoa kaleratu berri du: *20 urte bira zuzenean*.

Taldearen 20 urteko ibilbidea jaso nahi izan dute disko horretan. Hala, taldearen orain arteko bost lanetako abestiak biltzen ditu diskoak, baita BAP! taldearen *Celosamente gordea*-ren bertsio bat. 17 kanta, denera.

Diskoko lehen 12 abestiak 2016ko otsailaren 13an Arrasateko Gaztetxean emandako kontzertu batean grabatu zituzten eta gainontzekoak, berriz, aurtengo otsailaren 11n Bergarako gaztetxean emandakoan. Txapa Irratiak zuzenean emititu zuen audioa da.

## Emakume ahotsez osatutako Vocalia abesbatza zuzenean

Bihar, zapatua, martxoak 18, Vocalia abesbatzak kontzertua emango du Mariaren Lagundiko elizan, iluntzeko zortzietan; sarrera doan da.

Hego Euskal Herriko hainbat lekutako 30 abeslari gaztek osatzen dute abesbatza hori, eta, hain zuzen ere, guztiak dira emakumezkoak. Basilio Astulez da zuzendaria. *A capella* musika egiten dute, nagusiki, abesbatza horretan, eta abesti klasikoak zein garaikideak kantatzen dituzte, Euskal Herrikoak zein nazioartekoak. 2000n hasi zuen Vocalia abesbatzak ibilbidea, eta, geroztik, hogei sari baino gehiago lortu ditu nazioarteko hainbat lehiaketatan.



Miren Oianguren eta Maialen Guridi teknikariak Irimo auzoko Irala lurretan. AMAIA TXINTXURRETA



## Bertako produktua bultzatuz

Lapatza baserriko Tomas Larrañaga nekazaritza ekologikoko aitzindarietako bat da. Martxan jarri den proiektuak, adibidez, Elay enpresara Lapatzako otarreak eramatea du erronka, langileek Antzuolako produktua etxera eramateko aukera izan dezaten.

# Lehen sektorearen bizia "guztion ardura" da

Industria eta zerbitzuak mantendu egin dira, baina lehen sektoreak beherakada izan du. Antzuolako lehen sektorearen egoera jakin guran, beherakadaren arrazoiak aztertu eta irtenbideak bilatu gura izan dituzte aurkeztutako proba pilotuarekin

**A.T. / M.A.** ANTZUOLA

Herriko baserritarren egungo egoera aztertu eta etorkizunerako erronkak zehaztu dituzte Antzuolan. Deba Garaia Landa Garapen elkarteak Udalarekin, Hazi Fundazioarekin eta Diputazioarekin batera aurrera eramandako proiektua da. Antzuolarrei, hain justu, zein den lehen sektorearen egoera azaldu berri diete. "100 baserri daude Antzuolan. Baina 150 esplotazio daude; hau da, baliteke baserri batean bi familiak jardutea lehen sektorean edo baserrian bizi ez denak ere nekazaritzan jardutea", azaldu du Miren Oianguren teknikariak. "Egitura ekonomikoaren %1 bakarrik da. 2001ean hirukoitza zen jarduera, eta, horri erantzuna eman guran, proiektu hau martxan jartzea erabaki zuen Udalak". Helburua lehen sektoreari ere kutsu soziala ematea dela dio Beñardo Kortabarria alkateak. "Herri proiektu bat da, eta, Antzuolan funtzionatzen badu, zergatik ez zabaldu?". Sektorea aurrera eramateko pisua gizarte osoarena da, ez baserritarrarena soilik", dio Oiangurenek.

**Sinergia positiboak**

Baserritarren eta herritarren arteko sinergia positiboak bilatu gura dira. "Baserritarrekin, herriko enpresekin, komertzio txikiekin, tabernariekin, jatetxeekin eta Udalarekin batu gara, lehen sektorea bultzatzeko hartu daitezkeen neurriak aztertzeko". Sektorea zaharkitua dagoela ere badiote, eta belaunaldi aldaketa dela erronketako bat. –batez besteko adina 50-60 urte da–. "Egoera ez da ona, sektorea gaztetu eta belaunaldi aldaketa bermatu behar delako".

**Bertakoa bultzatu**

Bertakoa kontsumitzea eta bultzatzea garrantzitsua dela azpimarratu dute eta hauxe azaldu dute: "Herritarrek ekonomia zirkular hori martxan jartzea garrantzitsua da. Kanpoko produktuen konpetentzia handia da eta dirua kanpora bidaltzeak ez du laguntzen".

**Lurren erronka**

Baserritarrek –abeltzain eta artzainak, bereziki– larre gehiagoren beharra dutela ondorioztatu dute. Maialen Guridi teknikariak dio egun basoak diren lurrak zelai izateko bidea aztertzen dihardutela. "Erronka da baso-lur horiek zelai bilakatzea baso-jabeekin hitz eginda eta akordioetara iritsita. Baserritarren egunerokotasuneko arazoei, Udalaren laguntzaren bitartez erantzuna eman gura diegu". Era berean, hurrengo erronka basogintza dela azaldu dute teknikariek.

## Alex Txikon izango da Mendi Asteko protagonistetako bat

Arrola taldeak bigarrenez ospatuko du Mendi Astea; mendizaletasuna sutatzea du helburu elkarteak

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Martxoaren 28tik 30era bitartean, Arrolak Mendi Astea ospatuko du. Iaz bezala, dokumentalak, film emanaldiak eta solasaldiak izango dira. Herritarren artean mendizaletasuna sustatzea da Antzuolako mendi elkartearen helburua.

Egitarau zabala antolatu dute. Eta indartsu hasiko dute, gainera, Mendi Astea. Izan ere, martxoaren 28an, martitzena, Alex Txikon etorriko da Torresoroara. Bertan, Everesten bizi izan berri duen egoera gogorraz eta izandako bizipenaz eta sentimenduez jardungo du mendigoizale bizkaitarrak. Torresoroan eskainiko du solasaldia.

Martxoaren 29an, eguaztena, herriko seme baten txanda izango da: Ugaitz Iturbe antzuolarrarena. Iturbek Olaran etxean eskainiko du berbaldia.

Martxoaren 30ean, egubakoitza, Mendifilm jaialdian aurkeztutako film laburrak eskainiko dituzte Torresoroan.



Alex Txikon iaz Arrasaten eskainitako solasaldian. GOIENA

# Berdintasuna festa giroan aldarrikatu dute

Jai giroan ospatu dute antzuolarrek bigarren Olatu Morea lasterketa. "Oraindik egiteko asko" dagoen arren, Berdinbidean planarekin jarraituko du Udalak lanean; aurten, herriko gaztetxoekin diharduten dinamizatzaile edo monitoreak heziko dituzte

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Festa morea ospatu dute antzuolarrek, bigarrenez, asteburuan. Gaztetxo zein helduek emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna aldarrikatu dute. Eta hori ikusarazteko eta zabaltzeko, lasterketa aurretik banatutako globoetan nork bere mezua idatzi zuen. Amaieran, globo guztiak aireratu zituzten.

Eta aurten ere, udaletxeko balkoitik mezua zabaldu gura izan zien herritarrei ikasle talde batek. Hala, bosgarren mailako neska-mutilek egindako bertsoa abestu zuten.

"Aldarrikapena egin beharra dago; baita borroka egunero ere; baina egun bat jai giroan ospatu gura izan dugu. Gaztetxoei eman diegu hitza gaur eta eskolan prestatutako bertsoa eskaini digute. Berdintasunean heztea garrantzitsua da eta txikitatik hasi behar dugu lanean", azaldu du Gizarte Ongizate zinegotzi Alaitz Igartzabalek. "Aurten, Berdinbidean planari jarraiki, gaztetxoekin dabiltzan monitore edo dinamizatzaileak berdintasunean hezi gura ditugu; horixe bera da aurtengo erronka".


Olatu Morea lasterketako parte hartzaileak irteera unean, plazan. IMANOL SORIANO


Lasterketa aurretik globoetan mezuak idatzi zituzten. IMANOL SORIANO

**Argazki erakusketa**

*Antzuolako emakumeak lanean* erakusketa bisitatzeko aukera ere izan dute herritarrek asteburuan. 92 lagunek bisitatu dute erakusketa. Antzinako ogibideak eta egungoak bertatik bertara ikusteko aukera eskaini du 55 argazkiz osatutako erakusketak. Herriko emakume langilea ikusarazi gura izan dute.

**"BERDINTASUNEAN HEZTEA OSO GARRANTZITSUA DA; TXIKITATIK HASI BEHAR DUGU LANEAN"**


*Antzuolako emakumeak lanean* erakusketa Olaranen. MAIDER ARREGI

## "Lasterketa eroa dagoen momentua apurtzea gogoko dut"

**ARITZ KORTABARRIA** TXIRRINDULARIA

Zortzi urte daramatza txirrindularitzan Kortabarriak. Egun, Zarauzko Eulen –Gira-Bira– taldean dihardu

**M.A.** ANTZUOLA

Denboraldia hasi berri du Aritz Kortabarria txirrindulari gazteak (Antzuola, 1997). Otsailean egin zuen aurkezpena Zarauzko Gira-Bira taldeko elastiko berriarekin. Martxoan egingo den Gorlako igoerarako gogotsu dagoela aurreratu du.


Aritz Kortabarria. MARTYN EARLY

**Nola hasi duzu denboraldia?**

Hasi berri, eta sasoia hartzen ari naiz. Lasterketa batzuetan igarri dut, baina espero dut helburu dudan erritmoa azkar hartzea eta pixkanaka hobetzea.

**Belauneko lesiotik errekuperatuta?**

Bai. Iaz, denboraldi bukaerarako emanda nion buelta eta aurten ondo nago.

**Asteburuan Lehendakari txapelketako lasterketak izan zenituen. Zer moduz ikusi duzu zure burua?**

Lan egitea tokatu zait; kasu horretan, helmugaratzearekin pozik nago. Gainera, gero, taldeak ondo erantzuten duela ikusita gustura. Jon Madariagak podiuma egitea lortu zuen, eta pozik!

**Non sentitzen zara erosoen?**

Goraka sentitu izan naiz eroso beti; orain, baina, maila handiagoa da, gehiago kostatzen da. Lasterketa eroa dagoenean momentua apurtzea gustatzen zait.

**Giro ona duzue taldean?**

Oso gustura nago; oso giro ona dugu. Zuzendari gazteak ditugu eta umore ona dago taldean. Lanerako serio jarri behar denean, baina, jartzen gara.

**Eta hilaren 26an Gorlako igoera.**

Bai. Poza ematen du etxe inguruan lasterketa egiteak. Ea nola irteten den.

**Lokatzako txirrindularitza eskolan hasia zara.**

Eskerrak ematea besterik ez. Asko ikasi nuen. Horrelako talderik gabe ezinezkoa da aurrera egitea. Lokatzan batera ibilitakoekin harreman ona dut eta entrenatzeko ere elkartzen gara: Aristi, Arregi...

**Helburua?**

Apirilerako lasterketa txukunak egitea eta aurreneko taldean sartzea postu batzuk eginez.

### Talde lana da gakoa

Talde lanaren garrantzia azpimarratu du 23 urtez azpiko txirrindulari antzuolarrak. "Lan egitea eta gero taldearen erantzuna eta emaitza ona dela ikustea oso pozgarria da".


Kortabarria igoera batean. MARTIN EARLY

**puntua**

ALDIZKARIAK
**100** ZENBAKI

IRAKURTZEKO
**100** ARRAZOI

**1** **“Euskaraz bizitzeko, jarrera aktiboa izatea ezinbestekoa da”**


JUANMARI AGIRREURRETA
Loramendiko zuzendaritza batzordeko kidea

**2** **“Bertako proiektu txikien lehenengo ausardiaren euskarri delako”**


KATALIN ANTXIA
Diseinatzailea

**3** **“Aldizkari osasuntsu honek gure gaiak modu osasungarrian jorratzen dituelako”**


IÑAKI PEÑA
Medikua

**4** **“Ez dago urrun joan beharrik, inguruko jendearekin gauza asko ikas daiteke”**


JANIRE LAMARIANO
Kimika organikoan doktorea

**5** **“Puri-purian dauden gaiak gertutasunez eta modu ulerkorrean adierazten ditu”**


MIKEL ARANBURU
Finantza-erakunde bateko langilea

**6** **“Urruti bizi garenontzat Debagoiena bertatik bertara”**


MIGEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR
Irakaslea

**7** **“Nire iritziak trabarik gabe aditzera emateagatik”**


LOURDES MARTINEZ
Diseinatzailea

**8** **“Osasun arloko gai garrantzitsuak plazaratzen ditu”**


IÑAKI BARRUTIA
Psikologia klinikoan espezializatutako psikologoa

**9** **“'Puntua' irakurtzen dut, aisialdian oraindik ezagutzen ez ditudan paraje eta liburuak ezagutzeko”**


ITSASO PAGOAGA
Olgeta jolaserako baliabide teknikoak

**10** **“Artikuluak gure artean ditugun adituek eginak dira, guk eta guretzako egina”**


BEÑAT UNTZUETA
Informatikaria

**11** **“Mugikorren gaietan 'on line' egoteko oso lagungarria zait”**


GOTZON ARZELUS
Batura Mobile

**12** **“Eragiten gaituzten gaien inguruko begirada sakonagoa eskaintzen digulako euskaratik eta euskaraz”**


MADDI IÑARRA
Giza Zientziak eta Komunikazioan lizentziaduna

**13** **“Bertako zein kanpoko gaiei, bestelako ikusPuntua ematen dielako”**


MIKEL GONZALEZ DE MARTIN
Realeko jokalaria

**14** **“Gure euskal hizkuntzari oihartzuna eta bizia emateko”**


EÑAUT MUXIKA
AEDko presidentea

**15** **“Joera teknologikoen berri gertuko adituen ahotik jasotzeko aukera ematen dit”**


MIREN ORMAZABAL
Huheziko irakaslea

**16** **“'Puntua'-k prezio honetan eskaintzen duen kalitatea luxu hutsa da”**


JOXEFE DIAZ DE TUESTA
Euskara teknikari ohia

**17** **“Autoa ‘Puntua'-n ipini ondoren, 'pole position'”**


AITOR ZABALETA
Pilotua

**18** **“Larunbatero 'Puntua' irakurriz gosaldu. Hori bai inbertsio ona!”**


MARTA LETURIA
Batu&Banatu enpresako arduraduna

**19** **“Orokorrean, artikuluak onak eta ondo borobilduak dira”**


AITOR ANTXIA
Irakaslea eta historialaria

**20** **“Hezkuntza gaiez gain, haurrekin jolastu, sukaldean egin eta naturaz gozatzeko ideiak ematen dituelako”**


ARIANNE KAREAGA
Lankiko kidea

**21** **“Ez dago Euskal Herrian aldizkari asko 'Puntua'-k duen diseinu mailarekin”**


GOIO ARANA
Huheziko irakaslea

**22** **“Geurea delako; gainera, nire Instagramen jarraitzaile ugari egiten lagundu dit”**


ENEKO PRAT
Moda jarraitzailea eta joeren ikertzailea

**23** **“Atzoko harribitxiak gogora ekartzeko eta bihar etorriko direnak ezagutzeko ezinbestekoa da 'Puntua'”**


AMAIA PAVON
Huheziko irakaslea

**24** **“Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzen du, bertako eta gertuko berriak irakurriz”**


PEIO ANDRINUA
Jarduneko presidentea

**25** **“Handitzen-handitzen irakurtzean txikitzen-txikitzen goazelako”**


DORLETA KORTAZAR
Ipuin kontalaria

**26** **“Aldizkari entretenigarria; baita moda munduko tendentzia eta azken nobedadeetan ere”**


IGOR ZUAZOLAZIGORRAGA
Estilista eta irudi aholkularia

**27** **“Aldizkariaren diseinuagatik; asko zaintzen dutela begi bistan dago”**


DANI LASKURAIN
Artista

**28** **“Inguruko egunkarietako aldizkarien modukoa: denetariko gaiak, baina gertutik eta euskaraz”**


ELENA LAKA
Abokatua

**29** **“Hizkuntza berdintasunera iristeko, euskarak behar ditu 'Puntua' bezalako produktu lehiakorrak”**


MIKEL IRIZAR
Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria

**30** **“Osatzen dugun komunitatea ikusarazi eta balioan jartzen duelako”**


LARRAITZ ZEBERIO
Kazetaria

**31** **“Moda aldakorra da, eta 'Puntua' beti adi datorrenarekin”**


AINHOA GARITANO
Moda aditua

**32** **“Ikus-entzunezkoen arloko berrikuntzek beti izan dute lekua 'Puntua'-n, horrexegatik interesatzen zait”**


GORKA ETXABE OTADUI
Arteman Komunikazioko zuzendaria


Puntua 4.000 etxe baino gehiagotan jasotzen dute Debagoienean.
Oraindik jasotzen ez baduzu, eskaintza berezia daukagu zuretako:
**jaso astero, urte bukaera arte, 40 euro ordainduta.**
**943 25 05 05 | goienakluba.com | 688 69 00 07**

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Nerea Zubia eta Irati Etxeberria zinegotziak eta Mikel Biain alkatea, Sieteventosen. MIREIA BIKUÑA

# Oinezkoendako gune bihurtu da herrigunea

Kale Zaharra, Kale Barria, Atzeko Kale eta Sieteventos, oinezkoendako gune izango dira aurrerantzean, 12:00etatik aurrera. Azken honen kasuan, proba pilotua izango da eta 3 hilabete iraungo ditu. Komertzioak kezkatuta azaldu dira

**Miren Arregi** OÑATI

Zazpibideta edo Sieteventosko bidegurutzea oinezko gune bihurtu da eguerditik aurrera. Eguaztenean eman zitzaion hasiera proba pilotuari eta hiru hilabete iraungo du. Hala, Unibertsitate etorbidetik, Aita Madina kalean hasi eta Maiatzaren Bata plazaraino, ezin izango da autoz pasatu, 12:00etatik aurrera. 07:15etik 12:00etara zabalik egongo da era guztietako ibilgailuendako eta 12:00etatik aurrera soilik pasatu ahal izango dira garraio publikoa eta bizikletak. Hori, astelehenetik zapatura arte; izan ere, domeka eta jaiegunetan itxita egongo da zatia eta soilik oinezkoak, bizikletak eta garraio publikoa ibili ahal izango dira.

Bide mozketa horrek San Anton kalean ere izango du eragina, Sieteventostik pasatu ezin diren ibilgailuak San Anton kalean barrena joan ez daitezen, kale hori ere itxi egin baita, eguerditik eta Zumeltzegi dorrerako bidegurutzetik aurrera. Hemen ere, baimendutako ibilgailuek soilik jarraitu ahal izango dute San Anton kalean barrena, Zumeltzegi dorreko bidegurutzetik aurrera.

### Kale Zaharra eta Kale Barria

Hain zuzen ere, mugikortasun planaren baitako beste neurri bat da Kale Zaharra, Kale Barria eta Atzeko kale, oinezkoendako gune bihurtzea. Hala, baimendutako ibilgailuak bakarrik sartu ahal izango dira "txartela erakutsita", 08:00etatik 12:00etara. 12:00etatik aurrera oinezkoak soilik ibili ahalko dira.

Neurri horien guztien helburua da, besteak beste, oso hurbil dauden bi oinezko gune bateratzea: "Plaza aldea eta Kale Zaharra bateratzea, adin eta era guztietako herritarren bizi kalitatea hobetzea, oinezkoei lehentasuna ematea eta baita merkataritza sustatzea ere", adierazi du Hirigintza zinegotzi Irati Etxeberriak. "Mugikortasun jasangarriaren ereduan ari gara aukerak ematen; hor daude herri-busa eta auzo-taxia eta aparkaleku araudi berria ere bai", gaineratu du.

**KALE ZAHARRA ETA KALE BARRIA, SOILIK OINEZKOENDAKO GUNE IZANGO DIRA 12:00ETATIK AURRERA**

### Merkatariak kezkatuta

Neurri horiekin guztiz konforme ez daudenak Kale Zaharreko merkatariak dira. "Beldur handia dugu, ondorio txarrak ekarriko dituela uste baitugu", jakinarazi du Igone ile-apaindegiko Igone Ugartek. Eta gaineratu du: "Badugu autoan ibiltzen den bezero profil bat eta itxiturarekin horiek kanpora bideratzen direla uste dugu. Izan erdigunetik kanpora, edota Arrasatera edo Gasteizera. Hori bezeroek eurek ere esan izan digute, gainera", gaineratu du.

## 'Blai Blai' prozesuari hasiera emango dio Kilometroak 2017k

Helburua da irailaren 24an, Kilometroen egunean, umeek eurek proposatutako gune bat egotea

**Miren Arregi** OÑATI

Iaz Bergaran hasi zuten *Blai Blai* prozesuak jarraipena izango du aurten Oñatin. Herritarren ekarpenetatik abiatuta, Kilometroak jaiaren egunean umeendako sortuko den guneak nolakoa izan behar duen eztabaidatuko da prozesuan zehar.

Astelehenean hasiko du Oñatiko Txantxiku Ikastolak prozesua. Hain zuzen ere, egun horretan, 18:30ean, kultur etxeko erakusketa gelan, Bergarako *Blai Blai* proiektuan parte hartu zutenek euren esperientziaren berri emango baitute. Lehenengo fase honetan, helburua da, prozesuan parte hartuko duten herritarrak aukeratzea eta taldea osatzea. Bigarren fase baten egingo dira ekarpenak, eta egunean bertan umeen guneak izango duen itxura erabakiko da.

*Haurren Hiria* proiektuan du oinarria *Blai Blai* prozesuak. Francesco Tonucci pedagogo italiarrak abian jarritako filosofiaren gauzatzea jasotzen du. Hiria eta haren antolaketa umeen begiradatik ikusten hasteko beharrean oinarritzen da.


IMANOL GALLEGO

## Bizipenak kontatu ditu Erkiziak

*Bizipenak eta hausnarketak* liburua idatzi du Tasio Erkiziak eta martitzenean kultura etxeko areto nagusian aurkeztu zuen. "Biografia soila baino gehiago, lekukotasun politiko bat da. Belaunaldi baten ametsak, galerak eta lorpenak partekatzen dira", azaldu zuen egileak. Apaiz zenetik Oñatirekin duen harremana aipatuz hasi zuen hitzaldia.

## Tailerrak bihar eta bisitak prezio erdian etzi Arrikrutzen

Lurpea elkarteak antolatuta, Kobazuloen Eguna ospatuko dute asteburuan Euskal Herriko hainbat kobatan. Tartean, Arrikrutzen.

Zortzigarren urtez, lurpeko altxorrak bistaratzeko ekimen bereziak antolatu dituzte kobetan zapaturako eta domekarako. "Arrikrutzen, esaterako, arkeologia esperimentalean oinarritutako tailerraren bitartez ikusiko dugu garai bateko gizakiak sua nola egiten zuen edo nolako animaliak bizi ziren duela urte asko. Domekako bisiten sarrerek erdia balioko dute", azaldu du Lide Zumaldek. Ekintza hauetara joan gura duenak aurrez deitu behar du: 943 08 20 00. Sarrerarekin batera, Lurpea elkarteko kobazuloak bisitatzeko eta landetxe batean egoteko sariak zozketatuko dituzte.



Lagrimas de Sangre talde kataluniarreko kideak; Sangre de Mono taldearekin batera joko dute gaztelekuan. LAGRIMAS DE SANGRE

# "Oñati suntsitzeko asmoarekin gatoz"

Herriko gazte batzuek proposatuta dator gaur Lagrimas de Sangre talde kataluniarra gaztelekura, 22:00etan. Udalarekin batera antolatu dute kontzertua eta oso harrera ona izan du: 330 sarrera baino gehiago saldu dira aurrez. 'Sold out' izatea espero da

**Oihana Elortza** OÑATI
Herriko bi gazteren ideia izan da Lagrimas de Sangre taldea Oñatira ekartzea. Gaztelekuko arduradunarekin jarri ziren harremanetan eta proposamena elkarrekin gauzatu dute alde biek. "Taldeko managerrarekin jarri nintzen harremanetan eta gauza batzuk lotu genituen, baina gazteek egin dute beste lan guztia. Beraiek egin dituzte kartelak, sarreren salmenta antolatu eta beste. Gaurko emanaldian ere egongo dira lanean", azaldu du Gazte Saileko teknikariak, Jon Lopezek.

**Kontzertua**
Talde kataluniarreko kideek ere pozik hartu zuten Oñatitik egindako proposamena. "Jakin genuen Oñatiko herritar batzuek zutela interesa guk hor jotzeko, eta bira antolatzerakoan kontuan hartu genuen herrietako bat izan da Oñati. Harremanetan jarri ginen eurekin, eta bagoaz", esan dute taldekideek.

Diote Oñatiko kontzertua festa handi bat izatea espero dutela: "Bira oso ondo doa eta sekulako indarrarekin helduko gara gaztelekura. Harrituta eta pozik gaude gure bira honek orain arte izan duen erantzunarekin. Euskal Herriko jendeak beti ondo hartu gaitu eta ziur gaude ikustera datozenek oso ondo pasako dutela. Oñati suntsitzeko asmoarekin gatoz".

Nolako kontzertua izango den ere pentsatu dute: "*Viridarquía* laneko kantuak joko ditugu, batez ere, baina *Si uno no se rinde* eta *La Real Música Explícita* lanetako kantuak ere entzungo dira, noski. Oso emanaldi borobila izango da. Horixe eskaini dugu aurretik egindako saioetan ere eta entzuleek asko disfrutatu dutela ikusi dugu. Oñatin, baina, egongo da berritasun bat. Gure ohiko gitarra jotzailea, Rama Lama, beste proiektu batean dago, eta asteburuan Enric Peinado izango da gurekin".

**GAZTEETAKO BAT SOINU-MAHAIAN EGONGO DA ETA ONGIETORRIA EGINGO DIE BESTEAK**

**Sarrerak**
Lagrimas de Sangre Oñatira ekartzeko proposamena egin duten gazteak arduratu dira sarreren salmentaz. Oñati eta Arrasateko tabernetan jarri zituzten salgai eta helbide elektroniko bat ere sortu zuten horretarako. 330 baino gehiago salduta daude dagoeneko; 370 lagunendako tokia egongo da gaztelekuan; beraz, sarrera guztiak saltzea espero dute. Gazteetako batek egingo die ongietorria taldeko kideei eta bestea eurekin batera egongo da soinu-mahaian. "Lan handia egin dute gazteek. Pozik hartzen ditugu horrelako proposamenak", dio Jon Lopezek. Sarreran eta tabernan *Lekaixoka!*-ko talde bat egongo da.


NIRE USTEZ

**AITOR UGALDE**

## Hamar minutuko solasaldia

Hamar minutu, horixe da etxetik kotxean abiatu eta Lanbideko bulegora heltzeko behar duen denbora, minuturen bat gora edo behera; baina berak ez dauka kotxerik. Oinez ere joan daiteke, langabezian egonda, denbora nahikoa dauka horretarako, baina ibiltzeko kemenik ez. Autobusean joatea da beste aukera bat, etxetik hurbil dauka geltokia eta Lanbideko bulegoaren ondoan geratzen da autobusa. Baina ez, berak kotxean joan nahi du, edo furgonetan, edo kamioian. Beste norbaitek eramatea nahi du.

Horretarako jartzen da bide bazterrean autostop egiten. Gutxi dira orain autostop egiten dutenak, gidariak ez daude geratzera ohituta, eta asko kostatzen zaie geratu eta bide bazterrekoa hartzea. Hori badaki, baino ez zaio inporta. Batzuetan denbora asko egon behar izaten du norbait geratzen zaion arte, baina zerbait baldin badauka denbora da. Berak ez dauka ordu jakin baterako heldu beharrik, eta ezta presarik ere ailegatzeko, gidaria motel ibiltzen bada nahiago. Berari bidaia motz hori inporta zaio, hamar minutuko solasaldi bat izatea, egunean zehar beste norbaitekin hitz egingo duen une bakarretakoa izango delako.

# Oñatin jokatuko duen azkena da gaurkoa Abel Barriolarendako

Jokin Altuna izango du alboan; lehenengoa izango da harendako. 22:00etan da partidua, Zubikoa kiroldegian

**O.E.** OÑATI
Datorren hilean utziko du pilota Abel Barriola leitzarrak. Hala, gaur, egubakoitza, izango da Oñatin jokatuko duen azken aldia. "Hemen jokatuko duen azkena izango da, bai. Eta berarekin Jokin Altunak jokatuko du. Harendako, berriz, Oñatin profesional moduan jokatuko duen lehen partidua izango da", azaldu du Aloña Mendiko pilota saileko Josu Osak. Ezkurdia eta Merino izango dira haien aurka jokatuko dutenak.

Partidua 22:00etan hasiko da Zubikoa kiroldegian, eta, horren aurretik, promozioko binakako finalerdia jokatuko dute Arteagak eta Erasunek osatuko duten bikoteak Lasoren eta Iturriagaren kontra.

Aloña Mendiko pilota sailak 50 urte egiten ditu aurten eta urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldietako bat izango da gaurko partidua. Gehiago ere egingo dituzte urte barruan. Hilaren amaieran aurkeztuko dute egitaraua.

## Eskolarteko txirrindulari proba izango da bihar

Alebin eta infantil mailetako 80 txirrindulari inguru etorriko dira bihar; horietako hamahiru, Bizipoz-Aloña Mendi taldekoak. Lasterketa 16:30ean hasiko da Enpresagintza Fakultate parean. Aloña Mendiko txirrindularitza sailak 9 eta 10 urteko gaztetxo guztiei egin gura die parte hartzeko gonbidapena.

## Boluntarioak behar ditu Hotz Oñatik bilketa egiteko

Martxoaren 30etik apirilaren 1era bitartean produktuen bilketa egingo du Hotz Oñati elkarteak, errefuxiatuendako. Eroskin bilketa presentziala egingo dute, eta boluntarioak behar dituzte egun horietan han egoteko. Laguntzeko interesa duenak helbide honetara idatzi behar du: *hotzonati@gmail.com*.

# "Maila honetan gertu ikusten dut erretiroa"

**BEÑAT ARNAIZ** ATLETA

**DUATLOIA** Maiatzean egingo duen Lanzaroteko ironmana du begiz jota, baina domekan, orain arteko garaipen pozgarrienetako bat lortu zuen, etxean, Oñatin

**M. Altube / X. Urzelai** OÑATI

Hainbat duatloi eta triatloi irabazi ditu Beñat Arnaizek (Aretxabaleta, 1980), baina domekan kirol bizitzako lehenengo garaipena izan balitz bezala ospatu zuen Oñatin lortutakoa. Euskadiko txapeldunak maiatza du egutegian gorriz markatuta, lehenengoz egingo du-eta distantzia luzeko proba bat, ironman bat. Eta dagoeneko eguna iristeko irrikan dago.

**Saltsa ederrean sartu zara ironmanean izena emanda.**

Bai, orain esan duzu egia. Ea maiatza lehenbailehen iristen den, dagoeneko nekatzen nabil-eta horrenbeste entrenatzeaz. Baina erronka polita da, distantzia berria, beste esperientzia bat.

**Badirudi, baina, lana bide onetik doala.**

Bai, entrenamendu luzeak egiten nabil, baina saio motzak egiten ditudanean ikusten dut ez dudala abiadura galdu. Domekan banuen beldur hori, distantzia motzeko lasterketa izanda, baina ez, ondo nago.

**Lasterketan ez zenuen kontrariorik izan, hasieratik jarri zenuen oso erritmo bizia.**

Beldur apur bat nuen hasieran, ez nuen aurrera egin gura eta 10 kilometroko korrikaldia bakarrik egin, ondoren taldetxoa sortzen bazen bizikletan ni harrapatzeko aukera emango nielako. Talde txiki bat sortzen ahalegindu nintzen, bizikletan batera joateko, eta lehenengo jaitsieran erasoa jo nuen. Bigarren itzuli osoa bakarrik egiteak ere bazuen arriskua, baina aurrera egitea erabaki eta korrikako saiora tarte politarekin iritsi nintzen –ia minutu bat–; banekien azken bost kilometroetan ezinezkoa zela abantaila hori galtzea.

**Hunkituta ikusi zintugun helmugan.**

Bai; oso garaipen berezia izan da. Oñati beti izan dut begiz jota, eta gutxien espero nuenean iritsi da garaipena. Duela 12 urte inguru etorriko nintzen lehenengoz, eta orduan Jon Aperribai, Zuhaitz Ezpeleta... horiek ibiltzen ziren garaipenengatik borrokan, eta nire erreferenteak ziren. Sekula ez nuen pentsatuko Oñatin irabaztea lortuko nuenik.

**Orain, Lanzaroteko erronka duzu zain.**

Bai, eta erronka da niretako, baina baita etxekoendako ere, halako lasterketa batek inguruko guztiongan du-eta eragina. Halakoetan ez da norberak egin dezakeena bakarrik, ondokoek asko lagundu behar dizute.

**Dagoeneko ez zara mutil koskor bat; lehiaketetara begira, momentu onenean zaude?**

Gustura nabil, baina, esandako moduan, jada ez naiz mutil koskorra eta badakit maila honetan ezingo dudala luzaroan egon. Ez dut esango bihar bertan maila honetan lehiatzeari utziko diodanik, baina bai, beste esparru batzuetan jardun gura dut, eta, batez ere, beste maila batean. Nekatuta nago horrenbeste sakrifizio egiteaz; nigatik baino gehiago, etxekoengatik. Asteburuetan sei edo zazpi orduko entrenamendu saioak egin behar ditudanean, etxekoak hor daude, eta, azkenean, erraza da erretzea. Ez dut esango bihar denik, baina nahiko gertu ikusten dut maila honetan erretiroa hartzea.



Beñat Arnaiz, Oñatiko plazan, garaipena ospatzen. IMANOL SORIANO

**"HUNKITU EGIN NINTZEN HELMUGAN, GARAIPEN BEREZIA IZAN DA MOTIBO ASKORENGATIK"**

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

OHOREZKO ERREG.

**Mondra-Zarautz**
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Aretxabaleta-Mutriku**
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Elgoibar-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:30. Mintxeta.

ERREGIONAL PREFERE.

**Mondra-Zestoa**
Domeka. 16:30. Mojategi.

**Aretxabaleta-Lagun O.**
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**Bergara-Urola**
Zapatua. 16:30. Agorros.

ERREGIONALA, IGOERA

**Mutriku-Antzuola**
Zapatua. 12:00. San Mig.

EMAKUMEZKO. IGOERA

**Anaitasuna-Arizmendi**
Zapatua. 15:30. Azkoitia.

**ARETO FUTBOLA**

EUSKADIKO TXAP.

**Aretxabaleta-G.Bilbao**
Domeka. 18:00. Ibarra.

**Scalibur-Eskoriatza**
Domeka. 18:15. Basauri.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Iurre Tab.-Mondrate**
Zapatua. 15:30. Tolosa.

SENIOR EMAKUMEZK.

**Eskoriatza-Beasain**
Domek. 12:15. M. Muñoz.

**SASKIBALOIA**

EBA

**Valladolid-MU**
Zapatua. 20:30. Valladol.

EUSKADIKO BIG. MAILA

**Natra O.-Arri BKL**
Zapatua. 18:00. Gasteiz.

GIP. SENIOR MAILA

**MU-Take Orbela**
Gaur. 21:00. Iturripe.

GIP. BIGARREN MAILA

**Alde Zah.-SoraluceBKL**
Domeka. 12:00. Donostia.

SENIOR EMAKUMEZKO.

**Cafes Aito.-Eskoriatza**
Zapatua. 18:00. Donostia.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAP.

**Izarraitz Muñoz-Hond.**
Zapatua. 16:30. Oñati.

**Ford Mug.-Corazonista**
Zapatua. 18:00. Iturripe.

EUSKADIKO EMAKUME.

**Aiala-Aloña Mendi**
Zapatua. 12:15. Zarautz.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Egia-Soraluce BKE**
Domeka. 12:15. Donostia.



Soraluzeren kontrako partiduaren une bat. IMANOL SORIANO

# Bergarak liga errremata dezake, Urola dator-eta Agorrosinera

**FUTBOLA** Zumarragakoak bigarren daude; bihar irabaziz gero aurrerapauso erabakigarria izango litzateke

**X.U.** BERGARA

Kategoriaz igotzea maratoia egitea bezala da, borroka luzea da. Bergarakoen (54 puntu) borrokari beste zazpi kilometro geratzen zaizkio, zazpi jardunaldi, baina bihar (16:30, Goiena telebista) ia erabakita utz dezakete liga, bigarren dagoen Urolaren (48) bisita izango dute-eta Agorrosinen. Ondoren, sei jardunaldi gehiago izango dituzte.

### Aretxabaleta hirugarren

Joan den asteko emaitzen ostean Aretxabaletak (45) aurre hartu dio Mondrari (43) eta Igor Velezen mutilek hirugarren postura egin dute salto. Bada, bi taldeek etxean jokatuko dute asteburuan (ikus taula goian).

Aloña Mendik, berriz, Elgoibarren jokatuko du. Etxeko partiduak bakarrik ez, kanpokoak ere baliatu behar dituzte oñatiarrek mailari eusteko, eta Elgoibar zazpi puntura dago.

Lehen erregionalean, Antzuola da igoera faseko lider berria, eta bihar Mutrikun jokatuko du. Arizmendiko neskek, horiek ere igoera fasean, lider dagoen Anaitasuna bisitatuko dute bihar, Azkoitian.

# Ziklista amateur onenak Gorlako podiumaren bila

**TXIRRINDULARITZA** Martxoaren 26an, izango da Gorlako igoeraren 43. aldia –III. Peugeot Etormobil saria–, urtez urte amateur mailako txirrindularirik onenak biltzen dituena. Aurten proba luzatu egin dute, eta lautadan kilometroak gehitu dizkiote

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Martxoaren 26an, hurrengo domekan, izango da txirrindularien 43. Gorlako igoera –III. Peugeot Etormobil saria–, Lokatza ziklismo eskolak antolatuta. 23 urtez azpiko 150 ziklista inguru arituko dira, 15 taldetan banatuta. Haien artean, Lokatzan aritutako Aritz Kortabarria (Eulen taldea) eta Mikel Arregi (Debabarrena) izango dira.

Txirrindulariak 10:00etan abiatuko dira San Martin plazatik. Handik Osintxura joko dute, eta Osintxu eta Zubillaga arteko zirkuituari bi itzuli emango dizkiote. "Gorlako maldei heldu aurretik, hasieran lautadako kilometroak gehitu ditugu, gazteendako ona izango delakoan", azaldu du Ion Unamunok, Lokatzako presidenteak. Hala, aurten 110 kilometro izatetik 125 izatera pasa da proba. "Gorlako igoeraren historiako ibilbiderik luzeena izango da", dio Lokatzako Xabier Arantzetak.

**Malatu saria**

Bi itzuli horiek egin ostean Bergararan sartuko dira atzera ere, eta Gorlarantz egingo dute. "Txirrindulariak Gorla gainera 11:45 aldera iritsiko direla espero dugu", dio Arantzetak. Bada, gaina lehenengo zapaltzen duenak Malatu saria jasoko du. Lehenengoz emango dute sari hau, iaz hil zen Joxe Mari Gabilondoren omenez, Lokatzari emandako laguntza eskertzeko. "Onddo-saski bat izango da saria. Uste dugu Joxe Mariri gustatuko zitzaiola", dio Unamunok.

Gorlatik Aizpurutxora jaitsiko dira, eta, Urretxu-Zumarragatik pasa ostean, Deskargatik sartuko dira Bergarara –eta ez Udanatik, azkenengoetan bezala–; gero, Gorla bigarrenez igo eta helmuga izango dute (13:00).

**Parte hartzaileak eta faboritoak**

Aurten "oztopo" bat izango dutela azaldu dute Lokatzakoek. Egun berean Valentzian Espainiako Kopako txapelketako Momparler memoriala izango da, eta, ondorioz, taldeek banatu egin beharko dituzte txirrindulariak batean eta bestean.

Hortaz, zaila izango da faboritoak iragartzea. Izan ere, iazko podiumari begiratuta, hirugarrenak, Fernandez Gallegok, profesionaletara salto egin du. Lehenengo biek, aldiz, 23 urtez azpiko kategorian jarraitzen dute: bigarrena, Lizarte taldeko Fernando Barcelo, esaterako, Valentziara joango da. Lehena izan zen Sergio Samitierrek zer egingo duen ez diete konfirmatu Lokatzakoei, baina taldeak, Euskadi Fundazioak, Gotzon Martinen izena bota du, faboritoez galdetuta.




Lokatzako kideak, txirrindulari gaztetxoak eta babesleak. M.T.

## SASKIBALOIA MU Valladolidera eta Natra Oñatik etxean

Saskibaloian, EBA ligako Mondragon Unibertsitateak kanpoan jokatuko du asteburuan, Valladoliden, hain zuzen, Universidad de Valladoliden aurka (zapatua, 20:30). Ez daude bolada onean, azken lau partiduak galdu egin baitituzte. Hamaikagarren daude taulan eta aurkaria, berriz, bost postu gorago.

Gizonezkoen bigarren mailan, berriz, Natra Oñati Aloña Mendik Arri BKL taldea hartuko du etxean, Zubikoa kiroldegian (zapatua, 18:00). Aurkari gogorra dute, beraz; izan ere, taulan bigarren postuan dago talde bisitaria, lehenarekin puntuetan berdinduta. Oñatiarrak, aldiz, hamabigarren dira taulan.

## ESKUBALOIA Aloña Mendik eta Ford Mugarrik, etxean

Izarraitz Muñoz Aloña Mendi eskubaloi taldea bigarren dago sailkapenean, eta zapatuan Ilcapo Hondarribia hartuko du Zubikoan (16:30). Hirugarren garaipena jarraian lortzen ahaleginduko dira txantxikuak. Bi puntuko aldea ateratzen dio Basauri liderrak.

Arrasateko Ford Mugarrik ere bihar jokatuko du, etxean, Iturripen, 18:30ean. Corazonistasen bisita izango dute, hain zuzen, taulan euren aurretik, hirugarren postuan dagoen taldearena. Puntu kopuru bera dute biek, eta, horrenbestez, mondragoetarrek aukera paregabea daukate zaleen laguntzarekin aurre hartzeko.


## DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



### AINHOA RASERORen IBILBIDEA




Salmenta Kudeaketa eta Marketina goi-mailako heziketa zikloko bigarren mailako ikaslea da Ainhoa Rasero, Oñatiko Gestio Heziketan (Mondragon Unibertsitatea). Egun, Edesa Industrial SL enpresan dihardu FP Dual programaren bitartez.

**Unibertsitate ikasketak egin zenituen lehenik, eta ondoren Lanbide Heziketa aukeratu. Nolatan?**

Bai. Aurrez, gradu mailako Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak egin, eta nazioartean pare bat lan-esperientzia izan nituen. Momentu batean lan gabe geratu nintzen, eta marketin arloan sakondu nahi nuen, baina ez nengoen master bat egiteko prest. Dual programa honen aukera jakin nuenean, erabaki nuen Lanbide Heziketa ikastea.

**Zer eskaintzen du Dual programak?**

Enpresa batean lanean hasten zara lehen maila bukatzean, eta bigarren mailako hainbat ikasgai enpresan bertan ikasten dituzu. Goizez enpresan lanean eta arratsaldez eskolak izaten ditugu. Orain, martxotik aurrera, enpresan gaude egun osoz.

**Zer eskaintzen dizu enpresak?**

Nire kasuan, Marketin eta Komunikazio Departamentuan nago, eta negozio-linea guztietatik pasatu naiz bakoitzaren zereginak eta lanak ezagutzeko. Egun, Confort linean fokalizatuta nago, product manager lanean. Komunikazio arloko lanak ere egiten ditut; webguneak eta katalogoak berritu, azokatan parte hartu, eta abar.

**Zer jasotzen du enpresak?**

Enpresak urtebete horretan prestatu egiten zaitu, bere beharren arabera, eta ondoren, langile beharra badu, hartu egin zaitzakete, jada postua eta enpresa ezagutzen dituzulako, eta enpresak ere zuk nola lan egiten duzun dakielako.

**Eta geratzeko aukerarik izango duzu?**

Geroz eta ardura gehiago ematen dizkidate, eta, jende gutxi gaudenez, lan asko daukagu. Oraingoz, esan didatenez, geratzeko aukerak izango ditut maiatzean.

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**GOIAZ! 2017**
Lanbide Heziketaren Azoka
**Apirilaren 26an eta 27an**
Kulturaten, Arrasaten

goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

# Euskarazko iragarkiak eta film laburrak ikusgai

Euskaltzaleen Topaguneak sortutako 'Laburbira' zine zirkuitua Arrasateko Kulturaten eta Bergarako gaztetxean izango da datorren astean AED eta Jardun euskara elkarteen eskutik. Emanaldiak dohainik eta publiko guztiarentzako zabalik izango dira

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Hamalau urte bete ditu aurten *Laburbira* zine zirkuitu ibiltariak. Euskaltzaleen Topaguneak sortu zuen, euskarazko sortzaileen kalitatezko lana ezagutarazteko helburuarekin.

32 herri bisitatuko ditu hilabetean, eta Debagoienean bi geldialdi egingo ditu: AED elkartearen bitartez martxoaren 22an, Kulturaten 19:00etan; eta Jardunen eskutik Bergaran, martxoaren 26an, 19:00etan, Kartzela Zaharrean, gaztetxean.



UDA Films taldekoak; Ane Zuazubiskar arrasatearra, goian, eskuinaldean. LEIRE ZARATE

### Zine mokadutxoak

Ordu eta laurdenean, zazpi film labur eta Euspot euskarazko iragarkien lehiaketako bost edizioetako iragarki onenekin osatutako bilduma ikusteko aukera dago oraingoan. Film laburretan eskaintza zabala da: Nafarroako azken saskigileetako bati buruzko dokumentala; hogei euskal artista gazteren artean zuzendutako animaziozko film kolektiboa; bizilagunen arteko misteriozko istorioa; hizkuntzen arteko bizikidetzari buruzkoa, eta sukaldaria izan nahi duen gaztearen kontakizuna daude, horien artean. "Elkarren arras ezberdinak dira, kontakizun, genero eta irudi aldetik. Komunean duten bakarra, euskara hutsean direla. 2015 eta 2016. urteetan egindakoak dira", dio Leire Lardizabalek, Euskaltzaleen Topaguneakoak.

Aretxabaletako Udalak, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Arteman Komunikazioak 2012. urtean sortu zuten Euspot lehiaketa. "Topaguneak kudeatzen duen Durangoko Azokako *Irudienea* gunean eskaini genuen bilduma bera".

### Arrasatear bat, egileen artean

Eskainiko duten filmetako egileen artean dago Ane Zuazubiskar arrasatearra; UDA Films taldeko kidea dela kontatu du. "Iaz, Huhezinema jaialdian aurkeztu genuen eta sukaldari izan nahi duen gazte baten istorioa kontatzen du; ez da oso abila, baina irratian entzungo duen zerbaitek emango dio konponbidea. Iaz martxoan grabatu genuen, arratsalde bakarrean guztia. Lekeitioko Zine Bilerara bidali genuen gero, eta Gazte 22 saria irabazi zuen. Iazko *Laburbira*-n beste lan batekin izan ginen; guretzat, pribilegio izugarria da ekimen honetan egotea".

### Ikusleendako lehiaketa

Emanaldiak ikustera hurbiltzen direnen iritzia jaso gura dute antolatzaileek; eta iritzia ematearen truke, nekazaritza turismo baten egonaldia irabazteko zozketan parte hartuko dute. Dagoeneko zabalik dago parte hartzeko aukera *Kameratoia.eus* webgunean.

**"IKUSLEEN IRITZIAK JASO GURA DITUGU; TRUKEAN SARI BAT ZOZKATUKO DUGU"**

LEIRE LARDIZABAL, TOPAGUNEA

### Film laburrak, iragarkiak eta egileak

- ***Azken saskia*** Oier Fuentes.
- ***Beti bezperako koplak*** Ageda kopla taldea.
- ***Ihesa*** Alejandro Diaz Castaño.
- ***Elemakarrak*** Ibon Iza Totorika.
- ***Jalgi*** Eki Pagoaga.
- ***280º*** UDA films.
- ***Hileta*** Kepa Sojo.
- **EUSPOPT lehiaketako spot onenak** Bost ediziotako lan irabazleak eskainiko dituzte: *Merkataritza eta euskara* (2012); *Sare sozialak eta euskara* (2013); *Pintxo-potea eta euskara* (2014); *Autoak eta pertsonak (elkarbizitza orekatua)* (2015); *Turismoa erakarri Gipuzkoa barnealdera* (2016).



*Euskadi* dokumentalaren irudi bat. JOSU MARTINEZ

## 30eko hamarkadako Euskal Herria 3D dokumental baten jasota

Leintz Gatzagako San Millan parrokian eskainiko dute, zapatuan, 19:00etan, 'Euskadi' (1936) dokumentala

**A. A.** LEINTZ GATZAGA

Parisko artxibo baten zegoen Rene le Henaff Frantziako zinemagile gazteak 1936an Ipar Euskal Herrian grabatu zuen *Euskadi* dokumentala. Josu Martinez zinemagile eta EHUko NOR ikerketa taldeko kideak aurkitu zuen Pathe Gaumont ekoiztetxean, orain dela urtebete inguru hasi zuen ikerketa borobilduz horrela. Filmaren kopia bat alokatu dute Euskal Herrian erakusteko: Leintz Gatzagan, bihar, zapatua, eskainiko dute 19:00etan, San Millan parrokian.

EHUko NOR ikerketako lankide du Martinezek Leintz Gatzagan bizi den Edorta Arana, eta haren bitartez eramango dute. "Pantaila handi bat jarriko dugu eta soinua ere mimatuko dugu. Hurbiltzen direnei 3D betaurrekoak oparituko dizkiegu", dio Edorta Aranak.

### Horrelako gutxi

Asko dira, ikertzailearen esanetan, film laburrak dituen balioak: "Hasteko, orain dela 80 urte Euskal Herriari buruz egindako gutxi daudelako. Era berean, 3D formatuan egindakoa delako, Louis Lumierek asmatu zuen erliebe sistemarekin egindako gutxi daude. Asmakizunak ez zuen arrakasta handirik izan; baina hemen dugu horietako bat orain ikusgai. Txukun errealizatuta dago, teknikoki oso ongi pentsatua".

Eduki aldetik ere berrikuntzak erakusten dituela dio. "Euskaldunak irudikatzeko moduari dagokionez, bat egiten du atzerriko hainbat dokumentalek duten imajinario erromantikoarekin; baina oraingoan, baserri giroko, pilota eta dantza irudiez gain, Iparraldeko hiri turistikoetako irudiak ere jasotzen ditu; orain arte ikusi gabekoak".

## Huhezinema zine jaialdiko aurtengo uzta erakusteko prest

Euskal Herriko 97 film labur jaso dituzte Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak antolatzen duen Huhezinema Euskal Film Laburren jaialdian. Hamargarren edizioa da aurtengoa, eta hautatutako filmak martxoaren 29tik 31a bitartean eskainiko dituzte Aretxabaletako zinema aretoan eta hainbat tabernatan.

Urteurrena aitzakia hartuta, aurtengo edizioa berrikuntza askorekin datorrela diote antolatzaileek: "Jaialdiaren irudi berria estreinatuko dugu; zeluloidetik digitalerako urratsa eginez, logo berria, begi eta diafragma itxurako irudi sinple baina esanguratsua da. Horrez gainera, hiru egunerako egitaraua antolatuko dugu. Epai-mahaiak hautatutako filmen proiekzioez gainera, *masterclass*-a eta bestelako ekitaldi bereziak ere ari gara prestatzen".

# Bi emakume musikari 'Kulturrizketak' saioan

Gose taldeko Ines Osinaga eta Kokein-eko Zaloa Urain abeslaria izango dira kameren aurrean, martxoaren 23an, 21:30ean, Goiena telebistan eskainiko den elkarrizketa saioan; ondoren, aurreko saioak bezala, *goiena.eus* atarian ere ikusgai izango da

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE
Aspaldi elkarrekin egon barik, garai bateko Zerrajera lantegiaren eraikinean muntatutako platoan elkartu ziren Ines Osinaga Arrasateko Gose taldeko kidea eta Kokein taldeko Zaloa Urain eibartarra, Goienaren *Kulturrizketak* saioaren beste kapitulu bat grabatzeko.

Elkar estimatzen dutela eta batak bestearen ibilbidea jarraitzen duela erakutsi zuten hasieratik. Lagun giroan jardun zuten, bada, kamera aurrean ordu erdiz solasean; aurrez idatzitako gidoi zehatzik jarraitu barik, eta batak besteari esandakoa naturaltasunez josiz.


Ines Osinaga eta Zaloa Urain *Kulturrizketak* saioko platoan. JAGOBA DOMINGO

### Euskal rock-and-roll feminista

Emakume musikariak protagonista dituen *Emarock* jaialdian elkarrekin azkenekoz egon zirela gogora ekarrita, emakumeek musikagintzan duten rolaz eta indarraz berbetan hasi ziren. "Agertokian, lehen, ahotsean –mikroan– jartzen nuen indarra; orain, berriz, gorputzarekin askoz gehiago", esan zuen Gose taldekoak. Eta bide beretik jarraitu zion Kokein-ekoak. "Ados. Ez dakit adinagatik den, baina sentsazio bera dut".

Gauzak aldatzen doazen arren, egiteko lan handia dagoela zioten. "Oraindik ere ematen du emakume bat agertoki gainera igotzeko, zerbait berezia izan behar duela emakume horrek", zioen Urainek, eta zera gaineratu zion Osinagak: "Azkenaldian buelta asko ematen dizkiot gai honi, eta zera uste dut: 80ko hamarkadan euskal rocka sortzeko baldintzak izan ziren moduan, gaur egun, euskal rock feminista sortzeko garaia bizi dugu".

### Etapa ezberdinetan

Elkarrekin gauza asko egindakoak dira. "Gogoratzen duzu Bartzelonan jo genuenean? Goseren lehengo diskoarekin zen", "Bai. Gogoan dut, oso ondo egon zen. Kontzertu hartatik, trikitia beste modu batera ikusten dut. Asko gozatu nuen zu ikusten; eta kontzertua bukatzean esan nizun, gogoratzen?". "Bai, hala da", erantzun zion Gosekoak.

**AGERTOKIETAN EMAKUMEEN TOKIAZ, AUTOEKOIZPENAZ ETA GEHIAGO, LAGUN ARTEKO SOLASALDIAN**

Urte askotako eskarmentua dute musikagintzan; baina etapa ezberdinetan daude orain. Gosek atsedenaldia hartu du eta Kokein orain dela gutxi kaleratu duen *Lupekharia* diskoa aurkezten ari da. "Lau urte geldi egon gara eta orain, sekulako gogoarekin ari gara agertokian. Jendeak uste du ama naizelako geratu ginela; hortxe, gauzak askorik aldatu ez diren beste erakusle bat. Baina ez da horregatik izan, ordurako nire alabak bazituen-eta urte batzuk. Diskotik diskora beti egin izan ditugu geldialdiak. Gelditzea, askotan, ez da aurrez pentsatzen duzun zerbait. Era berean, kontuan hartzekoa da ez garela musikatik bizi; ni irakaslea ere banaiz. Nork bere bizitza du eta hori oso kontuan hartzen dugu asteburuetako kontzertuak lotzean ere. Hilean kontzertu bi baino gehiago ez ditugu egiten, normalean", kontatu zuen Urainek. "Nik bai; erabaki dut gelditzea. Oso azkar zihoan trenetik gelditzea behar nuen. Agertokitik jaitsi baino gehiago, fokuak itzali ditut. Gustura nago".

### Autoekoizpena: gogorra eta ona

Garrantzi handia ematen diote egin gura dutena erabakitzeko aukera taldeak izateari; eta horregatik egin dute autoekoizpenaren aldeko hautua, nahiz eta biek aitortzen duten oso gogorra dela. "Harro nago hartutako erabakiaz, baina hasieran oso gogorra egin zitzaidan; kantuak sortzeaz gainera, fabrikako aurrekontua negoziatzea, promozio kanpaina prestatzea... gauza asko dira", zioen Gosekoak, eta horrela jarraitu zuen Urainek: "Baina bidean asko ikasten da, musika industriaz gainera, pertsonalki ere bai".


## Goiena Klubaren txokoa

### Euroliga Goiena Klubean!



**BASKONIA – PANATHINAIKOS**
**partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu.**
Martxoaren 23an, 21:00etan Buesa Arenan jokatuko den partidurako.

**PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 20RA ARTE**
**E-postaz:** *kluba@goiena.eus* **WhatsApp:** KLUBA "*baskonia*"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte–hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.eus*

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

**Arrasateko Udalari esker**
*'Jainko basatia' antzerkirako sarrerak ditugu.*
**Amaia antzokian, Arrasaten | Martxoaren 26an, 19:30ean**

**Spaloia kafe antzokiari esker**
*The Riff Truckers/Sumision City Blues kontzerturako sarrerak ditugu.*
**Spaloia kafe antzokian, Elgetan | Martxoaren 24an, 22:00etan**

**PARTE HARTZEKO:**
**E-postaz:** *kluba@goiena.eus* **WhatsApp:** KLUBA "*antzerkia/musika*"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte–hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.eus*

### Irabazi bi lagunendako otordua

SIRIMIRI JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*

*KLUBA Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 (apiriletik aurrera): 40 euro.
Deitu: **943 25 05 05**. *goienakluba.com*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

## IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**

101. SALDU

**UBERA**
Olañeta baserria eta 15 hektareako lursaila salgai (pinuak eta zelaiak).
943 76 35 09
677 21 46 82

**Laredo.** Apartamentua salgai EVEReko gunean. Bigarren solairua da eta igogailua dauka. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Guztiz jantzia dago. Harremanetarako deitu ondoko telefonora: 615 09 36 82

103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Ia berria. Egoera onean. Hirugarren solairuan, igogailuarekin. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Hilean 590 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 60 47 75 (Mikel)

**La Pineda (Tarragona).** Apartamentua errentan ematen da, asteka edo hamabostaldika, uztailean eta abuztuan. Hondartzatik oso gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 58 66 99

104. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Etxea hartuko genuke errentan Oñatin. Bertako bikote bat gara. Mesedez deitu telefono honetara: 670 54 71 05

**Oñati.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Oñatin. Lehentasunez, hiru logeladuna. 699 31 03 47

**2. GARAJEAK**

201. SALDU

**Oñati.** Garaje itxia salgai Ugarkalde 1-2 auzoan. 21.000 euro. 690 73 64 16

**4. LANA**

401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**
Ile-apaintzailea behar da.
676 22 33 18

**BERGARA**
Zerbitzaria behar dugu.
Interesatuok deitu:
688 61 07 70
688 65 99 55

bertako
igogailuak | ascensores

**LAN ESKAINTZA**

**Igogailuetako teknikaria behar da Debagoienerako,**
bezero-kopuru igoera dela eta

**Beharrezkoa:**
- Hiru urteko esperientzia
- Euskaraz jakitea

**Eskaintzen da:**
- Kontratu finkoa
- Lanerako baldintza egokiak
- Konfidentzialtasuna

Bidali curriculuma: *info@bertako.eus*
www.bertako.eus

**HIGIENISTA**
Aretxabaletako hortz klinika baten lan egiteko higienista bila nabil.
646 11 43 24

402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Garbiketak egiten eta zaintza lanetan aritzeko gertu nago, orduka edo jardun osoz. 632 56 92 32

**Arrasate.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskalduna. 688 66 76 91

**Debagoiena.** Asteburuetan nagusiak zaintzen, etxean zein egoitzan, eta tabernari moduan lan egingo nuke. 612 56 65 27 edo 697 20 00 86

**Debagoiena.** Garbiketan edo zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Baita etxean bertan bizi izaten ere. 688 63 58 10

**Debagoiena.** Garbiketan, nagusiak zaintzen eta abarrean lan egingo nuke. 688 63 58 25 (Yolanda), 650 12 42 87 (Beatriz)

**Debagoiena.** Geriatria ezagutzek dituen neska etxean bertan bizi izaten edo egunez lan egiteko gertu. Nagusiak eta baita umeak ere. Etxeko garbiketak ere egingo nituzke. 642 18 97 37

**Debagoiena.** Gizon arduratsua gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile moduan edo tabernak garbitzen aritzeko. 652 58 41 99, 656 93 85 09

**Debagoiena.** Goizetan lan egingo nuke. Esperientzia dut umeak zaintzen, etxeak garbitzen eta gaixo eta nagusiak zaindu eta laguntzen. Lan egiteko beharra daukat, alarguna naiz-eta. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Mutila gertu zaintza lanetan eta garbiketan aritzeko. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 655 10 21 50

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen eta garbiketak egiten lan egingo nuke, orduka. 663 40 92 67

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu egun osoz edo orduka nagusi eta umeak zaintzeko, eta garbiketa, sukalde zein lisatze lanak egiteko. Baina asteburu edo gauetan ere. Esperientzia handia dut eta lege paperak eguneratuta. 602 58 09 23

**Debagoiena.** Neska garbiketak egitek gertu. Goizez zein arratsaldez. Baita astean bi egunetan ere. 622 24 86 64

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten eskarmentua daukan emakumea, lan egiteko prest. 8 urtez lan egindako familiaren erreferentziak. 678 13 59 14

**Debagoiena.** Pertsonak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentzia onak. 697 88 05 95

**Debagoiena.** Pertsonak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentzia onekin. 686 44 70 38

**Lana.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, egunean zehar, orduka. 618 03 04 69

**Oñati edo Arrasate.** Zaintza eta garbiketa lanetan aritzeko prest nago. Egunez, gauez edota jardun erdiz. 10 urteko eskarmentua dut. 612 54 44 03

**Oñati.** Emakume euskalduna pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Esperientzia handiarekin. Autoa daukat. 627 18 04 35 edo 943 08 23 99

**6. MOTORRA**

601. SALDU

**Audi 4 allroad.** Salmenta partikularra. Jabe bakarra. Audi 4 allroad 2000TDI. Azken modeloa. 177 ZP. 4x4. Zuria da. 60.000 kilometro frogagarri. Egoera ezin hobean dago, ia berri. Audik baimendutako garajean egin zaizkio errebisioak. Beti garajean egon da. Michelin etxeko kubiertan, estreinatzeke. 25.500 euro. Kontaktua: 650 60 12 14

**8. DENETARIK**

804. HARTU

Bikiendako aulkia. Bikiendako aulkia behar dut. Emateko moduan badaukazu, gustura hartuko nuke. 672 95 24 24

KOROSTI INMOBILIARIA

**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Simon Arrieta, 81 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 300.000€.
- Fraiskozuri, 100 m², 4 logela. Igogailua. Berrizteko. 180.000€.
- Ibargarai, 110 m², 3 logela. Igogailua. Garajea barne. Bizitzera sartzeko. 260.000€.
- Masterreka, 100 m², 2 logela. Igogailua. Bizitzera sartzeko. 200.000€.
- Martoko, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. Eguzkitsua. 135.000€.
- Zabalotegi, 80 m², 3 logela, Berriztuta. Igogailua. Eguzkitsua. 177.000€.
- Martzial Agirre (Espoloia), 84 m², 4 logela, trastelekua eta garajea barne. 235.000€.
- Irizar, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000€.
- Barrenkale, 116 m², 5 logela. AUKERA ONA. 90.000€.
- Madura, 57 m², 2 log. Berriztuta. Bizitzera sartzeko. 110.000€. AUKERA OSO ONA.
- Zubieta, 70 m², 3 logela. Bizitzera sartzeko. 127.000€.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Zubiaurre, 75 m², 3 logela, Igogailua. Berrizteko. 60.000€.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000€. AUKERA ONA.
- Askarruntz, 83 m² 3 logela, Berritzeko. 62.000€.
- Ola, 52 m², 2 logela. Berritzeko. 48.000€. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log, 320.000€. IgogailuS. NEGOZIAGARRIA.
- Bidekurutzeta, 100 m², 2 logela, berritua, Bizitzera sartzeko. 157.000€.
- Bidekurutzeta, 54 m², 2 logela. Berritzeko. Igogailua du. 92.000€.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Simon Arrieta, 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza, 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria, 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.
- Duplexa, 170 m², 4 logela, garajea, txokoa eta terrenoa, 180m2.

**OSINTXU:**
- Osintxu, 92 m², 3 logela, igogailua, garajea. Eraikuntza berrian. 165.000€.
- Osintxu, 55 m², ganbara 55 m², lursailarekin. BERRITZEKO. 40.000€.
- Osintxu 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

**ANTZUOLA:**
- Errekalde, 68 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. Altzariak barne. 140.000€.
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Errekalde, 78 m², 3 logela, Berritua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.
- Errekalde, 65 m², 2 logela, igogailua. Aukera ona. 90.000€.
- Buztin zuri,65 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 180.000€.

**ELGETA:**
- Torrealdea, 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

### IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK:**
- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 17 euro
  15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
  Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

**'EUSKARAREN LAU AURPEGI' DOKUMENTALA**

***'Erreportajeak'*** *Martitzena, 21:30*



GOIENA

**LANBIDE EZBERDINAK PROBATZEN**

***'Egun batez'*** *Eguaztena, 21:00*

**EGUBAKOITZA, 17**

**10:00** Hemen Debagoiena
**11:00** Onein: Barazki salteatuak
**11:30** Hemen Debagoiena
**12:30** Kulturrizketak
**13:00** Kantari 2
**13:30** Hemen Debagoiena
**14:30** Gaurkoak
**14:45** Galdegazte: Miren Amuriza
**15:15** *Atzoko enborrak, gaurko ezpalak*
**15:45** Amaia DJ
**16:15** Gaurkoak
**16:30** Onein: Barazki salteatuak
**17:00** Gaurkoak
**17:15** Kulturrizketak
**17:45** Gaurkoak
**18:00** Hemen Debagoiena
**19:00** Kantari 1
**19:30** Kulturrizketak
**20:00** Hemen Debagoiena
**21:00** Kulturrizketak
**21:30** Amaia DJ
**22:00** Hemen Debagoiena
**23:00** Amaia DJ
**23:30** Galdegazte: Miren Amuriza

**ZAPATUA, 18**

**09:00** Kantari 2
**09:30** Plazako aulkitik
**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari 1
**11:00** Hemen Debagoiena
**12:00** *Atzoko enborrak, gaurko ezpalak*
**12:30** Galdegazte: Miren Amuriza
**13:00** Ur eta lur
**13:30** Kulturrizketak
**14:00** *Atzoko enborrak, gaurko ezpalak*
**14:30** Onein
**15:00** Hemen Debagoiena
**16:00** Kantari 2
**16:30** Korapilo
**17:00** Kulturrizketak
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Galdegazte: Miren Amuriza
**18:30** Kantari 2
**19:00** Hemen Debagoiena
**20:00** Kantari 2
**20:30** Amaia DJ
**21:00** *Atzoko enborrak, gaurko ezpalak*
**21:30** Kulturrizketak
**22:00** Hemen Debagoiena

**DOMEKA, 19**

**09:00** Kantari 1
**09:30** Ur eta lur
**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari 2
**11:00** Galdegazte: Miren Amuriza
**11:30** Amaia DJ
**12:00** *Atzoko enborrak, gaurko ezpalak*
**12:30** Onein
**13:00** Hemen Debagoiena
**14:00** *Atzoko enborrak, gaurko ezpalak*
**14:30** Kulturrizketak
**15:00** Plazako aulkitik
**15:30** Galdegazte: Miren Amuriza
**16:00** Amaia DJ
**16:30** Kantari 1
**17:00** Korapilo
**17:30** Hemen Debagoiena
**18:30** Amaia DJ
**19:00** *Atzoko enborrak, gaurko ezpalak*
**19:30** Galdegazte: Miren Amuriza
**20:00** Kantari 2
**20:30** Hemen Debagoiena
**21:30** Kulturrizketak

**ASTELEHENA, 20**

**BERGARA-UROLA FUTBOL PARTIDUA**

***'Harmailatik'***

*Astelehena, 21:30*

**MARTITZENA, 21**

**EGUNEKO ALBISTE GARRANTZITSUENAK**

***'Gaurkoak'***

*Martitzena, 21:30*

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

**EGUAZTENA, 22**


ARITZ GORDO

**KAZETARI GAZTEAK, MARKEL URIARTEREKIN**

***'Galdegazte'***

*Eguaztena, 21:30*

**EGUENA, 23**

**INES OSINAGA ETA ZALOA URAIN**

***'Kulturrizketak'***

*Eguena, 21:30*

URTEURRENA

## Juan Mari Leturia Peñagaricano



2016ko martxoaren 15ean hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 19an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2017ko martxoaren 17an.

URTEURRENA

## Antonio Rodriguez Ruiz



2016ko martxoaren 15ean hil zen, 68 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 18an,
19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian.

—

*Aita maitea, ze azkar joan zinan...*
*Zure maitasun hitzak, aholkuak,*
*sentimenduak... gurekin bizi dira.*
*Asko maite zaitugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2017ko martxoaren 17an.

URTEURRENA

## Jesus Ezkurra Murua



Martxoaren 19an hil zen, 71 urte zituela.

Haren aldeko meza domekan izango da, martxoaren 19an,
12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

—

*Joan zinen ta gurekin zaude*
*ulertzen zaila da sarri.*
*Hainbat urtean, elkarlanean*
*dena emanez elkarri.*

*Maitasuna da izandakoen*
*eta garenon lokarri.*
*Bihotz askotan dezu lekua*
*bizi izanaren ezaugarri.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2017ko martxoaren 17an.

URTEURRENA

## Francisco Zelaia Urrestarazu



'Pako Triana'

2016ko martxoaren 17an hil zen, 82 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 18an,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

*Gurekin egon zara*
*gurekin zaude*
*eta gurekin betirako*
*egongo zara.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2017ko martxoaren 17an.

OROIGARRIA

## Berta Osa Alberdi



Felipe Zangituren alarguna

2015eko martxoaren 19an hil zen.

*Beti gogoan izango zaitugu.*

Zure familia.
Bergaran, 2017ko martxoaren 17an.

OROIGARRIA

## Jesus Mari Elkoroberezibar Odriozola

Monika Belastegi lankidearen aitaginarreba

2017ko martxoaren 15ean hil zen, 75 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea.
Bergaran, 2017ko martxoaren 17an.

## HILDAKOAK

**Ramon Arkauz Unamuno.** Oñatin, martxoaren 9an. 81 urte.

**Rafael Ortubai Zenitagoia.** Aramaion, martxoaren 10ean. 85 urte.

**Javier Uriarte Rubiano.** Aretxabaletan, martxoaren 12an. 66 urte.

**Juan Pedro Guridi Arriaran.** Arrasaten, martxoaren 12an. 84 urte.

**Maria Soledad Aranguren Sanchez.** Bergaran, 12an. 64 urte.

**Basilisa Loiti Elortza.** Antzuolan, martxoaren 14an. 93 urte.

**Maria Isabel Pagaldai Goenetxea.** Bergaran, 14an. 61 urte.

**Sebastian Martin Blanco.** Arrasaten, martxoaren 15ean. 80 urte.

**Jesus Mari Elkoroberezibar Odriozola.** Bergaran, 15ean. 75 urte.

OROIGARRIA

## Amalia Iturralde Ilarragorri



2016ko martxoaren 16an hil zen, 82 urte zituela.

*Zure maitasuna*
*eta zure esaldiak*
*gurekin gelditzen dira.*

Zure familia.
Oñatin, 2017ko martxoaren 17an.

ESKER ONA

## Javier Uriarte Rubiano



2017ko martxoaren 12an hil zen, 66 urte zituela.

Eskerrik asko momentu hauetan
familiaren ondoan egon
eta babesa eman diguzuen guztiei.

Aretxabaletan, 2017ko martxoaren 17an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE *EGUNEZ* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 17 | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| Zapatua, 18 | FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26 |
| Domeka, 19 | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| Astelehena, 20 | AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| Martitzena, 21 | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 22 | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 |
| Eguena, 23 | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| **BERGARA *EGUNEZ*** | |
| Egubakoitza, 17 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Zapatua, 18 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Domeka, 19 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Astelehena, 20 | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| Martitzena, 21 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 22 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| Eguena, 23 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| **OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK*** | |
| Egubakoitza, 17 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Zapatua, 18 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Domeka, 19 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Astelehena, 20 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Martitzena, 21 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 22 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Eguena, 23 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |

**ARRASATE *GAUEZ EGUNERO***
***(22:00etatik 09:00etara)***
**2017ko abuztuaren 15era arte:**
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri
943 79 22 26

**BERGARA *GAUEZ EGUNERO***
***(22:00etatik 09:00etara)***
**2017 osoan:**
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4
943 76 11 74

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.




OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## TXUTXU-MUTXUAK












**1. Zumarrak Iturrigorrin**
Zuhaitz eguna ospatu zuten joan den domekan oñatiarrek. Giro euritsua egin arren, Iturrigorrira joan eta zumarrak landatu zituzten. Natur Eskolak eta Aloñako Lagunak taldeak egin zuten irteeraren deialdia. Landare batzuk soberan gelditu zitzaien eta datorren asteburuan Unaimendin landatzeko plana egin dute.

**2. Emakumeak kirolean**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Bergara Kirol Elkarteko emakumezko futbolariek talde argazkia atera dute Agorrosin futbol zelaiko harmailetan, kirolean ere emakumezkoen presentzia eta garrantzia aldarrikatuz. Kategoria ezberdinetako jokalariak eta entrenatzaileak elkartu ziren argazkirako.

**3. Eski irteera**
Aloña Mendiko mendi sailak urtero antolatzen du eskiatzera joateko irteera bat. Pirinioetan egiten dute zeharkaldi hori. 2017koa martxoaren hasieran egin zuten eta "primeran" ibili ziren. Zapatuan Montagut de Betpouey eta domekan Pic des Tentes igo zituzten. "Errepikatzeko modukoa" izan ei da zeharkaldia.

**4. Aramaioko txirrindulariak**
Joan den domekan, Aramaioko hainbat lagun elkartu ziren urteko lehenengo irteera egiteko: erretratuko zortziak eta argazkia atera zuena. Hain zuzen ere, Kanpanzar, Urkiola eta Oleta igo zituzten. Eguraldia ez zuten lagun izan eta bidean, gainera, sustoren bat ere izan zuten, baina denak onik heldu ziren etxera.

**5. Filma grabatzen**
Ibilgailuak, garabiak, jende asko... Oñatiarrek berehala antzeman zuten astelehen goizean zerbait berezia ari zela gertatzen San Migel parrokian. Eta arrazoi zuten. *Cuando dejes de quererme* filma grabatzera etorri ziren. Kanpoaldean jarri zituzten tramankulu gehienak, baina eszenak parrokiako klaustroan grabatu zituzten.

## #DIOTENEZ

**ESLALOM PROBA**
Eslalom proba **berezia** egingo dute hilabete honetan Bergaran. **Gipuzkoa** mailako txapelketa izango da eta dagoeneko dena prestatzen ari dira kirol horretan jarduten dutenek. **Martxoaren** azken asteburuan egingo dute proba hori eta parte-hartze **handia** espero dute antolatzaileek. Kirol hori egiten duten bailarako herritarrak ere **lehiatuko** dira txapelketa horretan.

**TELLAMENDI**
Aramaioko Udala **omenaldi** bat ari da prestatzen duela **40** urte Tellamendiko gurutzearen gatazkan parte hartu zuten herritarrendako. Herriko bizilagun bat ere ari da orduko **testigantzak** batzen, ikus-entzunezko produktu batean **jasotzeko** urte hartan bizi izan zena. Udala, berriz, **gertaera** haren lekuko izan zirenei omenaldia **prestatzen**. Data **zehatzik** ez dago oraindik.

**ARRAUTZAK**
**Etxeko** oiloek egiten dituzten arrautzen aldeko eta **lantegi** handietan egiten dituztenen kontrako kanpaina hasi dute **Oñatin**. Fabrika erraldoietako oiloek egin eta supermerkatu handietarako etiketatzen dituzten arrautzak **nola** identifikatu jakiteko argibideak ere badituzte. Arrautzak kontsumitzean etxeko **oiloek** egindakoen alde egiteko apustua defendatzen dute.

**PROIEKTUA**
Iker Martinez de Zuazo **musikari** oñatiarra buru-belarri ari da bere proiektu berria **egiten**. Dagoeneko egin du bakarkako zuzenekoa ere. **Disko** bat grabatu gura du orain, eta horretan dabil. Horixe da haren proiektua, baina **ez** dabil bakarrik horretan. Herriko beste hainbat musikarik jotako notak ere **entzungo** dira diskoa osatuko duten piezetan. **Instrumentu** askok izango dute tokia.

**'GO!AZEN' BERGARAN**
*Go!azen* **telesailaren** telebistako formatua bukatu zen, baina antzerkikoak eta ikuskizunekoak bere **bide** propioa hartu du. Euskal Herriko herri askotan izan dira telesail horretako **aktoreak** antzerkia egiten eta apirilaren 23an Bergarara etorriko dira. Udal Pilotalekuan izango da emanaldia, **zuzenean**, 18:00etan. **Sarrerak** martxoaren 22an jarriko dituzte salgai *kutxabank.es* helbidean.

# ZORION AGURRAK



BERGARA
**Kenar Da Silva Moreno**
Martxoaren 23an, 6 urte. Zorionak, maittia! Segi beti bezain jator! Muxu eta besarkada handia. Asko maite zaitugu etxekoek eta batez ere, Alainek.



OÑATI
**Aimar Mendizabal Altzelai**
Martxoaren 22an, 3 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasatu eta muxu potolo bat etxekoen partetik! Asko maite zaitugu!!



OÑATI
**Enara Guridi Murua**
Martxoaren 22an, 8 urte. Zorionak, Enara! Egun politta izan deizula! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
**Aiora Agirre Igarza**
Martxoaren 21ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
**Elene Perez Zabaleta**
Martxoaren 20an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, neska handi! Belarritik sei tirakada eta besarkada bat. Familia osoa eta bereziki Nora, Irati, Erik, Jurgi eta Ane.



ARETXABALETA
**Oxel Urteaga Larrea**
Martxoaren 20an, 7 urte. Zorionak, Oxel! Patxo handi-handi bat!



BERGARA
**Sare Larrañaga Barrenetxea**
Martxoaren 19an, 6 urte. Zorionak, Sare! Handitzen-handitzen... gure neskatxua! Patxo potolo-potolua! Egun politta pasatu deizula, maitti!



BERGARA
**Elene Goikoetxea Makazaga**
Martxoaren 19an, 5 urte. Zorionak, prexioxi! Ondo pasatu zure eguna. Patxo handia familia osoaren partetik. Bereziki Eneko, Danel eta Maialen.



ARETXABALETA
**Nikole Aldalur Zuazua**
Martxoaren 18an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Asko maitte zaittugu! Ondo pasatu eta patxo pilo bat , batez be, Oxelen partetik!



BERGARA
**Maitane Agiriano Larrion**
Martxoaren 18an, 8 urte. Zorionak, printzesa. Patxo handi-handi bat, etxeko danon eta, bereziki, Ionen partetik.



OÑATI
**Miren Bikuña**
Martxoaren 17an, 52 urte. Zorionak familiaren partetik. Muxu handi bat eta ondo pasatu zure eguna.



BERGARA
**Narel Jauregi Mendibil**
Martxoaren 17an, 6 urte. Zorionak, Narel! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi-handi bat, etxeko guztion partetik.



OÑATI
**Alaitz Isasti Arkauz**
Martxoaren 17an, 4 urte. Zorionak, printzesa. Egun polit-polita eduki eta muxu handi bat, etxeko danon partetik. Asko-asko maite zaitugu.



ARETXABALETA
**Sara Garcia Borrego**
Martxoaren 17an, 4 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure eguna, familia osoaren partetik. Patxo bat!



OÑATI
**Izar Jurado**
Martxoaren 16an, 10 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna, gurasoen eta aitaita-amamen partetik!



ARRASATE
**Aitor Vitoria Herranz**
Martxoaren 16an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ze ondo zure poztasunaz eta irribarreaz gozatzeko aukera dogulako denok, egunero. Ederto ospatu urtebetetzea!



ANTZUOLA
**Iraia Angeles Telleria**
Martxoaren 15ean, 7 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtia, etxeko danon eta, batez be, Malenen partetik. Mua, mua eta mua!



ARRASATE
**Sara Ines Vitoria Zabaleta**
Martxoaren 15ean, 43 urte. Zorionak, *guapa*! Urtero hobeto ikusten zaitugu inguruko lagun danok. Ederto ospatu eguna!



ARAMAIO
**Janire eta Laia Sanz**
Martxoaren 15ean, 9 urte. Zorionak, bikote! Egun ederra pasa dezazuela opa dizuegu. Etxekoen partetik, muxu pilo bat!



ARRASATE
**Markel Bereziartua Zabala**
Martxoaren 15ean, 4 urte. Zorionak, polit hori! 4 urte honezkero etorri zinenetik, 4 urte egunez egun gure bihotzak alaitzen. Segi bizitzaz gozatzen!



ELGETA
**Amets Agirre Osa**
Martxoaren 15ean, 5 urte. Zorionak! Prestatu belarria, gorri utziko dizugu-eta. Mila muxu zuretzako, bihurritxo. Irene, Unax, Leire, Anitz eta Haizea.



BERGARA
**Helene Sanchez Roman**
Martxoaren 15ean, 3 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure egunean! Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki, Haizearen eta Tataren partetik!



OÑATI
**Beñat Irizar Aramburu**
Martxoaren 14an, 4 urte. Lau lau lau..... sardina bakalau! Zorionak, guzti-guztion partetik!



ARRASATE
**Maider Olabarria Iturbe**
Martxoaren 14an, 11 urte! Zorionak, neskatila, urte askotarako. Ongi pasatu zure eguna. Patxo potoloa, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Leire Presa**
Martxoaren 13an, 23 urte. Zorionak, lagun! Espero dut zure eguna ezinhobea izatea. Muxu handi bat!



ARETXABALETA
**Noa Olivenza Iturricastillo**
Martxoaren 12an, 5 urte. Zorionak, *guapi*! Musu asko familia osoaren partetik! Ondo-ondo pasatu zure egunean!



ARETXABALETA
**Peru Iturricastillo Elkoro**
Martxoaren 11n, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta muxu potolo bat. Maddi eta etxekoak.



OÑATI
**Maiane Barrena eta Naia Intxausti**
Zorionak, Maiane eta Naia! Martxoaren 11n bixon urtebetetzea ospatuko dugu. Egun politta pasatu eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



OÑATI
**Peio Iciar Garcia**
Martxoaren 11n, 3 urte. Zorionak, Peio! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat, etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Xabi Andres Alonso**
Martxoaren 11n, 2 urte. Zorionak, kokodrilo! Bi urtetxo gure bizitzak alaitzen! Muxu pila familia osoaren partetik, pirata!



OÑATI
**Liher Ferreiro Garcia**
Martxoaren 11n, 2 urte. Zorionak, prexioxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo bat, familiako danon eta, bereziki, Aimarren partetik. Mua!



ARRASATE
**Naroa Fernandez Fernandez**
Martxoaren 10ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu ospakizunean. Patxo potolo bat. Etxeko guztiak baina, bereziki, Ion, Enaitz eta Naia.



OÑATI
**Tasio Zelaia Marchand**
Martxoaren 10ean, 3 urte. Zorionak eta muxu erraldoi bat, etxekoen partetik.



BERGARA
**Urko Gainza Urzelai**
Martxoaren 10ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Segi horrelako jator izaten, *guapo*! Ez ahaztu zoragarria zarela. Etxekoen partetik, muxu asko.



BERGARA
**Hodei Elcorobarrutia Almenara**
Martxoaren 8an, 7 urte. Zorionak zure urtebetetzean, aitatxoren eta amatxoren partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 17

**ELGETA Ipuinen ordua**
Bi saio: 16:40an 5 urteko gelatik gorako umeendako eta 17:25ean 2 urtetik aurrerakoendako.
*Liburutegian, aipatutako orduetan.*

**OÑATI Rafael Cristobalen hitzaldia**
Bizitzako bigarren eta hirugarren urteetako ekintza. Ekintzaren ebaluazioa. Arrakasta eta porrota. Autoestimuan duten eragina. *Ezetza* delako berbaldia egingo du 2-3 urte arteko umeen gurasoendako.
*Txantxiku ikastolan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Partxis erraldoia**
Kiroldegi kanpoko partxisean jolastuko dira haurrak.
*Ludotekan, 17:00etan.*

**ARRASATE Liburu aurkezpena**
*Dos pueblos a los que amar, un mundo por el que luchar* liburuaren egileetako bik –Hector Ibarra eta Jose Luis Estevez– egingo dute aurkezpena, Arrasateko Askapenak gonbidatuta.
*Irati tabernan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Bizitzaren bidea' filma**
Korrikaren etorrera girotzeko, Joxe Ramon Agirre Marron alpinista, mendizale eta bidaiari ezagunaren ikus-entzunezkoa emango dute. Egilea ekitaldian egongo da.
*Udaletxe zaharrean, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Suerte' antzezlana**
Egunerokotasunean zorteak jokatzen duen paperean oinarrituta, Charo Gallegoren obra.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA Arragoa taldea**
Mahai-inguru formatuan egindako kontzertua izango da. Afaldu aurretik eta ostean joko dute.
*Galway Irish Pubean, 20:00etan.*

## ZAPATUA 18

**OÑATI Mendi irteera Andraitzera**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren harirako ekintza.
*Santa Marina plazan, 09:30ean.*

**ARRASATE Autoestimu feminista tailerra**
Emakumeek jendartetik zein mezu jasotzen duten eta horiek nola eragiten duten autoestimuan. 16-20 urte bitarteko neskendako.
*Emakume Txokoan, 10:00etan.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**
Sukaldaritza tailerra egingo dute: bizkotxoa, txokolatea, napolitanak, pizzak...
*San Andresen, 10:30ean.*

**ARRASATE Euskaraz Bizi Eguna**
Askotariko ekintzak egingo dituzte egun osoan. Informazio gehiago Arrasateko orrietan.
*Txupinazoa, 10:30ean.*

**ESKORIATZA Benta-Motz Berri tabernaren bigarren urteurrena**
1980ko eta 1990eko hamarkadetan oinarritutako jaia egingo dute.
*Aipatutako lekuan, 11:00etan.*

**OÑATI VIII. kobazuloen eguna Arrikrutzen**
Tailer eta bisita gidatu bereziak egingo dituzte 11:00etan eta 13:00etan gazteleraz eta 16:00etan euskaraz.
*Aipatutako lekuan eta orduetan.*

**ARRASATE Karapaixoa egiteko tailerra**
Tailerra Rakel Perez de Arenazak zuzenduko du. Orea nola egin eta nola landu, apaindu eta egosi. Karapaixoa egiteko osagaiak azokako baserritarren produktuak izango dira.
*Seber Altuben, 11:30ean.*

**OÑATI Txirrindularitza**
Alebin eta infantil mailetako lasterketak herriko kaleetan. Irteera, Unibertsitate etorbidean.
*Aipatutako lekuan, 16:00etan.*

**ARRASATE Euskaraz Bizi Eguna**
Ekitaldi horren harira egiten diren ekintzekin bat egingo dute gazteek.
*Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Sarean saltsan!'**
Argazki eta film laburren emanaldiak izango dituzte gazteek.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA '3, 2, 1... Play!'**
Familiartekoen harremanak landuko ditu Trokolo taldeak. Sarrerak, hiru euro.
*Arkupen, 17:00etan.*

**ARRASATE Bertso saioa**
Alaia Martin, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Jon Maia bertsotan, Euskaraz Bizi Eguneko karpan.
*Aipatutako lekuan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Filtroak, argiak... argazkiak nola txukundu?' ikastaroa**
Gazteendako ekintza, Ekaitz Filarmendi argazkilariarekin.
*Gaztetxean, 18:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA 'Euskadi' dokumentala**
1936an egindako 3D filma emango dute. Doan.
*Parrokian, 19:00etan.*

**ELGETA Ibai Marin**
*Bidean Naiz* biraren barruan, rock gordina, organikoa eta sentikorra erakutsiko du. Doan.
*Spaloian, 19:30ean.*

**ARRASATE Dirty Brothers, Willis Drummond, Ezten Giro eta Jo Ta Txo DJa**
Euskaraz Bizi Eguneko kontzertua.
*Herriko plazan, 21:30ean.*


BACK AND STAGE

**OÑATI Lagrimas de Sangre eta Sangre de Mono taldeak**
Reggae, rap eta ska doinuak jotzen dituzte bi taldeek. Lehenek, katalanek, *Viridarquia* diskoa aurkeztuko dute eta, bigarrenek, irundarrek, *La rebelión del simio* lana. Sarrerak, hamar euro.
*Gazur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:00etan.*

## DOMEKA 19

**OÑATI Mendi irteera**
San Roman-Mirutegi-Ballo ibilaldia egingo dute Aloña Mendikoek.
*Postetxean, 08:00etan.*

**ELGETA Mendi irteera**
Untzillatx (941 m) tontorrera joango dira, Mañaritik irtenda.
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**OÑATI Arrikrutzeko sarrerak erdi prezioan**
Kobazuloen Egunaren harira.
*Aipatutako lekuan, 09:00etan.*

**OÑATI Musika bandaren kalejira eta kontzertua**
Lehena 11:00etan eta bigarrena 12:45ean. Azken hori, Santa Anan.
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**ELGETA Hiru artisau**
Pili Arinek, Igor Hercek eta Lorena Ibeasek egingo dute berba euren artisau lanbideei buruz. Irekia guztiendako.
*Gaztelekuan, 16:30ean.*

**ESKORIATZA 'Kondaira baten truke'**
Naturaren festa ospatzen dute iratxoek. Marrubi tarta egiten dute; iratxoetako batek kondairaren pasarte bat irakurtzen du, tarta labean dagoen bitartean. Sarrerak, hiru euro.
*Zaldibarren, 17:00etan.*

**OÑATI Zinema emanaldia**
Lehen Hezkuntzako 6. mailakoen eskutik, gaztetxoendako ekintza.
*Kuboan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Sarean saltsan!'**
Argazki eta film laburren emanaldiak izango dituzte gazteek.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARRASATE Familia jolasean**
0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako gonbidapena, elkarrekin jolasteko eta ezagutzeko.
*Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Pelikula**
Gazteendako ekintza.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ARRASATE Antzinako jolasak**
Gazteendako ekintza.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

## ASTELEHENA 20

**OÑATI Ibilaldi gidatua erretiratuendako**
Erdiguneko kaleetan egingo du bisita gidatua Jerardo Elortzak, udaberriari ongietorria emateko.
*Pake Lekun, 10:30ean.*

**OÑATI 'Haurren hiria' proiektuaren aurkezpena**
Kilometroak'17ko ekintza. Bergaran egindako jaian *Blai-blai* prozesua nola antolatu zuten azalduko dute antolatzaileek.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Artean' erakusketa**
Hainbat emakume artistak egindako lanak ikusgai, martxoaren 31ra arte.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ELGETA Korrika batzordea**
Azken batzar irekia.
*Udaletxean, 19:00etan.*

## MARTITZENA 21

**OÑATI Erosketa arduratsuaz berbetan**
Solasaldia egingo dute erretiratuek, udaberriari ongietorria emateko.
*Pake Lekun, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Hiru hezkuntza proiektu, herri bat' hitzaldia**
Oñatiko, Soraluzeko eta Oreretako kide banak aurkeztuko dute proiektua, EH Bilduk gonbidatuta.
*Herriko Plazan, 18:30ean.*



HITZA

**BERGARA 'Heroiak' antzezlana**
Txalo Produkzioen azken lana. Umore ukiturarekin, gerrako beteranoen zahartzaroa kontatzen duen antzezlana. Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Soroiz oholtza gainean. Sarrerak, zortzi euro.
*Etzi, domeka, Zabalotegin, 20:00etan.*

**BERGARA 'Midfullnes'-a eta meditazioa**
Astean behin, Felix Laskurainekin. Parte hartzeko, deitu 652 77 15 83 telefonora.
*Olazarren, 18:30ean.*

**ESKORIATZA 'Lezetxiki, altxor bat gure inguruan'**
Alvaro Arrizabalagaren berbaldia.
*Ibarraundin, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Atxorrotxeko gaztelutik, Leintzeko tenentziara'**
Zuztarrak Errotuz zikloko lehen ekintza. Ikus-entzunezkoaren ostean, Beñi Agirrek egingo du berba.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA 'Bolt proyect'**
Mikel Uribek Nepalen egindako eskalada eta elkartasun proiektuaren inguruko ikus-entzunezkoa, Pol-Polen mendi astean.
*Irizarren, 19:00etan.*

**ARRASATE 'El elixir de amor' opera**
Gaetano Donizettiren musika eta Felice Romaniren letrak dituen opera, Ozenki taldearen eskutik.
*Amaia antzokian, 20:00etan.*

**OÑATI 'Argi Arantzazu' lehiaketarako azken eguna**
Natura eta espiritualtasuna oinarri duten argazkiak bidali behar dira *argiarantzazu@argifestibala.eus* helbidera. Lan bakarra aukeratuko du epaimahaiak eta horrekin erakusketa egingo dute Gandiaga Topagunean.
*Izen-ematea, aipatutako lekuan.*

## EGUAZTENA 22

**OÑATI Antzerkia eta kontzertua**
Gernikako Gure Arbola Zaharra taldearen eskutik, erretiratuendako, udaberriari ongietorria emateko.
*Santa Anan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Udaberriko materiala biltzeko irteera**
Hostoak, belarrak eta makilak batuko dituzte haurrek.
*Ludotekan, 17:00etan.*

**OÑATI Ipuin ibiltariaren aurkezpena**
Lur Kortak ipuin kontaketa saioa egingo du familiendako.
*Liburutegian, 18:00etan.*

**BERGARA 'Goazen' antzezlanerako sarrerak**
Gaur, 18:00etatik aurrera, erosi ahal izango dira sarrerak Kutxabanken webgunean, zortzi eurotan. Antzezlana, apirilaren 23an izango da udal pilotalekuan.
*Salmenta, aipatutako lekuan.*

**OÑATI Literatura solasaldia**
*Gatazka armatua eta kartzela* liburuari buruzko solasaldia, Zuriñe Rodriguez egilearekin eta Danele Sarriugarterekin. Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekintza.
*Liburutegian, 18:30ean.*

## EGUENA 23

**OÑATI Bingo berezia**
Erretiratuendako ekintza, opari eta sari bereziekin, udaberriari ongietorria emateko.
*Pake Lekun, 17:00etan.*

**BERGARA 'Emakumeen etxea' erakusketa**
Herriko emakume artisten lanek osatutako mostra egongo da ikusgai apirilaren 2ra arte.
*Aroztegi aretoan, 18:30ean.*

**OÑATI 'Utzi erretzeari marraztuz' liburuaren aurkezpena**
Edurne Arkauzek aurkeztuko du Amaia 8a-k idatzitako liburuxka. Karmele Lopez de Uraldek egin du liburuaren hausnarketa.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Zinegoak Hedapena 2017'**
Sei film labur emango dituzte: *No es nada*; *Gabber Lover*, *#Not Guilty*; *Ana se intoarce*; *Gravido* eta *Oh-Be-Joyfull*.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Emakumeei buruzko film laburrak**
*The Curse*, *Mobile Homes*, *Rae*, *What to bring to America* eta *Irene* film laburrak emango dituzte. Guztira, 76 minutuko emanaldia izango da, eta doan.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

**ANTZUOLA Erretiratuen abesbatzaren entsegua**
Lehen entsegua egingo dute eta deialdi irekia egin dute.
*Udaletxean, 19:00etan.*

**BERGARA 'Islandia, odisea y supervivencia'**
Luismi Egiluzen ikus-entzunezkoa, Pol-Polen mendi astearen barruan. Irekia.
*Irizarren, 19:00etan.*

**ARRASATE Mierda taldea**
Madrilgo punk-hardcore taldearen kontzertua. Hainbat lan kaleratu ditu eta lehen bira egiten dihardu Euskal Herrian. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**La, La, Land**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.

**Batman**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**La, La, Land**
Egubakoitza: 22:30. Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30, 22:30.

**Siete vidas**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA**

ARKUPE

**Nacimiento de una nacion**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**EIBAR**

COLISEO

**Moonligth**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Manual de tacaño**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

**La bella y la bestia**
Domeka: 17:00, 20:00.

ANTZOKIA

**La bella y la bestia**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 20.30.

**EIBAR**

BOULEVARD

**La bella y la bestia**
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 16:45,17:30, 18:20, 19:20, 20:10, 21:00, 22:00.

**Crudo**
Egubakoitzetik eguenera: 16:10, 18:20, 20:35, 22:40.

**La isla de la calavera**
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:30, 21:00, 23:30.
Domeka eta astelehenetik eguenera: 16:00, 18:30, 21:00.

**La isla de la calavera 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 21:00.

**El guardian invisible**
Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:50, 19:45, 21:30.

**Logan**
Egubakoitza, zapatua eta astelehenetik eguenera: 16:00, 18:45, 21:30.
Domeka: 19:00, 21:45.
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**La gran muralla**
Egubakoitzetik eguenera: 20:30.

**Batman**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 15:50.
Zapatua eta domeka: 15:50, 18:00.

**Ballerina**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 16:10.
Zapatua eta domeka: 16:10, 18:10.

**Es por tu bien**
Egubakoitzetik eguenera: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40.

**Multiple**
Egubakoitzetik eguenera: 22:40.

**Lo que de verdad importa**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 18:00.

**50 sombras mas oscuras**
Egubakoitzetik eguenera: 20:10.

**Gold**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**La, La, Land**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 18:10.

## KRITIKA

**La chica desconocida** ★★★☆☆
**Zuz.:** Luc eta Jean-Pierre Dardenne. **Aktoreak:** Adéle Haenel, Jerémie Renier, Christelle Cornil.

# Thriller soziologikoa

**ANTXONIO ZABALA**

Liejako mediku bat lanean ikusten dugu. Arduratsua da, langilea, eta buru-belarri aritzen da gauzak egin behar diren moduan egiten. Egun batean, ordutegiz kanpo kontsultan dagoela, norbaitek txirrina jotzen du, baina berak ez dio kasurik egiten. Txirrina jo duen pertsona hurrengo egunean hilda agertzen da. Afrikatik etorritako neska beltza da. Medikuak, gertatutakoarekin, kolpe handia jasoko du. Hortik aurrera, hildakoa nor den jakiten ahaleginduko da, haren familia jakinean jartzeko eta behar duen hileta izateko.

*La chica desconocida* thriller soziologikoa da. Hori bai, thrillerra bidea besterik ez da gaur egungo Europan gertatzen ari den egoerari begirada bat emateko. Ez dira ikusten negozio handiak, gangster nazkagarriak edo ezuste handiak. Dena askoz arruntagoa da. Dardenne anaiak eguneroko bizitzan oinarritzen dira, eta bertan finkatu diren bidegabekerietan. Eszena guztietan mediku gaztea agertzen da. Kamerak beti honen jarraipena egiten du. Hasieran, egiten duen lana ikusiko dugu, bere bizitza nolakoa den. Eta neska afrikarraren heriotza gertatu ondoren, medikuaren inguruan gertatzen dena ezagutzen joango da. Horrela, protagonistak datuak lotzen dituen neurrian, bizi den gizartea nolakoa den ikusiko dugu. *La chica desconocida* pelikula zuzena da, beharrezkoa, baina, agian, lau samarra.

AZKEN BERBA



ANDER ETXEBERRIA

## Klasikoak

"Ezagutzen dozu?", galdetu zidan alabatxoak harrituta. Irratian *Sarri Sarri* abestia zegoen eta, itxura denez, kantatzen nenbilen. "Ezagutzen dozu?", berriro. "Bai, eta zuk?" erantzun nion, ni ere aho zabalik. "Ba klaro", berak.

Nork esan behar zuen laurogeiko hamarkadan sortutako kantuak belaunaldiak zeharkatuko zituenik. Baina begi bistakoa da ez dela bakarra. Izugarrizko loraldia gertatu zen garai hartan, eta musika estilo askotan, gainera: punka, ska, heavya, reggaea, rapa, rocka... Hain olatu handia izanik, ez da erraza bereiztea aurretik izan ziren olatuak eta, esango nuke, ondoren etorri zirenak ere. Dozenaka abesti dira orduan jaio eta oraindik presente daudenak modu batean edo bestean: uhinetan, kamisetetan, txapetan, egungo bertsioetan, etab. Denborarekiko lotura gainditu dute. Klasikoak dira.

Azkenaldian haur eta gaztetxoen ahotan jarri dituzte kantu horietako batzuk *Kantari* eta *Go!azen* moduko telebista programek. Baina horiek gabe ere bidea aurkituko zuten.

"Gustetan jatzu, aitta?", luzatu zidan orduan. Baietz esan nion buruaz. Eta alabatxoak: "Niri be bai". Hortxe, klasikoa.

BUKATZEKO



Joan den zapatuan Kurtzetxikitik ateratako argazkian ageri da haizeak eragin zuen polen-eztanda. URTZI BERASALUZE

# Ezohiko polen eztandak erlaino horia sortu zuen

Joan den zapatuan gertatu zen eta Debagoien osoan ikusi ahal izan zen. 'Insignis' pinuaren polen-poltsek eztanda egin zuten, hezetasunaren eta hego-haizearen eraginez, eta zeruan erlaino horixka sortu zen. Naturaren indar erakustaldia izan zen

**Miren Arregi** ARRASATE

13:00 inguruan gertatu zen eztanda, eta ez zuen inor axolagabe utzi. Gure bailaran ez ezik, Urolan ere sumatu zuten, baita Gipuzkoako beste gune batzuetan ere. Hain zuzen ere, *insignis* pinuaren polen-poltsek, sinkronizatuta, eztanda egin zuten, hezetasunak eta hego-haizeak bultzatuta, eta, hain zuzen ere, azken horrek polen behe-laino horixka eratu zuen. Polen eztanda udaberrian urtero gertatzen den zerbait da: "Sinkronizatuta gertatzen da beti, eta nola inguru honetan *insignis* asko dagoen, zapatuko eztanda ikusgarria izan zen. Dena den, ez da ohikoa sortu zuen erlainoa sortzea", jakinarazi du Oñatiko Natur Eskolako Imanol Biainek. Eta gaineratu du: "Ni mendian nengoen eta 11:00 ingururako sumatzen zen dagoeneko halako laino horixka bat. Gero egin zuen eztanda. Inoiz ez dut horrelakorik ikusi". Naturarendako negua bukatu dela adierazten du horrek, iritsi dela udaberria, "behar lukeena baino apur bat lehenago".



Polena ur gainean, Urkulun. O.A

### Ugaltzeko modua

Polena landareek duten ugaltzeko modua da. Gramineoekin gertatzen ez den moduan –horiek intsektuen bitartez garraiatzen dute polena–, koniferoek haizea behar dute polenak lora emea ernaldu eta hortik hazia sortzeko. "Zapatuko eztandatik irtendako polenaren %95 alferrik galduko da; hori da auto gainean, balkoian edo uretan ikusten duguna, eta gainontzeko %5 ernaldu egingo da", adierazi du Imanol Biainek.

Gama altuko
2 mō betaurreko progresibo
197€
Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



www.multiopticasgipuzkoa.com
BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA
LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA
Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA
MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan